ttipi-ttapa fundazioa | **832. zk.** | 2023ko ekainaren 15a | **XLIII. urtea** | **erran.eus** | TOKIKOM

# ttipi-ttapa




**HERRIETAKO BESTAK** / 31



Ibai MEOKI ETXEBESTE

## «NIRETAKO HARROTASUN HAUNDIA DA ERREKAREN HARROBIKOA IZATEA»

Errekan hasi zuen Ibai Meoki Etxebestek bere eskubaloi ibilbidea, eta geroztik, Nafarroako eta Alemaniako hainbat taldetan aritu da. Berriki, Helvetia Anaitasuna taldearekin denboraldia borobilduta, eskubaloia uztea erabaki du doneztebarrak. / **8**

HELVETIA ANAITASUNA

# Lehen sektorean eragin nahian

Lehen sektorea eta tokiko elikadura sistema bultzatzeko hainbat proiektu jarri dituzte martxan Mendialdean. / **10**

**SINADURAK**


MAIDER IANTZI GOIENETXE / **3**


AITOR AROTZENA ALBIZU / **3**


MIKEL RODRIGUEZ LANDA / **4**


MAIALEN SOBRINO LOPEZ / **4**




**ZOZKETA** / 72

### Beran ere Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko lanean / 15

### Baztandarra Txirrindularitza Taldeak 40 urte bete ditu / 50



MAIALEN APEZETXEA

### 'Ni ez naiz zomorroa' ipuina idatzi du Goizuetako Ane Tabernak / 49



XDZ

### Euskal Herriko Eskolartekoa irabazi du Haira Aizpurua saratarrak / 60


LANDA
NAFARROA LOTU
Tokikoa, Jasangarria eta digitala
CONECTA
NAVARRA RURAL
Local, sostenible y digital
Nafarroako Lurralde Ekintza Taldeen arteko lankidetza proiektua, lurraldeen Erronka demografikoari aurre egiteko, lurraldeen arteko konektibitatea sustatuz.
Populazioaren, enpresen eta administrazioaren arteko KONEXIO DIGITALA
KONEXIO FISIKOA Mugikortasunerako soluzio jasangarriak
BERTAKO PRODUKTUEN eskaintza eta eskariaren arteko KONEKTIBITATEA
ESKAINTZA DOAKOA
LOTU ZAITEZ
TAILERRAK
JARDUNALDIAK
IKASTAROAK
LANSAIOAK
HITZALDIAK
ESCAPE ROOM-a
Informazio gehiago hemen:
conectanavarrarural.org
SMART FARM
UNIÓN EUROPEA
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
cederna garalur
ZONA MEDIA
Teder
consorcio EDER


BERA
LESAKA
Agenda
2023
EKAINA
UZTAILA
www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus
LESAKAKO UDALA
EKAINA
16TIK 18RA
BESTAK
ALTZATEKO BESTAK
BERA
24
LARUNBATA
MERKATU TTIKIA
LESAKA
30
ORTZIRALEA
LESAKAKO MUSIKA BANDA
LESAKA
18
IGANDEA
IKASTURTE BUKAERAKO JAIALDIA
REBECA DANZA AKADEMIA
FESTIVAL FIN DE CURSO
18 JUNIO
LESAKA
25
IGANDEA
LESAKAKO AKORDEOI JAIALDIA
HAMAR URTE, HAMAIKA DINAMIKA
LESAKA
UZTAILA
1
LARUNBATA
ARKUPE PILOTA ELKARTEAREN ERAKUSTALDIA
Antolatzailea:
LESAKA
23
ORTZIRALEA
SAN JUAN BEZPERA
LESAKA
30
ORTZIRALEA
FILM LABURREN EMANALDIA
3GHEDAPENA 2023 (ZINEGOAK)
Argibide gehiago:
Antolatzailea:
BERA
8
LARUNBATA
BERAKO EKOIZLEEN MERKATUA
BERA



## NIRE TXANDA

**MAIDER IANTZI GOIENETXE**

# Ostempo Nuna

Ekintza bitxi bat egin dute Hendaian: hemendik 500 urtera aditua izanen den soinu kapsula bat urperatu dute Bidasoan. Binilo bat du barnean, gaurko biztanleek etorkizunekoei zuzendutako mezuak biltzen dituena. Ander Fernandez eta Imanol Espinazo artistek jende xehearen hitzak eta errateko moduak grabatu, eta itsas hondoan utzi dituzte, bake-bakean, altxor baten gisan, bi xede dituelako egitasmoak: erraten uztea, eta errandakoa ongi gordetzea.

Ostempo Nuna deitzen da; Etorkizuna Orain, esperantoan. Ezagutzera gonbidatzen zaituztet, baita proiektuaren parte den eta Hendaiako tren geltokian dagoen Borderline Fabrika bisitatzera ere. *Ostemponuna.com*en paratu dituzte mezu guziak. Bost urte barru webgunea ezabatuko dute, eta urpean bakarrik geldituko da gure aztarna.

**«BOST URTE BARRU URPEAN GELDITUKO DA GURE AZTARNA»**

Nork eta nola aurkituko du? Ezin izanen dugu jakin, eta gogoetak berak gure izaera efimeroaren amildegiaren aitzinean paratzen gaitu.



## EZPALA

**AITOR AROTZENA ALBIZU**

# Hamsterra gurpilean biraka

*Denbora gehiago izatea gustatuko litzaidake, albokoak eta maite ditudanak kalitatez zaintzeko, baina errutinaren berehalakotasunak ezinezko egiten du.* Berriki irakurri dudan txio bat bertzerik ez da, baina nork ez du sentsazio hori izan noizbait? Lanak, bilerak, gibelera ezinak diren hitzorduak… beti zerbaitetan ari behar, gurpilak martxan segi dezan.

## NABARMENTZEKOAK



**HAIRA AIZPURUA**
BERTSOLARIA

Haira Aizpurua Ibargarai saratarrak irabazi du Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa bigarrenez. Aitzinetik, Iparraldeko eskolartekoa ere irabazi du laugarrenez.



**ANE TABERNA**
IRAKASLEA

Garai bateko ikazkinen bizimodua eta Zahagi dantzaren jatorria hizpide hartuta, *Ni ez naiz zomorroa* ipuina idatzi du Ane Taberna Etxeberria goizuetarrak.

## GIBELERA BEGIRA



2013-06-13 · TTIPI-TTAPA · 592 zk.

# Maitetxu Leonisekin solasean

Ezintasuna gai hartuta, Maitetxu Leonis beratarra izan zen TTIPI-TTAPA aldizkariko protagonistetako bat duela 10 urte. Esperientziak elkarbanatu eta elkarrekin lan egiteko talde sortu zuten Bortzirietan, eta gurasoak eta profesionalak hilabetean behin biltzea zen asmoa taldean «ezintasunaz naturaltasunez hitz egiteko» bidea irekitzeko. Taldeaz mintzatu zen Leonis, eta baita ezintasun bat duen haur baten ama bezala izandako sentipenez: «Lehenengo pausoak familiek eman behar ditugula uste dut. Ez dugu ezkutatu edo lotsatu behar. Batez ere, gizartean dauden aurreiritziak desagertarazi behar dira. Normaltasuna eskatzen dugu, jaso dezakegun babesik hoberena gizarteak ulertzea da, desberdintasun eta errukirik gabe».

ttipi-ttapa

erran.eus

TOKIKOM

**Argitaratzailea**
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**
Aitor Arotzena
**Erredakzioa**
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
**Publizitatea**
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
**Berriemaileak**
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Ana Iturbide, Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Jean Louis Bessonart, Ganex Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**
Paskual Rekalde
**Kudeatzailea**
Joxemanuel Irigoien
**Administrazioa**
Amaia Goia

**Lege Gordailua**
NA-1324/85
**ISSN**
1578-4673
**Tirada**
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.

**2023ko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 45€ |
| Leitza | 36€ |
| Hego Euskal Herria | 50€ |
| Ipar Euskal Herria, Europa | 100€ |
| Amerika eta Australia | 152€ |

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · mecna · Baztango euskara · Bortzirietako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea · CC BY SA

KOLABORAZIOAK



MIKEL RODRIGUEZ LANDA

## Zein dago lotuago?

Asteburu honetan osatuko dira herriko etxeak Hego Euskal Herrian. Nafarroa Garaian, Euskararen Legeak *eremu euskaldun* izendatzen duen partean EH Bildu izanen da nagusi: 64 udalerritatik 26tan irabazi ditu hauteskundeak. Nafarroako Parlamentuan ordezkaritza duten alderdietatik soilik bertze batek, Geroa Baik, lortu du eremu euskalduneko udalerriren batean irabaztea. Bertze 25etan herrietako plataformak nagusitu dira, eta hamabitan ez da zerrenda bakar bat ere aurkeztu. Herriko etxeen mapa horretan, bertze behin, hutsune handi bat dago: alderdi espainolistena.

Izan ere, aitzineko hauteskundeetatik azkartzen ari da joera bat: eremu euskalduna erraten zaionak gero eta argiago ematen die bizkarra alderdi espainolistei. Hasteko, ez dute alkatetza bakar bat ere ez. Bertze adibide nabarmen bat: azken lau urteotan Nafarroan agindu duen alderdiak, Espainiako Alderdi Sozialistaren adarrak, zinegotzi bakarra atera du 64 udalerritan, eta zerrendak hiruzpalautan baino ez ditu aurkeztu. Tradizionalki, eremuan espainolismoaren ordezkari nagusia eskuin neofrankista izan da, baina bistan da garai hobeak ezagutu dituela. UPNk azkenekoz 2011n lortu zuen udalerriren batean zerrenda bozkatuena izatea; eremu euskaldunean izan duen indarguneetako batean izan zen, Baztanen: 1.524 boto (% 33,92) eta bortz zinegotzi lortu zituen –orain, 459 (% 11,65) eta zinegotzi bakarra–. UPNk eta PPk 64 udalerritatik zazpitan bakarrik izanen dute ordezkaritza, eta, gainera, alderdi minoritarioak izanen dira. Nolabaiteko arrakasta izan duen indar espainolista bakarra Zurekin Nafarroa koalizioa izan da, Baztanen bigarren izan baita, eta gobernagarritasunerako giltza baitu.

**«HERRIKO ETXEEN MAPAN HUTSUNE BAT DAGO: ALDERDI ESPAINOLISTENA»**

Egiari zor, herriko etxeetarako hauteskundeetan hautagaiak zuzenean ezagutzeak eragin handia izaten du, eta, horrez gain, alderdietatik aparte aurkezten diren plataformen izaera ideologikoa hagitz ezberdina izan ohi da herriz herri. Segur aski, Nafarroako Parlamenturakoek erakusten dute hobeki herrietako joera ideologikoak zein diren, eta, horietan, espainolismoaren presentzia handiagoa izaten da. Baina hor ere gibelera egiten ari da. 2011n hamahiru udalerritan irabazi zuen alderdi espainolista batek (UPNk); 2015ean, zazpira jaitsi zen kopurua (UPN, berriz); 2019an, eskuina Navarra Suman elkartuta, zortzira igo zuten, eta banatu ondotik, aurten hirutan baino ez da izan bozkatuena alderdi espainolista bat (UPN).

Bai espainolismotik, baina baita euskaltzaletasunetik ere, beti nabarmendu izan da alderdi euskaltzaleek zer-nolako zailtasunak dituzten Nafarroako eskualde erdaldunduetan. Baina azken hauteskundeetan euskaltzaleek gero eta gehiagotan lortu dute ordezkaritza udalerri erdaldunduetan, gero eta alkatetza gehiago irabazi dituzte, eta zenbaitetan EH Bilduk eta Geroa Baik elkarrekin gehiengo osoa ere lortu dute. Ez da hori alderdi espainolisten joera udalerririk euskaldunenetan, eta ez da behar bezain bertze oroitarazten. Zein ote da, orduan, Nafarroa Garai osoko errealitatearekin lotuagoa dagoena?



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

## Ez dadin mundua txikitu

Yasnaya Elena Aguilar Gilek *Ää: manifiestos sobre la diversidad lingüística* liburuaren edizio berria aurkeztu du berriki Euskal Herrian eta ekitaldian eman zuen hitzaldi mamitsutik bortz titular ekarri nahi dizkizuet, zuengan ere piztu dadin liburua irakurtzeko grina.

Lehenik eta behin, markoa argi utzi zuen: Mexikon 12 hizkuntza familia daude eta indoeuroparra den hizkuntza bakarra da hegemonikoa, koloniak inposatutakoa. Gero, gogora ekarri zuen Mexikoko estatua sortu zenean populazioaren % 70 hizkuntza indigena bateko hiztuna zela eta, aldiz, gaur egun % 6,1. Beraz, kolonialismoaz gain, estatuari leporatzeko franko zuen hizkuntza zapalkuntzari dagokionez. Erran zuen: «Estatuarentzat arras garestia (izan) da errealitate eleaniztunaren kontra borrokatzea. Galdetu Mexikoko Estatuari, sortu zenetik, zenbat diru inbertitu duen gaztelaniadun elebakarrak sortzeko».

Bigarren titularra: «Hiztunek giza eskubideak gorpuzten dituzten bezala, hizkuntza eskubideak dira giza eskubideen hari eroale. Gure testuinguruan ezin da demokraziaz aritu elebakartasunetik». Izan ere, hizkuntza zapalkuntzaz gain, bertzelako hegemonia eta indarkerien gurutzaketa edo nahasketa da hiztunok etengabe gorpuzten duguna. Horri bueltaka ari ginelarik zazpi hitz bota zizkigun: «mundu justuago bat ezin da elebakarra izan».

**«IZATEKO MODUAK GALDU AHALA POBREAGO IZANEN GARA GIZAKIAK»**

Segidan, etorkizuna izan zuen hizpide. Bere ustez, «hizkuntza aniztasuna galtzen jarraitzen badugu gizakiaren mundu ikuskera geroz eta murritzagoa izanen da». Hau da, munduari begiratzeko, mundua ulertzeko eta, funtsean, munduan egon eta izateko moduak galdu ahala pobreagoak izanen gara gizakiok, ikuspegi geroz eta hertsiagoa izanen dugulako. Beraz, mundua, literal zein metaforikoki, txikituko dugu.

Mixe hizkuntzaren biziberritze lanetan gogotsu ari direla nabaria zen, dantzan dituztela esku eta buruak, mugak muga. Nola egiten ari diren galdetu eta oinarrizko hiru baldintza aipatu zituen: «hizkuntzaren biziberritzea lurraldearen defentsarekin lotzea, hiztuna ez den jendearekin aliantza sendoak egitea eta komunitate lana (estatu egituretatik kanpokoa) indartzea».

Bukatzeko, itxaropena eta borroka ezinbertzean lotu zituen Yasnaya Elena Aguilar Gilek: «Herri indigenetan baditugu egungo hainbat krisiri aurre egiteko gakoak: adibidez, gizakiak naturaren parte izatea (elikadura, osasungintza edo sinesmenei dagokienez, bertzeak bertze) edo mendebaldekoak ez diren familia ereduei, alegia eredu kolektiboagoei, eustea».

11 GALDERA LABUR

**AINARA OTXANDORENA ARTZE** SALDIASKO GAZTEA



# «Saldiasko festetan herri guztia batzen da»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**
16 urteko neska alaia naizela esanen nuke.

**Zein dira zure zaletasunak?**
Trikitixa jotzea, lagunekin egotea, musika entzutea… gustatzen zait gehien.

**Zer gustatuko litzaizuke ikastea?**
4. DBH bukatzear nago Doneztebeko institutuan, eta etorkizun hurbilera begira, batxilergoa egin behar dut Lekarozen. Gerora begira, Euskal Ikasketak egin nahi ditut.

**Herriko festak izanen dituzue laster. Festazalea zara?**
Aurtengo festetan ikasbidaian egonen naizen arren, festak iristear daudenean herrian giro berezia sumatzen da eta hori gozatzeko modua izanen dut, beraz horretarako gogotsu nago. Herriko festak asko gustatzen zaizkit, egun horietan herri guztia batzen baikara.

**Zein da txikitatik duzun lehen oroitzapena festetan?**
5-6 urte nituela, nire pandero txikia hartuta plazara jotzera ateratzen nintzenean, trikitilari eta panderojoleekin batera.

**Gaur egun zein dira gehien gustatzen zaizkizun eguna eta jarduera?**
San Juan eguna, jarduera gehien duen eguna delako eta familia eta lagun guztiak batzen garelako. Jarduera bat aukeratzekotan, herri bazkarian sortzen den giroa asko gustatzen zait.

**Trikitixa jotzen duzu, ezta?**
Bai, 9 urte nituenetik jotzen dut trikitixa, hau da, duela 7 urte. 4 urtetatik 8 urtetara pandereta jotzen aritu nintzen.

**Herriko festetan jotzen duzu?**
Hasieran lagunen afari eta bazkarietan jotzen nuen bakarrik, baina azken urteetan herri bazkarian jotzera animatu naiz. Oso modu ona da herria dantzan jartzeko eta trikitixak edo beste edozein musika tresnak giro polita sortzen du.

**Zerk egiten ditu berezi Saldiasko festak?**
Herri bakoitzak du bere xarma, baina berezia da Saldiasko festetan herriko eta ondoko herrietako gazteak nola biltzen garen ikustea.

**Zure asmoak epe motzera?**
4. DBH bukatzea, eta ondoren uda disfrutatzea.

**Eta epe luzera?**
Ez dut helburu zehatzik, lagunez eta familiaz disfrutatu nahi dut eta ikasketekin jarraitu.




1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634
Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak




# IRAKURLEAK MINTZO

## Makropoligono eolikoak kanpora!

**IRANTZU PIQUERO ETA MATTHIAS KRÜGER**
EOLIKARIKEZ@MAILBOX.ORG

-**Iruzurra dira**. Euren irabaziak dirulaguntzetatik heltzen dira.

-**Gure subiranotasunaren aurkako erasoa dira**. Gure paisaia suntsitzen dute, industrializatu egiten dute eta euren aberasten dira. Gobernuekin egiten dituzten kudeaketak herritarron bizkar egiten dituzte.

-**Gaixotu egiten gaituzte**. Infrasoinuen, bibrazioen, soinuen eta bertzelako erradiazioen bitartez, osasunean kalte larriak eragiten dituzte: insomnioa, antsietatea, migrainak, soinu (*pitido*) kronikoak, hipertentsioa, takikardiak eta palpitazioak.

-**Fauna eta flora suntsitzen dute**. Hegaztiak, saguzarrak, intsektuak… Zizareak desagertu egiten dira. Aziendak jatekorik gabe gelditzen dira, eta portaeran aldaketak izaten dituzte. Ehiza ere arrunt murriztua gelditùko da.

-**Gure ura kentzen digute**. Gure iturburuak eraldatzen ahal dituzte. Eraikuntzan erabiltzen dituzten produktu toxikoek edaten dugun ura kutsatzen ahal dute.

-**Herriak pobretzen dituzte kanpoko enpresek eta politikariek (berdin du zein alderditakoak) irabaziak hartzen dituzten bitartean**. Landa eremua gero eta gehiago husten da. Gure ondasunak gainbeheran paratzen dituzte, ezin saldu bihurtzeraino. Turismoa uxatzen dute.

-**Tranpa dira**. Lana sortzen dutela erraten digute, baina ez da egia. Langabezia sortzen dute. Sortzen duten lana aldi baterako da eta gu guztion biziaren eta osasunaren kontura sortzen dute.

-**Ez dira ez berriztagarriak, ez berdeak**. Turbina bat eraikitzeko eta muntatzeko lehengai aunitz erabiltzen dituzte, horretarako bertze lurrak eta jendea esplotatuz. Ezin dira birziklatu.

-**Ez dute $CO_2$aren emisioa murrizten eta berotze globala eragiten dute**. Krisi energetikoari erantzuteko bidea direla saltzen digute, baina arazoaren parte dira; 5Ga, kotxe elektrikoa eta etengabeko gerrak bezala. Kapitalismoa ez da bateragarria planetako bizitzarekin. Nahitaezkoa da paradigma aldatzea eta herrialde aberatsetan energia eta baliabide naturalen kontsumoa masiboki murriztea. Eta hori nola egin erabakitzea gure esku egon behar du.

## Zuekin egiten jarraituko dugu

**LADIS SATRUSTEGI, DABID ANAUT, FERNANDO ANBUSTEGI, ARANTXA ARREGI, AITOR ELEXPURU, AMETS INDA, JABIER BEREAU ETA UNAI MIRANDA**
EH BILDUKO ALKATEGAIAK

Oraingoan zuri zuzentzen gatzaizkizu, bide honetan ezinbestekoa zaren herritar horri. Zuek zarete gure herriak bizi-bizirik mantentzen dituzuenak. Zuek zarete gure herrien arnas eta akuilu. Eta, horregatik, eskerrik asko bihotz-bihotzez emandako babes eta bultzadagatik.

Ez da erraza izan EH Bilduko alkategai izateko konpromisoa hartzea, gure herrietako udaletan jarduteko ardura hartzea urrats handia baita. Baina maiatzaren 28an herriz herri lortutako emaitza ikusgarriak gure erabakia berretsi eta indartu egiten du. Gure herrietako herritarron bizitzak hobetze bidean gure onena ematea, alegia. Herritarren zerbitzura jardutea, herritik eta herriarentzat lema errealitate eginez. Egunerokoan elkarlanean ekinez. Eta, nola ez, denentzat bizigarriagoa den herri bat eraikitzen jarraitzea, babesa eman diguzuenontzat eta oraingoan babesa eman ez diguzuon guztiontzat.

Jakin badakigu gure herrietan bizi duinak garatu ahal izateko hamaika erronka ditugula. Izan lanpostu duinak sortzeari begira, izan etxebizitzarako sarbidea eskuragarri egiteari begira, izan aurrean dugun krisi ekosozialagatik, izan herri euskaldunago bat sortzeari begira, edota izan pertsonak erdigunean izanen dituen zaintza ekosistema eraikitzen jarraitzeari begira.

Eta bide hau, ezinbestean, zuekin egin beharko dugu, elkarlanean eta auzolanean, herritik eta herriarentzat. Ekainaren 17an udal talde berrietako kideok gure ardurak hartzen ditugunetik aurrera, beraz, hauxe bera izanen da gure bidea.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi, maiatzaren 28an bezala, uztailaren 23an ere aukera garrantzitsua dugula hemen eta oro har Nafarroan bestelako herri bat badela ozen adierazteko. Norabide horretan, egin berri dugun bezala, uztailaren 23an berriz ere eginen dugu eta gure egunerokoan zuekin batera egiten jarraituko dugu.

# BOTA BERTSOA



**ELAIA MINDEGIA ARANBURU**
LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN A MAILAN 2. SARIA

## Baztan-Bidasoa

Doinua: Txuriko

*Baztan-Bidasoak ttu*
*erreka garbiak*
*erreka inguruetan*
*zaldi eta ardiak.*
*Aspaldi egoten ziren*
*milaka idiak*
*politak diren herri*
*ttiki ta haundiak.*

EUSKARAREN TXOKOA

# *Zaindu maite duzun hori...*

## Nola erran?

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

***'Euskaraz solas egiten atzendu zaio'***

≠

***'Euskaraz solastatzea atzendu zaio'***

Biak zuzenak dira, baina esanahi ezberdina dute:

-Euskaraz solas egiten atzendu (ahaztu, ahantzi…) zaio. Esaldi horrek lehen bazekiela eta orain ez dakiela erran nahi du.

-Euskaraz solas egitea atzendu (ahaztu, ahantzi…) zaio gaurko hitzaldian. Kasu horretan, egiteko asmoa zeukan, baina gero dena erdaraz egin du.

Beti da molde okerra honako hau: ****Euskaraz solas egin atzendu zaio.***

Euskaltzaindiak dioen bezala, euskalki-mailako diferentzia da *zutaz/zurekin ahaztu* esamoldeen arteko aldea; hau da, biak zuzenak dira. Adiskideez ahaztu dira. Ahaztuko naiz haren bekatu guztiez. Lurralde honekin ez da ahaztuko…

## Osatu erran zaharra










## Zein da zuzena?

### 'Urdin' edo 'azul'?

Posible ote da *azul* onartua egotea? Galdera hori egin du Maite Lakarrek *Malerreka Aldeko Mintzoa* liburuxkan. Bere hitzetan, «ia denek pentsatuko dute erdal solasa dela, baina adinekoei adituz gero, ohartuko gara haiek *azul* anitz erabiltzen dutela». Eta halaxe da, *azul* zuzena da, onartua da.

Gehiago ere bai. *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* erreferentzia eginez, *urdin* solasak *grisa* ere erran nahi duela dio Lakarrek, eta horregatik, *ilea urdindua* izateak *ilearen kolorea galtzen hasia, baina erabat zuritu gabea dela* adierazten du.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak…
Animatu eta parte hartu!

info@ttipi.eus

744 48 43 61



Ibai Meoki Anaitasuna kiroldegiko azken partidan. Asobal ligari eutsita utzi du eskubaloia doneztebarrak. ANAITASUNA

# «Jokatu dudan leku guztietan dena ematen saiatu naiz beti»

**IBAI MEOKI ETXEBESTE** DONEZTEBEKO ESKUBALOI JOKALARI OHIA

34 urteko jokalari doneztebarrak eskubaloia utzi berri du. Hamar urterekin Errekan hasi eta Nafarroako eta Alemaniako hainbat taldetan aritu da eta Helvetia Anaitasunako jokalaria izan da

**AITOR AROTZENA** DONEZTEBE

Hamazazpi urterekin Portland San Antonio taldeko harrobiko taldera joan zen. Bi urte eta erdi beranduago, lehen aldiz Anaitasunan aritu zen, utzita, Ohorezko B mailan. Urte eta erdi beranduago berriz ere San Antoniora itzuli zen, lehen taldean aritzeko. Bi urte eman zituen San Antonion eta berriz ere Anaitasunara itzuli zen, hiru urtez Asobal ligan aritzeko. Orduan hasi zuen Alemaniako ibilbidea, Bundesligako bigarren mailan, bi urtez HG Saarlouis taldean eta bat ThSV Eisenach taldean. 2018-19 denboralditik honat berriz Anaitasunarekin aritu da. Denera, 300 bat partida jokatu ditu Meokik Asobal ligan. Hamabi denboralditan 400 bat gol egin ditu. Alemanian 67 partida jokatu zituen HG Saarlouis taldean (175 gol) eta 30 partida ThSV Eisenach taldean (49 gol).

**Maiatzaren 27an zure azken partida Iruñean Anaitasunan. Omenaldia, oroigarriak… Hainbertze emozioren ondotik, zer gorputzaldi gelditu zaizu?**

Denetik pixko bat. Egun arrontean polita izan zen eta dena perfekto atera zen. Irabazi genuen eta Asobal ligan ariko da Anaitasuna bertze denboraldi batez. Hori lasaitu handia izan da guretzat, denboraldi gogorra izaten ari zelako. Nik pertsonalki banekien eskubaloia utzi behar nuela eta taldea Asobalen utzi nahi nuen. Hori helburu garrantzitsua zen niretzat, hainbertze urteren eta gero, erretiratzen naizen urtean ongi akitu nahi nuen, ez da berdina taldea jautsi ondotik uztea edo goi mailan utzita uztea. Kirol helburua beteta, niretzat egun arras polita izan zen, arrontean hunkitua bukatu nuen, kristoren jende pila etorri zen, Errekako jendea, kuadrillakoak, familia guztia, unibertsitateko lagun aunitz… Egun ederra izan zen eta orain, oroitzen naizenean, irribarretxo hori ateratzen zait.

**Ibilbide luzea izan duzu eskubaloian… Zer azpimarratuko zenuke? Zer eman dizu eskubaloiak eta zuk zer eman diozu eskubaloiari?**

Niri eskubaloiak gauza aunitz eman dizkit, aunitz-aunitz. Ttikitatik, Errekan hasi nintzenetik, ordu aunitz eman genituen, kristoren anbientea genuen eta aunitz disfrutatu nuen. Guretzat garrantzitsuak izan ziren garaipenak izan genituen eta horietaz aunitz oroitzen naiz eta oroitzapen politak dira. Gero, profesionaletan, jende pila bat ezagutu dut, esperientzia pila bat izan dut, atzerrira joateko aukera izan dut, kultura ezberdinak ezagutzeko, Europa mailako txapelketetan aritzeko… Eskubaloiak aunitz eman dit eta pertsonalki, nire pentsamendua zabaltzea eragin du, lagun aunitz egitea eta batez ere, aunitz disfrutatu dut. Nire une txarrak ere izan ditut, denboraldi txarrak eta onak izaten dira, baina hori ere alde ona dela iruditzen zait. Momentu horiek guztiak gestionatzen ikasten duzu. Eta nik zer eman diodan eskubaloiari? Jokatu duten leku guztietan dena ematen saiatu naiz beti eta jendeak pentsatzen baldin badu kantxara atera naizen guztietan dena eman dudala, kontent joanen naiz. Jokalari batek momentu hobeak eta txarragoak izaten ditu, baina dena ematen saiatu naiz beti, beti hor egon naiz.

**Doneztebetik Iruñera, hiriburuko bi talde handitan aritua, Alemanian ere hiru urte, berriz buelta… Esperientzia ugari. Zein izan da zure ibilbideko momenturik onena? Eta txarrena?**

Kirol arloan, beharbada onena Anaitasunarekin Europara sailkatu ginen urtea izan zen. Urte arras ona izan zen taldearentzat, joko onarekin eta emaitzak ere bikainak eta nik ere, pertsonalki, urte hartan arras ongi jokatu nuen. Txarrena, agian, Alemaniako hirugarren urtea, denboraldi hasieratik gauzak okertzen hasi ziren eta azkenean kategoria galdu genuen. Urte gogorra izan zen, etxetik urrun,

emaitza kaxkarrak, giroa ez zen onena… Hori izan zen urterik txarrena, baina hark ere bere gauza onak izan zituen. Lesio aldetik suerte nahiko ona izan dut. Egia da behin behatzeko tendoia hautsi nuela, ebakuntza egin zidaten eta bi hilabetez gelditu nintzen eta bertze punbalgiaren bat izan dut, haustura ttikiren bat… baina orokorrean ez dut denbora luzerako lesio larririk izan, suerte hori izan dut.

**Gibelera begira, zerbait faltan sumatzen duzu?**

Europan jokatu dut, Niko Mindegiaren kontra jokatzeko aukera ere izan nuen bera Logroñon ari zenean eta ni Anaitasunan. Esperientzia polita izan zen, Logroñon jokatu genuen eta herriko jende pila bat hurbildu zen. Uste dut partida berdindua zegoela eta berak sartu zigula azken gola. Bere kontra aritzea espeziala izan zen, baina Nikoren kontra aritzen zarenean badakizu zer duzun, kalidade izugarria du. Normalean bera izaten da bere taldeko onena, jokalari bikaina da.

**Biak probatuak dituzu eta zer diferentzia sumatu duzu Espainiako Asobal liga eta Alemaniako Bundesligaren artean?**

Alemaniakoa fisikoagoa da, egia da, baina kulturalki ere diferentzia handia bada. Alemanian kirol garrantzitsua eta ezaguna da eskubaloia, beraientzat kasik futbolaren tankerakoa eta partida baino bizpahiru ordu aitzinetik joaten da jendea kiroldegira, beti betea, giro ederra izaten da, jaten eta edaten eta partidaren ondotik ere… Eskubaloi kultura hori hemen ez dugu hainbertze eta Alemanian bai, han bizitzen dute. Eta Asobal ligan, aldiz, aspaldian Barça da jaun eta jabe, ekonomikoki ere alde handia du bertze taldeekin. Europako eta munduko talderik onena da Barça eta hemen ez du areriorik. Alde horretatik ere, konpetibitate gehiago dago Alemanian eta pena da hemen gehixeago ez izatea. Baina, bertze aldetik, Barçaren kontra ari zarenean, badakizu munduko onenen kontra ari zarela.



Errekako eta kuadrillako Ibai Marizkurrena eta Paskual Bertizen eskutik jaso zituzten oroigarriak Meokik eta Txokarrok.

**Gaztetatik "etxetik" kanpo ibili baldin bazara ere, Errekak eta Errekazaleek ere ez zaituzte atzendu, herrian maite zaituztela erakutsi zuten. Zer suposatu du Errekak zuretzat?**

Niretzat harrotasun handia da Errekako harrobikoa izatea eta herrira etortzen naizen aldioro jendeak galdetzen dit 'Zer moduz?', 'Nola doa gauza?', 'Lehengo egunean ongi aritu zinen'… Hori arrontean polita da. Errekaren eta Errekazaleen aldetik beti maitatua sentitu izan naiz. Partiduoro beti Errekako zaleren bat harmailetan ikusi izanak beti ilusio berezia egin dit. Nire ttikitako oroitzapen onak ditut eta profesionaletan ere Doneztebek eta Errekak maitatua sentitu naiz.

## «HEMEN EZ DUGUN ESKUBALOIAREN KULTURA DUTE ALEMANIAN»

**Eta, eskubaloi profesionala utzita, Errekara bueltatzea burutik pasatu zaizu edo zer asmo duzu etorkizunerako?**

Egia erran oraindik ez dut pentsatu eta oraintxe bertan egin nahi dudan lehenengo gauza atseden hartzea da. Denboraldia luzea akitu dugu, bukaera arte borrokan eta burutik eta fisikoki ere nekatua nago eta deskantsatu nahi dut.

**Eskubaloi profesionala aipatu dugu, baina posible izan duzu eskubaloitik soilik bizitzea edo beti bertze lan batekin bateratu behar izan duzu?**

Nik ingeniaritza mekanikoa ikasi nuen eta hori akitu nuenean Alemaniara joatea erabaki nuen. Alde batetik kanpoan jokatu eta esperientzia hori bizitu nahi nuelako, baina bertzalde, baita alemaniera ikasi nahi nuelako, lan arloan hizkuntza hori ikastea garrantzitsua zelako. Alemaniatik etorri nintzenean, 28-29 urterekin, eskubaloia eta lana uztartzea pentsatu nuen. Eskubaloia uzteko momentu hau noizbait iritsiko zela banekien eta ez nuen hutsetik hasi nahi, esperientziarik gabe. Azken bortz urteetan lana eta eskubaloia batera egin ditut. Aitzinetik bai, eskubaloitik bakarrik bizitu nintzen. Kontua da eskubaloia akitzen denean bertze zerbait behar dela.

## «ILUSIOA EGITEN DIT BETI ERREKAKO ZALEREN BAT GRADAN IKUSTEA»

**Bertzerik aipatzeko?**

Bakarrik eskerrak eman omenaldira etorri ziren guztiei, niretzat egun polita izan zen eta seguru aski ezin izan nuen denak banaka-banaka agurtu. Beraz, mila esker denei.



Ekainaren 3an Goizuetan egin zuten Mendialdeko Azoka Ibiltarian hartutako irudia. FELIX LOIARTE

# Lehen sektorea tokiko ekonomiari lotuta

Lehen sektorea indartzeko eta tokiko elikadura sistema bultzatzeko, proiektu andana jarri dituzte martxan azken lau urteotan Mendialdean. Jakitun dira egoera ez dela erraza, baina elkarlanean aurrera segitu nahi dute

**G. PIKABEA** LEITZALDEA

Nekazaritza, abeltzaintza eta artzaintza gainbeheran zihoazela ikusteak piztu zien alarma, eta horri erantzun nahian hasi ziren lanean. Arano, Goizueta, Areso, Leitza, Araitz, Larraun, Lekunberri, Imotz, Basaburua eta Atetzeko udalek elkar hartu eta hitzarmena sinatu zuten Cederna Garalur Elkartearekin. Elikadura dinamizatzaile teknikaria kontratatzea izan zen hurrengo pausoa eta hala hasi ziren Mendialdeko elikadura proiektuarekin.

2019an izan zen hori, eta geroztik lehen sektorea indartzeko eta tokiko elikadura sistema bultzatzeko ate asko ireki dituzte. Lau urteko elkarlana bere fruituak ematen ari da, baina oraindik ere zer egina badela ikusita, lanean segitzen dute.

## Abiapuntua diagnostikoa

Orduko elikadura dinamizatzailea lanean hasita, 2019an, lehen sektorearen hurbilpen bat egiteko diagnostiko parte hartzaile bat egin zuten. Hainbat ondorio atera zituzten: «Lehen sektorea gehienek beste lan baten osagarri dutela; lurraldea bera desberdina dela. Hau da, Goizueta, Arano, Leitza eta Areso menditsuagoak direla, eta arrazoi politikoengatik eta historikoengatik, abeltzaintza eredu estentsiboan gehiago garatu dutela. Aldiz, Larraunen, Basaburuan, Imotzen eta Atetzen paisaia beste bat dela, eta hor intentsiboagoa den abeltzaintza ere garatu dutela; eskualde osoan ardi azienda dela nagusi eta ondoren behi aziendak eta zaldiak; nekazaritza, adibidez baratzezaintza, gehienek etxerako egiten dutela; belaunaldi errelebo txikia dagoela eta zahartutako sektorean gazte gutxi dagoela; gehienbat gizonezkoen sektorea dela...». Halaxe zerrendatu du diagnostikoak azaleratutakoa Amaiur Unzueta gaur egungo elikadura dinamizatzaileak. Urte hartan beste urrats bat ere egin zuten: «Leitza eta Aresoko nekazariekin baserritarren elkarteak eduki beharko lituzkeen irizpideak lantzen hasi ziren».

## Hitzetatik ekintzetara

2020an hasi zen Unzueta dinamizatzaile, eta diagnostikoak utzitako informaziotik abiatuta, hamar udalerrietan prozesu parte hartzaile bat martxan jarri zuen. «Nahiz eta udalerri bakoitzak bere berezitasunak dituen, orokorrean, beharrak antzekoak direla identifikatu genuen, eta garbi gelditu zen ekintzak hala izan behar zutela». Horren emaitzak izan ziren, besteak beste, baserritarren elkartea, azoka ibiltariak eta Mendialdeko Elikadura Mahaia.

## Habelarte

Bi urteko prozesuaren ondotik, 2021ean aurkeztu zuten Habelarte Mendialdeko baserritar agroekologikoen elkartea. Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Basaburua-Imotz-Atezko 28 ekoizle bildu ziren.

## Mendialdeko Azoka Ibiltariak

Azoka ibiltariak, berriz, «salmenta zuzena bultzatzeko eta eskualdeko nekazariak eta artisauak ezagutarazteko eta egiten dutenari balioa emateko» antolatu zituzten. Laugarren denboraldia hasi dute aurten, egutegian ongi finkatu diren seinale: «Pandemia garaian errazagoa zen jendea azoketara hurbiltzea, jendea gehiago gelditzen zen gure herrietan. Gaur egun, gehiago mugitzen da, baina azoketara etortzen dena erostera etortzen da eta hori garrantzitsua da. Ongi funtzionatzen dute».

Herriko eta eskualdeko artisauei eta elikagai ekoizleei ematen diete lehentasuna azoka ibiltarietan, baina eskualdetik kanpokoak ere gonbidatzen dituzte: «Dibertsifikazioa ere nahi dugu, eta gure orografiagatik, klimagatik edota beste arrazoiengatik gure eremuan ekoizten ez diren produktuekin ari direnak ere gonbidatzen ditugu, Nafarroakoak lehenetsiz».

Bederatzi azokek osatuko dute aurtengo denboraldia. Apirilaren 16an Arriben (Araitz) egin zuten, maiatzaren 14an Arruitzen (Larraun), ekainaren 3an Goizuetan eta hemendik aurrerakoak ekainaren 25ean Lekunberrin, uztailaren 2an Latasan (Imotz), uztailaren 30ean Jauntsaratsen (Basaburua), irailaren 10ean Leitzan eta 24an Areson eta urriaren 8an Beuntzan (Atetz) izanen dira.

Aurten, gainera, pauso bat haratago joanez, bestelako

hitzorduekin lotu dituzte azoka ibiltariak, «azokak bultzatzeko, jendea animatzeko». Hala, Arriben egindako azoka ibiltarian Emakume Artzainen Eguna egin zuten, Arruitzen Latxa arrazako ahari genomikoen enkantea, Goizuetan Txondor Eguna... Irailaren 10ean Leitzan eginen duten azoka ibiltariak, adibidez, Talo Egunarekin kointzidituko du.

Bestalde, inguruko merkatariekin eta ostalariekin ere gaia mahai gainean jarri izan dute: «Eskualdeko merkataritza eta ostalariekin saretzen hasteko, eta bertako produktuekiko duten interesa eta harrera jakiteko galdetegi bat egin genuen». Hala ikusi zuten «gutxi batzuek bistaratzen dituztela bertako produktuak, eta prest izanen liratekeela bertako edota eskualdeko produktu gehiago eskaintzeko, baina prezio-kalitatea dela baldintza».



Amaiur Unzueta Zorrozua 2020tik Mendialdeko elikadura dinamizatzailea da. TTIPI-TTAPA

**Mendialdeko Elikadura Mahaia**
Bide beretik, gobernantzaren alorrean neurriak hartzeko, 2021ean Mendialdeko Elikadura Mahaia sortu zuten udalek, Habelartek, Leitzeko Kontsumo Taldeak eta Cederna Garalur elkarteak, besteak beste, Plazaola Turismo Partzuergoarekin eta mankomunitateekin elkarlanean. Mahaiak «tokiko elikadura sistemaren barnean, lurren kudeaketa –herri lurren kudeaketa–, elikagaien ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta promozioa, bide laburreko salmenta, kontsumo ohitura eta sentsibilizazioa...» hartu zituen esku artean eta hala segitzen du gaur egun ere, hilabetero bilduz.

Hain zuzen, elikadura mahaitik sortutako ekintzetako bat formazioak izan dira. Hasteko, «Mendialdean potentziala duten fruta arboletan» jarri dute arreta eta «ekoizpena, eraldaketa eta komertzializazioa lantzen» ari dira: «Kulturalki, gaztainondoak edo sagarrondoak nahiko errotuta daude, baina jendeak tokiko ekonomiarako bitartekoak ere izan daitezkeela ikustea nahi dugu». Hala, joan den urtean sagarrondoei buruzko formazioa egin zuten eta «arrakastatsua» izan omen zen. Aurten, berriz, gaztainondoak dituzte hizpide, eta fruta gorriekin ere hasiak dira. «Beste formazioak eskaeraren araberakoak izaten dira. Berriki artilearen inguruko saio bat izan dugu. Bere garaian irteera ekonomikoa izaten zuen, eta gaur egun hondakintzat hartua da. Berriz bere garrantzia azpimarratu nahi dugu, badira adibideak».

Formazioez gain, *Landa Nafarroa Lotu: Tokiko produktuaren eskaintza eta eskaera* proiektu pilotuan sartu dira Mendialdekoak. Kasu honetan, «ekoizleen eta saltokien logistika sarearen azterketa eginen da». Eta eskualdearen Aktibazio Ekonomikorako Plan Estrategikoan ere elikadura osasungarria eta jasangarria garatzea lehentasuntzat zehaztu dute.

## «BASERRITARRAK BEHAR-BEHARREZKOAK DITUGU»

**Mimukai**
Mimukai garapen zentroa ere ez du ahaztu Unzuetak. «Leitzan dago, baina eskualde mailako proiektua da, tokiko ekonomia eskualdeko ikuspegiarekin garatzeko jaioa». Aurreneko fasean hainbat erabileratarako bulegoak egokitu dituzte eta dinamizatzaile bat kontratatu. Bigarren fasean, elikagaien transformaziorako gunea irekitzekoa zuten, baina «oraingoz, gelditua» omen dago, «baina ez baztertua. Ikusiko dugu zer gertatzen den».

**Sentsibilizazioa**
Gaiaren inguruko kontzientziazioa lantzen ere ari dira Mendialdean, eta besteak beste, haur eskoletara, eskoletara eta institutuetara jo dute. «Gurean dauden ikastetxeetan jangelak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpe daude eta, momentu honetan, ez dugu eskumenik ikastetxeetan zer jan erabakitzeko. Hortaz, sentsibilizazio lana egiten ari gara, Mendialdeko ekoizleak, artisauak eta baliabideak ezagutarazteko. Zehazki, ikasleei bisitak egiteko prest dauden nekazarien eta artisauen berri emanez dokumentu bat prestatu eta zabaldu dugu». Urtero egitekoa dute.

## «TOKIKO EKONOMIA BULTZATZEN SEGITU NAHI DUGU»

**Ekologikoa eta iraunkorra**
Bateko eta besteko ateak joz, «kalitatezko elikagai eta lurraldeari lotutako produktuen ekoizpena eta kontsumoa bultzatu nahian» segitu nahi dute, «nekazaritza iraunkorra eta ekologikoa bultzatuz». Hori baita Unzuetaren ustez bidea: Alde batetik, ekologikoa, «horrek jatekoa osasungarriagoa dela eta ingurumenarekin bateragarria dela bermatzen duelako. Nahiz eta agroindustria nagusitu eta sistemak horretara bideratu, gero eta gehiago dira ekologikoan ari direnak». Eta bestetik, iraunkorra: «Garraioa eta industria $CO_2$aren isurketen erantzule handienetarikoak direlako eta egunerokoan kontsumitzen ditugun elikagaiak edukitzeko egiten dituzten kilometroak gutxitu behar direlako. Gure elikagaien ekoizpena bertaratu behar dugu».

Kontuan hartzeko beste alderdi bat ere aipatu du: «gurean, haragiari dagokionez, noizbehinka jateko diren →

# «Elikadura sistema propioa lortzeko oinarriak finkatu ditugu»

**UNAI MIRANDA BERROETA** GOIZUETAKO ALKATEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendialdeko Elikadura Mahaiko ordezkarietako bat da Unai Miranda Berroeta Goizuetako alkatea. Orain arte egin duten bideaz aritu da Ttipi-Ttaparekin, eta horrekin batera, bere ustez, eskualdearentzat egokiena izanen den elikadura sistema lortzeko, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko elkarlana beharrezkoa da.

**Zer diozu eskualdeko elikadura sistemaren harira?**
Oraingoz, eskualdean ez dugu beste eskualdeetatik bereizitako elikadura sistema jakin bat.

**Zein dira sumatzen dituzun hutsune haundienak?**
Hainbat egoera daude. Alde batetik, eskualdeko ekoizle batzuek kanpoko enpresei saldu izan diete beraien produkzio guztia; beste batzuk erregulatu gabeko merkatu batean funtzionatu izan ohi dute; eta beste batzuen kasuan, nekazaritza edo abeltzaintza lan osagarria izan da. Kontsumitzaileen aldetik, aldiz, salbuespen batzuk kenduta, oro har, ez gara kezkatu kontsumitzen ditugun produktuen jatorriaz eta berau sortzeko prozesuaz.

**Lehen sektorea eta tokiko elikadura sistema indartzeko apustua egin duzue Mendialdean. Nolakoa izaten ari da elkarlana?**
Eskualdeko udal batzuk apustua egin genuen Cederna Garalurren eskutik lehen sektorea dinamizatzeko teknikari bat kontratatzeko. Geroztik ekoizle batzuk bildu dituen Habelarte elkartea sortu da; Mendialdeko Azoka Ibiltariak bultzatu ditugu; eskualdeko elikadura mahaia eratu dugu eragile guztiok egiten dugun lana bideratzeko asmoz, eta Mendialdeako Aktibazio Sozioekonomikoan elikadura osasuntsua sektore estrategikoetako bat da. Esanen nuke eskualdeko elikadura sistema propioa lortzeko beharrezkoak diren oinarriak finkatu ditugula.

**Herritarrek badute kontzientziatzeko beharra?**
Gure ohituretan aldaketa bat suposatzen duten gauza guztietan da beharrezkoa kontzientziazioa. Eta arlo horretan denok aldatu behar dugu, nekazariek, abeltzainek edo artzainek, merkatariek eta ostalariek, eta noski, baita kontsumitzaileok ere.

**Nolako elikadura sistema duzue begiz joa?**
Ahal den neurrian bertakoa, sasoikoa eta ekologikoa den produktua kontsumitzen duen sistema bat izanen litzateke egokia. Dena den, garbi dugu, elikadura sistema bat edo beste aukeratzeko funtsezkoak direla ekoizleak eta kontsumitzaileak, eta beraien eskutik elkarlanean landu beharko dugu eskualdearentzat egokiena izanen den elikadura sistema.

**Zer esanen zenieke herritarrei?**
Gure eskualdean baditugula ekoizleak, beharrezkoa den lurra, eta potentzialitatea elikadura alorrean ere neurri batean burujabeak izateko.

⟶ aratxekia, txerrikia, saltxitxoiak, txorizo ekologikoa eta arkume haragia ekoizten dute; ardi esnea eta horrekin egindako gaztak eta jogurtak, ahuntz gaztak, arrautzak, babarrunak... Argi dago inguruan egunerokoan behar ditugun elikagaietako batzuk ekoizten direla eta oraingoz, Mendialdeko biztanleriaren elikagai gehienak eskualdetik kanpo datozenak direla, bai Nafarroatik, baina baita haratagotik ere». Bere ustez, «elikadura sistemaz hitz egiteak zuzenean gure eskualdeko eskalatik haratago garamatza, eskala globalera, alegia».

**Erronka**

Lehen sektorean duin bizitzea «erronka haundia» dela ere onartu du dinamizatzaileak: «Nola erakarriko duzu jendea askotan esan baldin bada, baita familietan ere, lehen sektorera ez dedikatzeko? Ez duela ematen eta ikasteko esaten bada? Alde batetik, arrazoia izan dezakete, politikak horretara bideratu direlako. Baina bestetik, txipa aldatu behar dugu. Argi dago orain arte bezala ezin dela funtzionatu eta beste ekuazio batzuk bilatu behar direla bideragarri izateko». Bide horretan, «ustiategiak partekatzeko» aukera jarri du mahai gainean: «Orain arte ustiategiak lagun bakarraren esku izan dira. Baina akaso proiektuan bizpahiru lagunek parte har dezaketela pentsatu behar genuke, eta aldi berean beste lanen bat eduki». Horrekin batera, «azpiegiturak alokatzearen aukera ere proposatzen ahal da».

Hortik aparte, «ardura guztiona» dela nabarmendu du; «nekazariena, administrazioarena, saltokiena, kontsumitzaileena...». Eta baserritarren garrantziaz ere aritu da: «Baserritarrak behar ditugu. Luze gabe, asko eta asko erretiratuko dira. Gure paisaiak ez daude horrela besterik gabe, urteetan egin diren lanen edo izan den bizimoduaren ondorio dira».

**«LEHEN SEKTOREAK ORAIN ARTE BEZALA EZIN DU FUNTZIONATU»**

Badaki etorkizuna «ez dela erraza», baina ez daude etsitzeko: «Mendialdean bada borondate politikoa eta nekazarien aldetik borrokatzeko eta lanerako gogoa» sumatzen du. Hortaz, «tokiko ekonomia bultzatzen eta horretarako gure lurraldeak duen potentzialtasunarekin lanean segituko dugu; bai ekoizpen estentsiboa eta ekologia bultzatuz, bai dibertsifikatua den ekonomia bultzatuz, hau da, formazioak eta azokak eginez, bai baliabideak eta sareak aprobetxatuz eta sortuz... Orain arteko lanketa guztia herritarrei eta borondate politikoari esker egin da, eta beraz, oraindik ez dugu galdu».

# «Egiturazko aldaketarik ezean sektorerik gabe gelditzen ahal gara»

**GOTZONE SESTORAIN ZABALETA** LEITZAKO GORRITZ GAZTANDEGIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Nekazari familiakoa da Leitzako Gorritz baserriko Gotzone Sestorain. Artzaintzan eta gaztagintzan dihardu, duela 35 bat urte amak eta anaiak hasitako proiektuan buru-belarri. Amak utzi zuenean hartu zuen erreleboa eta gaur egun, anaia, semea eta hirurak ari dira. Aitortu duenez, lehenbiziko sektoreak «beti zailtasunak» izan ditu, baina «azken urteotan okerrera egin duela» dio. Zerbait egiteko beharraz mintzo da, eta diskurtsoetatik ekintzetara pasatzeko garaia dela aldarrikatu du.

**Nola ikusten duzu eskualdean lehenbiziko sektorea?**

Toki guztietan bezala, bizirauteko zailtasun handiekin eta aurrera ateratzeko lana erruz egin beharrean. Sektorea zahartzen ari da, gazte gutxi, eta gero eta baserri gehiago erreleborik gabe.

**Zein gabezia ikusten dituzu?**

Sektore honek beti zailtasunak izan ditu. Azken urteotan, ordea, okerrera egiten ari da. Zailtasun handiena errentagarritasuna eta bizi baldintza duinak lortzea da. Ekoizpen kostuak ikaragarri igo dira, baina guri ordaintzen dizkiguten prezioak ez dira neurri berean igo, herritarra ere ez dagoelako prest elikagaiengatik gehixeago ordaintzeko. Horrek tarterik gabe uzten gaitu eta biziraueteko dirulaguntzetara jo behar derrigor. Aldi berean, egoera oso injustuak sortzen dira, laguntzen banaketa ez baita justizia sozialeko irizpideetan oinarrituta egiten, kudeatzen duzun hektarea eta azienda buruen arabera baizik. Ondorioz, boteretsuenen eskuetan metatzen ari dira bai lurrak, bai laguntzak. Herri lurretako hektarea banaketak egiterakoan udal gehienetan ere ez da justizia soziala lantzen. Adibidez, ez dute bereizten nekazaritza bizibide duena edo afizioz bigarren lanbidetzat duena. Horrela jende gaztea erakartzea zaila da, atzetik oinarri sendorik ez bada. Hutsetik hasi nahi duenak, berriz, ia ezinezkoa du.

**Zein dira indarguneak?**

Indargune nagusia gure lanbidea herri baten burujabetzarako eta biziraupenerako estrategikoa dela da, herritarrentzat elikagaiak ekoitzi eta lurraldea kudeatzen dugulako. Baina horrela ez balitz bezala tratatua da sarri. Merkatuko logiketatik atera eta osasungintzak eta hezkuntzak duen trataera izan behar luke elikagai ekoizpenak. Elikagai osasuntsua herritarrentzat eskubide unibertsal bihurtuz eta horretan dihardugunon diru sarrera eta baldintzak irakaskuntzakoen eta osasungintzakoen pareko bilakatuz, ikusiko zenuke zenbat jende izanen genukeen nekazari izateko prest.

**Herritarrak kontzientziatzeko beharra sumatzen duzu?**

Herritarrak eta politikariak, guztiak kontzientziatu behar dira. Azken horiek gaiarekiko ezagutza eskasa erakusten dute maiz. Elikaduraren gaia guztion ardura da, ez nekazariona bakarrik. Une koropilotsua bizi dugu, agroindustria eta diru funtsak ari direlako nagusitzen lehen sektorean, bereziki erdialdean eta Erriberan, nekazari ttiki eta ertainen kalterako. Bi eredu horien arteko talka horretan epe luzera egiturazko aldaketak egin ezean, bada arriskua sektorerik gabe gelditzeko, baita hemen ere. Herri bezala erabaki bat hartu beharra daukagu. Nork elikatzea nahi dugu? Gure baserrietako nekazariek edo industriak janari industrialarekin eta elikagai sintetikoekin? Guztiok ohartu behar dugu egoeraren larritasunaz. Argi gorriak aspalditik ari dira pizten. Baina ez da neurriko erabakirik hartzen.

**Inguruan nolako kontsumo ohiturak ikusten dituzu?**

Bada denetarik. Bada kontzientziagatik edo kultura gastronomikoagatik gure elikagaien aldeko apustua egiten duena. Baina bada, eta gero eta gehiago, bereziki gazteen artean, janari industrialera erraz jotzen duena, normalean prezio apalen bila. Kozinatzeko eta jateko ohiturak ere aldatzen ari dira. Esaterako, oilasko eta zerriki industriala erruz jaten da eta bertako axuria oso gutxi eta txekorkia ere gero eta gutxiago. Jateko kontuetan gero eta kontraesan gehiago antzematen ditut; gauza bat esan eta beste bat egin. Eta aldi berean, nahasmen handia, elikagaien industriak nahita sustatutakoa.

**Zein iritzi duzu Mendialdean lehenbiziko sektorea indartzeko eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko egiten ari zareten lanari buruz?**

Gutxienez, balio izaten ari da elikadura katea ertz asko dituen gai sistemiko bat dela ohartzeko, egoeraren larritasunaz kontzientziatzeko eta aldaketa sakonak egiteko aktore askoren inplikazioa behar dela jabetzeko: nekazariak, eraldatzaileak, kontsumitzaileak, komertzioak eta ostalaritza, udalak, gobernuak, eskolak... Mendialdeko elikadura mahaia bezalako tresna bat edukitzeak ikuspegi sistemikoa lantzeko aukera ematen du. Emaitzak, hala ere, ez daude gure esku bakarrik, eskualdea Nafarroa osoan hartzen diren erabakiei lotua dagoelako. Hala, Nafarroa mailan tokiko elikadura sistema iraunkorra lantzeko eta eredu jasangarri batera trantsizioa egiteko ezinbestekoa ikusten dut plan estrategiko bat diseinatzea, politika publiko koherenteak egitea, sektorea egituratzea eta gaia begirada horretatik landuko duen eragile bat edukitzea.

**«GUZTIOK OHARTU BEHAR DUGU EGOERAREN LARRITASUNAZ»**

**Zein mezu luzatuko zenieke herritarrei?**

Jateko kontuekin modu arduratsuan eta aktiboan jokatzeko. Batetik, iraultza etxetik egiten hasiz, janari industriala boikotatu eta Euskal Herrian modu jasangarrian ekoizten diren elikagaien aldeko apustua eginez, nekazarioi prezio justua ordainduz. Bestetik, administrazioak presionatuz, baserri txikietan eta ertainetan oinarritutako tokiko elikadura sistema burujabearen eta jasangarriaren aldeko politika ausartak egin ditzaten behingoagatik, agroindustriari eta azalera handiei mugak eta oztopoak jarriz.

# Asteburuan ospatuko dituzte Altzateko bestak

Ortziralean hasi eta igandera bitarte ospatuko dituzte bestak. Egitauaren barrenean, BTT proba eginen du Gure Txokoak

**A. LARRETXEA**

Ortziralean hasiko dira bestak 20:00etan botako duten txupinazoarekin. Ondotik, goxokiak botako dituzte eta txistulariekin, erraldoiekin eta buru handiekin karrikabuelta eginen dute.

Larunbatean izanen du segida egitarauak Gure Txokoak antolaturiko mendi bizikleta ibilbidearekin. 09:30ean hasiko da eta bi ibilbide izanen dira aukeran, helduentzako 32 kilometrokoa eta haurrentzako 11 kilometrokoa. Ondotik, 10:00etan plater tiraketa saioa eginen dute. 14:00etan zikiro jatea izanen da eta 18:00etan mutxikoak eginen dituzte Toki Onako estalpean. Eguna bukatzeko, 22:00etan suzko zezena izanen da.

Igandean bukatuko dira bestak. 11:00etan meza nagusia izanen da elizan. 12:00etan Gure Txokoa Dantza Taldeak emanaldia eginen du Merkatu plazan. Ondotik, erraldoiek karrikabuelta eginen dute eta bertso poteoa izanen da. 17:00etan haurrentzako *Kijotina handia* kale antzerkia eginen dute, 18:00etan kontzertua eta bukatzeko paella jatea eginen dute.




ARANTZA AGIRRE

## Hilketa matxista salatzeko karrikara

Goldatz talde feministak deituta, Gasteizko hilketa matxista salatzeko kontzentrazioa egin zuten maiatzaren 31n. *Basakeria matxistak hiltzen gaitu. Aski da* lelopean elkartu ziren, eta salatu zuten bi astetan bi emakume erail dituztela Euskal Herrian.

## Babes ofizialeko etxebizitzak esleituak

Urtarrilean hasi zuen Nasuvinsak Kaxernan eraikitako alokairu sozialeko zortzi etxebizitzen esleipen prozesua. Zortzitik bortz daude oraingoz esleituta, eta giltzen banaketa ere egina dute. *Passive house* motakoak dira, energetikoki eraginkorrak.



Kaxernan daude etxebizitzak.

## Eñaut Zubieta eta Beñat Goñi kirol jokoetan txapeldun

Benjamin mailako Nafarroako kirol jokoetako pilota finala irabazi dute Eñaut Zubietak eta Beñat Goñik. Errekako Leiza eta Elizalderen kontra nagusitu ziren. Hiru joko egin zituzten 8 tantora eta bi irabazita txapela lortu zuten.

Zorionak!

















# Energia herrian sortzeko eta kontsumitzeko

Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko lehen urratsak ematen ari dira. Bortz bilera egin dituzte eta martxa onean doa




Clara Rouget eta Argi Agara prozesuan parte hartzen ari dira. TTIPI-TTAPA

**A. LARRETXEA**

Berako Udalak, Goienerrek eta Elhuyarrek sustatuta, Energia Berriztagarrien Komunitate bat sortzeko prozesua martxan duten Beran. Martxoaren 16an hasi zuten bidea, eta bortz bilera ireki egin dituzte dagoeneko.

Bilera informatiboak izan ziren lehenengo biak, eta ondotik egindako hiru bileretan komunitatea sortzeko motibazioak, Beran gauzatu daitezkeen proiektuak eta egitura juridiko posibleak landu dituzte. Uda aitzinetik azkeneko bilera ekainaren 15ean izanen da, 18:00etan Beralandetan.

Herritarrak dira prozesuaren ardatza, eta herritarrak energia berriztagarrien inguruan «ahalduntzean» paratu dute indarra. «Herritarrak ahalduntzen ditugu tokian tokiko energia beharrei erantzuteko, energia kontsumoa murrizteko eta proiektuak garatzeko», azaldu du prozesua dinamizatze lanean ari den Elhuyarreko Idurre Zugasagastik. Azaldu duenez, horrelako proiektuak martxan jartzean ezinbertzekoa izaten da parte hartzaileen arteko konfiantza eta kohesioa lortzea, eta hori da hain zuzen Elhuyarren eginbeharra, «hori ez da egun batetik bestera sortzen eta landu egin behar da epe luzera jasangarria izan dadin». Goiener, aldiz, alderdi teknikoaz arduratzen da.

### Herritarrak bazkide

Lehen bi bilera informatibo egin ondotik, komunitatearen parte izateko interesa dutenak dagoeneko hasiak dira etorkizuneko proiektuak eta komunitateak izanen duen forma garatzen. 30 bat lagun inguru ari dira horretan eta tartean dira Clara Rouget eta Argi Agara. Labiaga Ikastolako gurasoak dira biak, eta ikastolaren bidez jakin zuten prozesuaren berri. Hain zuzen, ikastolan egina zuten hausnarketa energia berriztagarrien inguruan eta horrek bultzatu zituen bileretan parte hartzera, bai ikastolaren izenean, baina baita norbanako gisa ere.

«Energia hitz ikusten dugularik elektrizitatea eta energia fotovoltaikoa daude denen buruetan, baina guk bileratan aunitz aipatu dugu nola gutiago produzitu, nola aurreztu, mugikortasunean autoa nola gutiago baliatu…», azaldu du Rougetek. «Energia nola aurreztu eta kontzientzia nola piztu, hori izan da gehien aipatu duguna». Bileretan herriko eraikin publikoak erabiltzen den biomasaren galdararen inguruan ere mintzatu direla azaldu dute. «Gaur egun biomasa hornitzeko Tafallatik ekartzen da lehengaia, eta hemen sortzeko natura baliabideak nola kudeatu ditzakegun aipatu dugu adibidez».

### Komunikazioa ardatz

Orain arteko bilerek herritarren interesa piztu dute, eta 30 bat lagun daude murgilduak kooperatiba sortzeko prozesuan. Parte hartzaileen artean, ordea, gazteak faltan bota dituzte hiruek. «Denak ados gara gazteak falta direla, baina, baita merkatariak, enpresariak eta landetxeak dituzten herritarrak ere», azaldu du Agarak. Behin kooperatiba sortuta, horiek ere bidelagun izan nahiko lituzkete eta horretarako informazio lan handia egin beharko dutela jakitun da Rouget: «Kooperatibak zer ekarriko lukeen azaltzeko informazio lana egin beharko da eta jendea kontzientziatu behar da», azaldu du.

**EKAINAREN 15EAN EGINEN DUTE UDA AITZINEKO AZKEN BILERA**

Bileretan parte hartze aktiboa duen lan taldea ari da kooperatiba sortzeko prozesuan, baina bazkidetza egiteko orduan, herritar denei irekitako proiektua izanen da: «Gero eta jende gehiago elkartu orduan eta inbertsio txikiagoa egin beharko dugu», gehitu du Agarak. «Gurea sortzeko bidean jada, eta proiektu ttikiekin hasten ahal gara pixkanaka handiagoak garatzeko», nabarmendu du Rougetek.

Ekainaren 15eko bileraren ondotik, udazkenean izanen du segida prozesuak. Zugasagastik aurreratu du ez direla bide motzak izaten eta «herri bakoitzak daukala bere erritmoa bere errealitatera egokituta». Pixkanaka Elhuyarren eta Goienerren partaidetza gutxitzen joanen da, harik eta herritarrek lidergoa hartuko duten arte.









# Bi saski eder zozketatuko ditu erraldoi konpartsak

Erraldoiak ekarri zituztela 75 urte bete direla eta irailaren 9an egin gogo duten besta handia antolatzen laguntzeko

**AITOR AROTZENA**

1948an ekarri zituzten lehen aldiz erraldoiak Lesakara, duela 75 urte. Urteurren horren harira, hainbat ekitalditan parte hartzeaz gain, irailaren 9rako besta eguna antolatzen ari da Lesakako erraldoi eta buruhandien konpartsa.

Oraindik ez dute egitaraua erabat zehaztua, baina egun osoko ospakizuna izanen da. Eguna antolatzen laguntzeko, aitzinetik, herriko komertzio, ostatu eta zerbitzuen laguntzarekin osatutako bi saski eder zozketatuko dituzte sanferminetan, uztailaren 9ko kalejira bukatzerakoan. Hamabortz egunen ondotik irabazlea agertuko ez balitz, berriro zozketatuko litzateke. Zenbaki saritua sare sozialetan zabalduko da. Saskia, Mendegia harategiaren ondoko erakusleihoan dago ikusgai eta txartelak euro batean salgai daude dagoeneko.

Nobeto Mitxelena konpartsa kide beteranoenak aipatu digunez, «gaur egun 13 bat lagunek osatzen dute konpartsa, hamar lagun gaude erraldoiak dantzatzeko, bi gaitero eta atabala». Zenbait urtetan jende guttirekin izan ondotik, beraz, 2018an sortu zenetik honat indartsu eta gogotsu dago konpartsa. Joan den astean bilera egitekoa zuten, irailaren 9ko egitaraua lotzen joateko: «Ideia pila bat dugu eta polita izanen da», diote.

Beti Gazteren egunean, ekipazio berria ere estreinatu zuten kideek, argazkian ageri denez.



Konpartsa Beti Gazte Egunean.



BETI GAZTE

## Jokin Telleria garaile margo lehiaketan

Beasaingo Jokin Telleriak irabazi du X. Elias Garralda margo azkarreko lehiaketa. Iruñeko Felix Flamariquek lortu zuen bigarren saria eta herritarren artean Rakel Arlegi izan zen onena. Ttikietan, Nahia Ordoki Karrera, Olaia Irigoien Ballester eta Irati Berges Txoperena saritu zituzten.



BETI GAZTE

## Ezagutu Dezagun Lesaka saridunak

68 ikaslek parte hartu dute Beti Gazteren lehiaketan. Saridunak: A mailan, Aitor Mutuberria-Enai Iribarren, Olaia Lasa-Iraia Maritxalar eta Libe Irigoien-Eneritz Muñoa; B mailan, Enara Ariztegi, Mikel Garcia eta Urko Telletxea eta C mailan, Amets Lasa, Kemen Garro eta Jare Maia.


caser
residencial

- Adinekoentzako egoitzak
- Egonaldi iraunkorrak
- Egonaldi motzak
- Errehabilitaziorako egonaldiak
- Aisialdi egonaldiak
- Susperraldi egonaldiak
- Osasun arreta (fisioterapia, erizaintza, psikologia, podologia etab.)
- Akonpainamenduak ospitalean

Oporretako egonaldiak

Edozein egoera, iraupen, adin eta lekutan laguntzarako behar duzun arreta.
Eta **Caser Cuidadosekin**, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatuko dizkizugu



Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 – IRUN

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

# «Ezinbertzekoa da haurra herriaren parte dela sentitzea»

**NEREA ORDOKI ETXEPETELEKU** HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Nerea Ordokik eraman du Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuak egiteko udalak eman duen 500 euroko beka, *Haur Hezkuntzako kanpo espazioak ebaluatzeko irizpideak eta horiek birplanteatzeko estrategiak, material natural eta berriztagarrien bitartez* izenburua duen lana aurkezteko. Haur Hezkuntzako gradua egiten ari da eta «kanpoko espazio motak aztertu eta bertan egiten diren jolasak oinarri hartuta, herrigintzatik sortutako/lortutako materialen bitartez kanpo espazioak berreraikitzea» du helburu bere lanak. Aipatu dugunez, «etorkizunean haurren bidelagun izateko desioak eta haurrekiko dudan atxikimenduak bultzatu ninduen lau urtez Haur Hezkuntzako gradua egitera. 0-6 urte bitarteko etapa zaintzatik haratago doala demostratu nahi nuen; pertsona ororen oinarriak etapa honetan finkatzen direla argi utziz eta hauen testigu izanez». Haurren munduan murgildu zen momentutik, Ordoki izan du gehiago «ikertzeko gogoa eta erronka berriei aurre egiteko ilusioa. Haur Hezkuntzako graduak, haurra osotasunean ikusteko aukera eman dit; jaiotzetik dituzte berezko beharrak, edukitzen dituzten jokabideak, harremanak eraikitzeko moduak, jolas motak... aztertzeko bidea irekiz. Gainera esperientzia errealen bitartez, nire hezitzaile profila garatzeko aukera eskaini dit; izan nahi dudan hori definitzen lagunduz».



UTZITAKOA

Bere erranetan, «ezinbertzekoa da, haurra gizartearen parte dela ulertzea, haurra herriaren parte dela sentitzea. Horregatik, heldu izatera iritsi arteko prozesuan ere herriko arlo ezberdinetan parte hartzeko eskubidea daukatela konprenitu behar dugu». Bere ustez bistakoa da «egungo gizartearen azelerazioaren ondorioz, IKTak gero eta presentzia gehiago dutela gure egunerokoan eta horrek zuzen-zuzenean eragiten diela haurrei. Haurrek gero eta denbora gehiago pasatzen dute pantailen aitzinean; isolaturik eta harremanik sortu gabe. Aldaketa behar da. Baina, nondik hasi?».

Kanpo espazioak diseinatzeko orduan gehienetan kirol arlora jotzen dugu, «baina heziketarako lekuak ere badira, jolasteko, harremanak sortzeko, esperientzia berriak bizitzeko. Gehienetan, espazio hauek diseinatzeko helduen beharrak hartzen dira abiapuntutzat». Aldaketa baten beharra dagoela ikusirik eta Haur Hezkuntzako etapan dauden haurrei herrian aske bizi eta ikasteko espazioak eskaintzeko dagoen premia ikusirik, Gradu Amaierako Lanean honi eutsi dio.

# Udako solstizioko besta ekainaren 23rako iragarri dute

Ohiko egitaraua izanen da San Joan bezperan, Lesakako Euskara Batzordeak antolatutako ospakizunean

**A. AROTZENA**

Udako solstizioko besta eginen dute aurten ere, Lesakako Euskara Batzordeak antolatua. Hau idazterakoan omenduak zein izanen diren erabaki gabe badago ere, gutti goiti beheiti ohiko egitaraua izanen dute Plaza Zaharrean: 19:00etan Bortziirietako Bertso Eskolakoak eta Lesakako Trikitilariak ariko dira, kantuan eta musika jotzen. 19:30ean adierazpena eta sua biztea. 20:00etan Ezpatadantzarien entsaioa suaren inguruan. 20:30ean Herri afaria izanen da, norberak eramandakoarekin, eta zozketa mundiala eginen dute. 21:30ean Gabenara taldearekin dantzaldia. Ogitartekoak eta edaria egonen dira, baita taloak ere.

### Hilabete hondarrekoak

Biharamunean, ekainaren 24an, hileroko laugarren larunbateko merkatu ttikia izanen da plaza inguruan, inguruko ekoizleekin. Hilaren 30ean, berriz, Lesakako Musika Bandak kontzertua emanen du, ortziralean 20:00etan Plaza Zaharrean.








FRED RAMOS / VIRGINIA ETXEPARE / YAN JESUS C. GOMES

## Sanferminetako irudiak sarituak

Sanferminetako kartel lehiaketan Fred Ramos Lasagaren *Pausu bat* izan da irabazlea eta programaren azal lehiaketan Virginia Etxepare Triguerosen *Egun berexia* (zortzina lan aurkeztu ziren). Azalaren gibeleko aldearen lehiaketa Yan Jesus C. Gomesek irabazi du, 149 marrazkiren artean.



Gasna lehiaketako saridunak eta epaileak. IRUNE ELIZAGOIEN



Baserriko tresnen erakusketak ere ikusmina piztu zuen. IRUNE ELIZAGOIEN

# XXX. Gasna Feriaren balorazio positiboa egin du Altxatak

Hamaika gasna aurkeztu ziren eskualdeko gasna lehiaketara eta artisauak ere ugari etorri ziren

**IRUNE ELIZAGOIEN**

Jende aunitz bildu zen ekaineko lehen asteburuan Etxalarko Gasna eta Artisau Feriaren XXX. edizioan. Larunbatean hasi ziren ekitaldiak Etxalarko IV. Ardi zakur lehiaketarekin. Txapelduna Roger Jauretxe izan zen *Pop* zakurrarekin. 5 minutu eta 57 segundo behar izan zituen egitekoa burutzeko. Bigarren Marzel Hualde izan zen *Mendi* zakurrarekin eta 7 minutu eta 28 segundo behar izan zituen proba egiteko. Hirugarren postuan Jabier Zubiaurre eta *Mendi* zakurra gelditu ziren 11 minutu eta 17 segundoko denbora eginda eta laugarren Jose Mari Bengoa *Zeu* zakurrarekin. Ondotik, Mardaixa Gorria artisauaren eskutik, Artiletik harira tailerra izan zuten frontoian eta eguna bukatzeko, Juan Mari Beltran laukotea aditzeko aukera izan zuten.

Igandean, gasna eta artisau feriak hartu zuen lekua frontoian. Hainbat postu paratu zituzten eskualdeko artisauek eta Etxalarko trikitilariak ibili ziren giroa alaitzen. 11 gasna aurkeztu ziren lehiaketara. Irabazlea Orabideko Kortariko bordako Julen Arburua izan zen, bigarrena Lesakako Otxuneko Agoitz Altzugarai eta hirugarrena Etxalarko Jorge Arizaleta. Etxalarkoen artean irabazlea Landaburuko bordako Joseba Danboriena izan zen eta bigarren Bittor Iribarren. Epaimahaia Patxiku Irisarrik, Leire Mitxelenak, Bautista Telletxeak, Angel Urtxegik, Ana Lazkanotegik eta Manolo Arozenak osatu zuten. Lehiaketara aurkeztutako gasna erdiak ere zozketatu zituzten. Oraindik 3 zenbaki saridun ez dira agertu: 7483, 7467, 7323. Zenbaki hori dutenek, Altxata elkartearekin jarri beharko dira harremanetan. Eguna bukatzeko, 130 lagun bildu ziren Bankako menditarrek girotutako bazkarian.

**KORTARIKO BORDAKO GASNAK IRABAZI ZUEN LEHIAKETA**

**Dantza ikuskizuna larunbatean**

Aitzinera begira, hirugarren urtez segidan, herriko dantzari, kantari eta musikariek dantza ikuskizuna eskainiko dute. Aurtengoa ekainaren 17an, larunbatean 22:00etan izanen da frontoian.

**Sute Elkartea**

Etxalarko Sute Elkarteak junta berritu du. Asier Maiaren ordez, Antton Iribarren izanen da lehendakaria eta Jaione Irigoien idazkariaren ordez, Laura Elizagoien sartu da. Ekainaren 17an izanen da su itzalgailuen errebisioa Kultur Etxeko arkupean, larunbatean 09:00etatik 11:30era, elkarteko bazkideentzat.

**ARDI ZAKUR LEHIAKETAN ROGER JAURETXEREN 'POP' GARAILE**












## Ekainaren 16an hasi eta 18an bukatuko da Haurraren Eguna

**IRUNE ELIZAGOIEN** ETXALAR
Haurraren eguna ekainaren 16an eskolan hasiko da eta ekainaren 18an bukatuko da frontoian. Ortziralean, aretoan ipuin topaketa eginen dute. Ikasleek sortutako ipuinetatik ikasgelako bat aukeratuko da eta denen aitzinean irakurriko dute. Ondotik, oroigarri gisa, ikasle bakoitzari ipuin bat emanen zaio. Ipuinen kostea Altxata kultur elkarteak eta guraso elkarteak erdi bana ordainduz kudeatuko dute. Beraz, eskolatik bi elkarteei eskerrak eman dizkiete beraien parte hartzeagatik.

## San Juan suaren inguruan hainbat ekitaldi izanen dira ekainaren 23an

**IRUNE ELIZAGOIEN** ETXALAR
Ekainaren 23an San Juan Sua eginen dute Etxalarko plazan. 20:00etan berendu afaria eginen da frontoian, bakoitzak etxetik nahi duena eramanez. 21:00ak aldean herriari itzulia emanen zaio joareak joz eta iluntzean suak piztuko dituzte, musikaz alaiturik. Ondotik sorgin dantza eginen dute suaren inguruan. Ekainaren 20tik aitzinera edukiontzi bat egonen da eskola zaharretan egun honetarako sutarako paperak eta kartoiak biltzeko. Jakinaradi dutenez, betetzen denean ez da gehiago bilduko.



MARTXEL LARRAZA

## Lehen jaunartzeak

Maiatzaren 28an Mikel Zubieta eta Urko Aranburuk Lehen Jaunartzea egin zuten elizan. Eguraldi ederra lagun, familia giroan egun polita eta beraientzat ahaztezina pasa zuten. Herrian ohikoa denez, erlijio ospakizun honetan elizak berak uzten die jantzia jaunartzea egin behar dutenei.



# San Juan eguna prestatzen ari da Baratzondo elkartea

San Juan Xarreko mezaren ondotik eginen den bazkarirako izena emateko epea hilaren 16an bukatuko da

**ANA ETA ITZIAR**

San Juan egunaren harira Baratzondoko Elkarteak urtero egin ohi duen besta antolatzen ari da. Ereiaroaren 24an, goiza San Juan Xarren mezarekin hasi eta ondotik bazkaria eginen dute elkartean 14:00etan. Bazkal ondotik dantzaldia ere izanen dute Joxe Angelen eskutik.

Ereiaroaren 16ra arte izanen dute izena emateko aukera eta bazkide nahiz bazkide ez dena joan ahal izanen da bazkarira. Horretarako Axun Iribarren, Iñaki Goienetxe edo Tere Tabernarekin harremanetan jarri beharko dute.

**Organoaren teklatua**

Elizako organoaren egoera kaxkarra ikusirik herriko kantari taldeak, erretorearekin batera, diru eskaera egin zuen herritarren artean. 2.200 euro behar ziren teklatu berri bat erosteko. Kantari taldeak eskerrak eman nahi ditu, kopuru hori baino gehiago bildu delako eta soberan gelditu den dirua teklatuaren mantenimendurako erabiliko dela jakinarazi du.

## Mus tximista txapelketako azken saioa jokatu dute

Joan den maiatzaren 26an egin zen Biltokin denboraldi honetako mus tximista txapelketako azken saioa. Egoerak hala eskatuta, sariak ere bereziak izan ziren. *Txipi* Telletxea Etxeberria eta Juanjo Irazoki Zozaia lesakarra izan ziren garaile. Zorionak!

## Binakako pilota eta frontenis txapelketak

Pilota eta frontenis txapelketak antolatu ditu Biltokik. Bi-biden, Estankoan eta Biltokin eman behar da izena hilaren 15a baino lehen. Bikoteko 30 euro ordaindu behar da; bazkideei kontutik kobratuko zaie eta bertzeek lehen partidan ordaindu beharko dute.

## Nafarroako Kirol Jokoetan txapeldun

Nafarroako XXXVI. Kirol Jokoetan, esku pilotan, Joana Irazoki Arbués eta Nahia Almandoz Urbistondo herritarrek kanporaketa ederra egin ondotik, finala ere irabazi egin zuten. 18-12 gailendu ziren Iturengo eta Aurtizko nesken kontra. Bejondeizuela bikote!



UTZITAKOA



ANA ETA ITZIAR

## Lau neska-mutikok lehen jaunartzea

Ereiaroaren 4an izan ziren herriko haurren jaunartzeak. Aurtengoan Maddi Irazoki Arbués, Alaitz Portu Telletxea, Aritz Telletxea Tapia eta Markel Telletxea Bengoetxea izan ziren lehen jaunartzea egin eta ospatu zuten neska-mutikoak. Urtero bezala meza ondotik luntxa izan zen Erretorebaitan.






# '10 Watt bakarrik' ikus-entzunezkoa ortzirale honetan

Oier Fuentes zinemagileak Arantzako irratiari buruz egin duen film laburra emanen dute Baskulan

**NEREA ALZURI**

Hamarraldiak joan baldin badira ere, arrastoen gibeletik ibili da azken urteetan Oier Fuentes zinemagile beratarra eta *10 watt bakarrik* proiektua aurkeztu zuen martxoaren 27tik apirilaren 1era Iruñean izandako XVII. Punto de Vista festibalean.

Nafarroan sortu ziren lehenbiziko euskarazko irratietako bat izan zen Arantzakoa. 60ko hamarkadara arte egon zen martxan. Garai hartan herrian apez zen eta orain dela urte batzuk zendu zen Esteban Irigoien berroetarrak martxan paratu zuen eta itxura denez, martxan zeuden hamabortz irratietatik bereak bakarrik iraun zuen.

Orain, berriz, Arantzako Udalaren eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen eskutik, ortzirale honetan, ekainaren 16an, Arantzako irratiari buruzko *10 Watt bakarrik* film laburra ikusgai izanen da Baskulan, 19:00etan.Ondotik, solasaldia izanen da. Lan honen prestaketan lagundu duten herritarren lekukotzak aditzeko modua ere izanen da.



G. PIKABEA

## Pilota topaketa Ezkiokoekin

Maiatzaren 28an, bertze urte batez, herriko pilotari gaztetxoek eta Ezkioko pilota eskolakoek topaketa egin zuten. Gurasoek prestaturiko jokoetan aritu ziren frontoian eta ondotik, hamaiketakoarekin borobildu zuten goiza. Lagunak egin eta aski tarte polita pasatzeko aukera izan zuten.






G. PIKABEA

## Mutxikoak giro ederrean

Maiatzaren 27ko arratsaldean, bigarren urtez, mutxikoak dantzatu zituzten herriko plazan. Bertako eta inguruko hainbat dantzari bildu ziren Jeiki Hadi musikarien doinu eta erranetara mutxikoak dantzatzeko. Eguraldia lagun, arratsalde ederra izan zen.



AMAIA ARANGUREN

## Gaztetxoak Taxoaren

Maiatzeko azkeneko larunbatean, Osasuna Fundazioak antolatutako ikasturte akabailako bestan parte hartu zuten herriko hainbat gaztetxok. Taxoaren izan ziren eta bertze herrietako neska-mutikoekin futbolean ari eta puzgarrietan ibiltzeko aukera izan zuten. Ederki ibili ziren.



## Ekaineko larunbatetan herrigunean auzolana

NEREA ALZURI

Azken asteotan auzolanean ari dira herritarrak, eta egindako lana ederki nabaritzen da bide bazterretan eta inguruetan.

Udalak ere herri kaxkoan auzolanean aritzeko deia egin du. Zehazki, hilabete honetako larunbatetan ariko dira eta interesa duenak aitzinetik herriko etxean izena eman behar du.

18 eta 55 urte bitarte dituzten herritarrek auzolana egin behar dute Arantzan, ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoek izan ezik. Ezta preso daudenek ere. Bakoitzak urtean hamar orduko saioa egin behar du.

## Kattin Madariaga Apaolazaren bertso sorta saritua

Baztan-Bidasoko XXXVI. Bertsopaper lehiaketan Kattin Madariaga Apaolaza gazteak bigarren saria lortu du bere kategorian, *Kakaoa ezpainetan* bertso sortarengatik. Bertzetik, ekainaren 3an, Iurretan egin zen Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketaren finalean ere parte hartu zuen. Zorionak Kattin!



Madariaga eskolartekoan. XDZ

## San Juan bezperan sua piztuko du guraso elkarteak

Ohiturarekin segituz, ekainaren 23an, San Juan bezperako ospakizuna antolatuko du guraso elkarteak parkean. Ilunabarrean, afaltzeko bilduko dira. Beti bezala, afaria norberak eraman beharko du. Afaldu ondotik sua piztuko dute.

## Argi mozketa eginen dute ortzegun honetan

Ortzegunean, ekainaren 15ean, 09:00etatik 12:30era argia moztuko dute herrigunean, Azkilarrea eta Aientsa auzoetan, eta Eguzkialdeko zati batean. Ordu tarte horretan, Bordalarrean eta Eguzkialdeko parte batean (Albiz-Aranibar aldea) bakarrik izanen dute argia.





Ekainaren 4an agerraldia egin zuen Azkua Bizirik taldeak. AZKUA BIZIRIK

# Makropoligono eolikoen kontra Azkua Bizirik

Etxalarren ere makroproiektu eolikoen kontrako taldea sortu dute eta ortzegunetan biltzen direla jakinarazi dute

TTIPI-TTAPA

Etxalarren ere kezka sortu du Madrilgo Zelena Renovable enpresak egin nahi duen poligono eolikoaren proiektuak, eta «Etxalar makroproiektu eolikotik babesteko» Azkua Bizirik taldea sortu dute.

Ekainaren 4ko Gasna eta Artisau Ferian egin zuen taldeak lehenbiziko agerraldia eta mahaia ere paratu zuten; «makropoligonoen eraikitze lanak agertzen dituzten argazkiak ikusgai jarri genituen, hurbildu ziren herritarrei informazioa emateko». Aldi berean, heliozko globo sorta bat aireratu zuten, «makropoligono horietako dorre bakoitzak izaten duen altueran. Ikusgarria izan zen, eta bereziki adierazgarria elizaren parean paratu zenean, dimentsioa irudikatzeko».

Azkua Bizirik taldekoak kontent gelditu dira lehenbiziko agerraldiak izan duen erantzunarekin, eta aldi berean, «udalak aho batez gisa horretako proiektuei urtebetean bederen baimenik ez emateko akordioa onartu duela» nabarmendu dute. Ortzegunetan kulturetxean egiten dituzte bilerak, 18:30ean, eta «nahi duen orok parte hartzen ahal du».




# Udan ere hainbat ikastaro emanen ditu elkarteak

Donezteben luzaketen ikastaroa eta Arantzan yogakoa izanen dituzte udako hilabeteetan

**TTIPI-TTAPA**
Ikasturtea bukatu bada ere, udan jarraipena izanen dute ikasturtean zehar eman dituzten hainbat ikastarok. Donezteben luzaketak egiteko aukera izanen da Ana Tobarrekin eta baita Damiel Fioramanterekin ere. Arantzan, aldiz, Marina Pintosekin yoga ikastaroa eginen dute.

Eskualdeko kiroldegiak irekiak izanen dira, eta beraz, kiroldegiak erabiltzen dituzten bazkideek udan ere bertara joateko aukera izanen dute.

Ikastaroez gain, elkarteak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu ere martxan izanen dira udako hiru hilabeteetan. Juana Telletxea ile apaintzaileak, Ainara Narbarte podologoak eta Jaione Irisarri masajistak zerbitzua eskainiko dute heldu den hilabeteetan ere.

Uda sasoia pasatuta, urrian hasiko dira heldu den ikasturteko ikastaro berriak herriz herri. Horren aitzinetik jakinaraziko dute ekitaldien egutegia eta baita izena emateko epea zein den ere.

## San Migelera joateko izen ematea heldu den astean

830. aldizkarian aipatu bezala, uztailaren 26an Aralarko San Migelera joanen dira elkarteko bazkideak atautxi eta amatxien eguna ospatzera. Irteeran parte hartu nahi dutenek ekainaren 19an, 20an eta 21ean eman beharko dute izena delegatuen bitartez.

## Bazkideak Norvegiarako bidaian

Ikusmin handia piztu zuen elkarteak Norvegiara antolatutako bidaiak. Ateratako leku denak azkar batean bukatu ziren, eta hilabeteak zain egon ondotik, iritsi da bertara joateko eguna. 166 lagun atera ziren ekainaren 1ean eta 2an bertara.



Joxe Angel akordeoilaria giroa berotzen ibili zen. UTZITAKOA

## 230 lagun elkartu dira Dantxarinean kantu zaharrak kantatzeko

**TTIPI-TTAPA**
Maiatzaren 25ean egin zuten Dantxarineko Otxondo jatetxean elkartearen euskal kantuen eguna. 230 lagun elkartu ziren bertan euskal kantu zaharrak biltzen dituen liburuxka eskuan ahots kordak dantzan jartzeko Joxe Anjelen laguntzaz.

Kantuan hasi aitzinetik bazkari ederra dastatu zuten: iberikoak, frijituak, txipiroi eta gulen entsalada, legatza onddo saltsarekin eta patata panaderarekin, entrekota pikillo eta patatekin eta postrerako arrautza-esnea. Edateko ardoa, ura, sagardoa eta cava izan zituzten eta baita kafea eta txupitoa ere.

Musika izan zen egun guziko protagonista. Aurten berezitasun gisa, argazkian ongi ikusten den bezala, Jose Angel akordeoiarekin giroa berotzen ibili zen mahaiz mahai.

Kantuez gain, jendea jo eta ke ibili zen dantzan ondoko diskotekan. Eguna Dantxarinean pasa ondotik, 19:30ean itzuli ziren autobusean norbere etxera neka-neka eginda.

Heldu den urtean gehiago!

## Juliana Arizaletarentzat maiatzeko saria

Aunitz izan dira TTIPI-TTAPArekin batera banatzen zen aldizkaria *Etxetik Plazara* zela erantzun dutenak, eta zozketa eginda Arraiozko Juliana Arizaleta izan da irabazlea. Hurrengo galdera: **Nork irabazi du aurtengo (H)ilbeltza beka?** Erantzunak: 618 56 78 37 zenbakira whatsappez.



BORDALAPALEA
BORDAKO
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK
Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun 943 63 45 36


Lau loteen saridunak, antolatzaileekin batera. AITOR IBARRA

# Bigarren urtez ere bikaina izan da Osasunaren Eguna

Aurtengoan ADANO eta ANADI elkartearen alde izan den elkartasun besta arrakastatsua suertatu da

**MAIDER PETRIRENA**

Osasunaren Eguna bigarren aldiz egin dute eta oraingoan ere arrakastatsua eta ederra izan da. Maiatzaren 27an, goizez, plazatik martxa abiatu zen globo urdinekin eta urre kolorekoekin, musikaz alaiturik, berriz ere plazan akitzeko. Han bertan lehenik ADANOren ordezkariek hitzaldia eskaini zuten eta ondotik ANADIkoen txanda izan zen.

Bitartean, herriko frontoian, alde batean haurrendako koltxonetak eta bertzean, Iciar Mikelperizena margolariaren eskutik, ADANO eta ANADI elkarteen logoen muralak margotu zituzten. Hitzaldien txanda akitu eta eliz-atarian eta ondoko aterpean 240 lagunek bazkari eder batez gozatzeko aukera izan zen. Bazkalondoan haur eta gaztetxo guztiei zenbaki bat banatu eta zozketa andana egin ziren izugarrizko opariak lortuz. Hori akitutakoan, bazkarirako erositako txartelaren zenbakia kontuan hartuz, hainbat eta hainbat zozketa egin zituzten, baita opari haundiak eskuratu ere.

## Ostiz Etxeari omenaldia

Tartean, Carlos Ostiz eta Pilar Olalla, Doneztebeko Ostiz dendako nagusiek, omenaldi ttiki bat jaso zuten Sunbillan. Antolakuntzaren eskutik, *150 urte zurekin eta mila esker* testua bordatua zuen txapela hartu zuten. Hitz politak ere aditu zituzten, inguruko herriendako egin duten eta egingo duten lana eskertuz. Bingoan ere sari ugari eman zituzten eta 30 urte ezkondurik dituzten bikoteen artean tangoa hobekien dantzatu zuenarentzat ere sari ederra eskaini zuten.

Hortik plazara mugitu eta zumba dantzatzeko tartea izan zen, baita taloak dastatzeko ere. Lau loteren zozketa egin zen. Guztira 10.000 txartel saldu dira eta saridunak Murillo el Frutoko Jesus Luis Triviño, Etxarri Aranatzeko Oihana Ganuza eta herriko Amets Inda eta Miguel Angel Latasa. Enkanteak ere egin ziren eta dirutza bildu zen. Chuchin Ibañez eta Jesus Tapizen eta DJ&Jren musikarekin akitu zen egun ederra, goizaldean. Eskerrak anitz denei.






ESKOLAK UTZIA

## Irrisarri, Senda Viva eta Erriberrira

Sunbillako HH 5. urteko gelako bortz neska mutikok Irrisarri Landeko irteeraz ederki gozatu zuten, Malerrekako eskola ttikikoekin batera. Maiatzaren 24an joan eta 25ean buelta egin zuten. Bertzetik, LHko 1., 2., 3. eta 4. mailakoak Senda Vivara eta Erriberriko gaztelura joan ziren.







Eskubaloia izan zen protagonistetako bat ortziralean eta larunbatean. UTZITAKOA

# Giro ederrean ospatu dute Errekaren Eguna

Kirol ekitaldiez gain erraldoi eraberrituak ere aurkeztu zituzten. Hilaren 25ean krosa eginen dute 43. aldiz

**TTIPI-TTAPA**

Erreka elkartearen eguna ospatu zuten ekainaren 3an. Egun osoan ekitaldiak eta omenaldiak izan zituzten. Eguna abiatzeko Malerrekari bira eman zioten txirrindulariek eta eskubaloi eta pilota partidak eta judo erakustaldia egin zituzten. Arratsaldean ere eskubaloia protagonista izan zen eta senior neskak eta mutilak eta jokalari ohiak nahastuta elkarren kontra aritu ziren. Ondotik, erraldoi berrituen aurkezpena egin zuen konpartsak eta dantza taldearen emanaldia ere izan zen.

Eguna borobiltzeko, 275 lagun bildu ziren herri afarian Patxiku eta Felipe Ganboa anaiak omendu zituzten, Errekaren alde egindako lana eskertzeko. Denboraldi honetako Bodega Iñurrieta sariak ere banatu zizkieten Marina Zabalari eta Iñigo Oskozi. Akitzeko gaupasa Trikidantz taldearekin.

**Krosa ekainaren 25ean**

Krosaren 43 edizioa eginen dute aurten. 10:30ean aterako dira haurren lasterketak eta 11:30ean helduenak. Izen ematea www.erreka.org helbidean egin behar da.

## Liburutegian udako ordutegia ekainaren 19an hasita

Ekainaren 19an hasi eta irailaren 15era bitartean udako ordutegia izanen dute herriko liburutegian. Hau da, 09:00etan ireki eta 13:00etan itxiko dute. Ipuin txokoak, poesia tailerrak eta euskarazko eta gaztelaniazko tailerrak ere udazkenean itzuliko dira.

## 'Principe de Viana' aldizkarian herriko armarriari buruz

Maria Isabel Ostolaza Elizondo historialariak Leringo Doneztebeko armarriari buruz egindako ikerketaren inguruko artikulua argitaratu dute *Principe de Viana* kultur aldizkari espezializatuan. Bertan, armarriaren inguruko xehetasunak bildu ditu.

## Doneztebe Futbol Taldearen eguna eginen dute asteburu honetan

**OIER ZULAIKA**

Ortziralean hasiko da asteburua, 17:00etan futbol eskolako haurren partidak izanen dira eta 17:30ean alebinen eta benjaminen artekoak. Larunbatean izanen da egun haundia. 09:30ean hasita futbol partidak izanen dira. 16:30ean hasiko da mus txapelketan izena emateko epea, eta 17:00etan txapelketa. 17:30ean berendua eta zozketak eginen dituzte, eta ondotik erraldoien aurkezpena. 20:00etan triki poteoa izanen dute eta 21:30ean afaria Santa Luzia plazan. Bukatzeko gaupasa Gabenararekin.

## Andrea Mindegia judokak gerriko beltza lortu du



UTZITAKOA

Urteak daramatza Andrea Mindegia judokak Errekako judo atalean entrenatzen. Entrenamenduek izan dute bere saria, berriki judo egokituko Nafarroako Txapelketa irabazi baitzuen txapelketako bi borrokak irabazita eta orain gerriko beltza lortu baitu.

Zorionak Andrea!



OIER ZULAIKA

## Txistulariak karrikabueltan ortziralero

Azken 35 urtetan egin den bezala, sanpedro besten aitzineko lau asteburuetan besta seinalea egiteko txistulariak karrikabueltak egiten ari dira. Miguel Makuso txistulariarekin ikasitako ohitura da eta azken urteetan larunbatetan egin beharrean ortziraletan egiten ari dira.


Herritarrak Mendaurko kaxkoan, Trinitate egunean. AINARA MINDEGIA

# Trinitate egun ederra ospatu dute Mendaurko kaxkoan

Goizeko meza eta urtegiko bazkariaren ondotik, herrian izan zen musika eta giro bikaina

**ARKAITZ MINDEGIA**

Urte guzian izaten du mendizaleen bisita Mendaurko kaxkoak. Halere, Trinitate eguna berezia izaten da beti eta horrela izan da aurtengoa ere. Ohiturak jarraituz, goizean bi meza entzuteko aukera izan zuten baselizan. Eguraldi ederrarekin, herriko nahiz inguruetako jende ugari elkartu zen kaxkoan, baita eguerdian urtegi inguruko bazkarian ere. Ilunabarrean, menditik herrira etorri zen besta giroa, Iturengo plazan Hauspolariekin dantzaldia izan baitzen. Tradizioarekin jarraituz, Iturengo goiko pisuetatik plazarako bidea zortzikoa dantzatzen egin zuten, Jaione eta Izaskun musikarien erritmoan.


Urtegi inguruan bazkaltzen.

Giro bikaina izan dute aurtengoan ere.


UTZITAKOA

## Aurtizko joare soinuak Beasainen

Urte dexente dira Aurtizko joaldunak Beasaingo bestetara joaten direla: Igande goizean, gaupaseroendako juergan segitzeko aitzakia eta lo daudenendako iratzargailua izaten dira. Aurten ere zortzi joaldun gazte joan dira. Larunbat honetan Antiguako bestetara joatekoak ziren.


NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

## Egoitz Gorosterrazu sailkatua

Urriaren 7an hasiko den Nafarroako bertsolari txapelketarako sailkatu da Egoitz Gorosterrazu herritarra, ekainaren 2an Etxaurin jokatu zen kanporaketan beharrezko puntuak lortu ondotik. Iker anaiak eta Alazne Untxalok, aldiz, aurtengo txapelketan ez aritzea erabaki dute.






# Txalaparta tailerra eginen dute ostiralean Ostatuan

Markina-Xemeingo talde baten eskutik, ttikienak ariko dira lehenik eta 15 urtetik aurrerakoak gero

**FERMIN ETXEKOLONEA**
Txalapartaren oinarrizko maila ikasteko txalaparta tailerra eginen dute ekainaren 16an Zubietako Ostatuan. Ostiralean 18:00etan, sei eta hamalau urte arteko neska-mutikoei zuzendutako ikastaroa izanen da eta 19:30ean, 15 urtetik aurrerako nagusiei zuzendutakoa. Izena ostatuan bertan eman behar da ekainaren 12a baino lehen.

Markina-Xemeingo talde bat etortzekoa da asteburu pasa eta beraiek emango dute ikastaroa.



Txalapartaren oinarriak ikasiko dituzte.



ADOS PILOTA

## Naroa Elizalde txapeldunorde

Ados pilota elkartearen Udaberri torneoaren finalera ailegatu zen Naroa Elizalde Etxekolonea herritarra, Bitxiloreak taldearekin. Binakako partida nahiko erraz galdu zuen, Irantzu Etxebeste beratarrarekn batera eta honela, Kukuprakak taldea suertatu da txapeldun.



Pilotari gaztetxoak Labriteko finalen ondotik. UTZITAKOA

## Nafarroako Kirol Jokoetako finaletan txapeldunorde izan dira pilotari ttikiak

**ARKAITZ MINDEGIA** MALERREKA
Ados eta Erreka pilota eskolako herriko pilotariak Nafarroako kirol jokoetako finaletan aritu ziren Labriten ekainako lehen asteburuan. Garazi Iñigo eta Leiane Altzuri Iturengo pilotariek Igantziko Irazoki eta Almandoz izan zituzten aurkari eta Igantzira joan zen txapela. Iñaki Leiza iturendarra eta Enaitz Elizalde zubietarra, Bortzirietako Goñi eta Zubietaren aurka aritu ziren. Partidu gogorra izan zen, baina hemen ere Bortzirietara joan zen txapela. Hala ere, ekainaren 4an Barañaingo txapelarekin bueltatu ziren bi pilotari gazteak.





Herri kirolean aritu zen gazte kuadrilla. JAIONE ARIZTEGI



Bertsolariak musikarekin ere animatu ziren, zergatik ez?

# Udaberriko besta giro ederrean egin dute Urrozen

Ekainaren 3an herritarren arteko herri kirolak, bazkaria bertsolariekin eta bertze hainbat ekitaldi izan zituzten

**JAIONE ARIZTEGI** URROZ

Euri zaparradak azpian harrapatzetik libratu ziren urroztarrak ekaineko lehen asteburuan eta Udaberriko besta umorez ospatu zuten, giro ederrean. Larunbat arratsalderako txarra emana bazuen ere, goizeko eguraldi eguzkitsuak herri bazkaria plazan egitera animatu zituen herritarrak, eta momenturen batean kontrakoa ematen bazuen ere, ez zuen ekaitzik lehertu azkenean. Goizean herritarren arteko herri kirolak izan ziren plazan, eta giro polita sortu zen bazkal aurretik herritarrak elkartzeko aitzakiarekin. Ondotik, Maialen Akizu eta Iker Zubeldia bertsolariekin girotutako herri bazkaria paregabe joan zen eta Beñat akordeoilariaren musikaz gozatzeko aukera ere izan zuten urroztarrek. Bertsolariak ere animatu ziren musika-tresnekin, giro ederra jarriz. Haurrek puzgarriak izan zituzten egun osoan eta mahai-jokoak eta berendua arratsaldean eta, akitzeko, afaria, xingarra eta txistorrarekin, denendako.

Hurrengo irailean ospatuko diren San Miguel besten zain geratu dira.



Plazako herri bazkarian jendetza handia bildu zen, giro bikainean.



Gazteak arpanean. Herri kirol saio ikusgarria eskaini zuten.






# «Gauzak bertan egin daitezkeela erakutsi nahi dugu»

**LEIRE AMOROS ETA IDOIA REKARTE** DONEZTEBEKO MERKATARI ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Doneztebeko merkatariek eta Jostun Eskolak proiektu berri bat abiatu dute: telazko poltsak zozketatuko dituzte bezeroen artean, kontsumo arduratsua bultzatzeko eta kontzientzia zabaltzeko

**TTIPI-TTAPA** DONEZTEBE

2008an sortu zen Doneztebeko Merkatarien eta Zerbitzuen Elkartea, «herrian komertzio eta zerbitzuak bultzatzeko eta babesteko». Gaur egun, 38 negoziok osatzen dute elkartea, eta kanpaina bereziak egiten dituzte jendea bertan erostera animatzeko.

**Zein da aurten abiatu duzuen ekimen berria?**

Aldaketa klimatikoaren kontra poltsak berrerabiltzeko joera dela eta, pentsatu dugu gure komertzioetarako poltsak erosi beharrean bertan ekoiztea. Orain arte poltsak eman ditugu, baina janari dendetarako eta eguneroko erosketentzako, ez modako edo arropa dendentzako. Zerbait berezia egin nahi genuenez, harremanetan jarri ginen Doneztebeko Jostunen Eskolarekin poltsak egiteko, eta prest agertu ziren. Gainera, horrela beraiek ere praktikatzen dute.

**Zer da Doneztebeko Jostunen Eskola?**

Blanca Bañares jostun profesionala izaten da irakaslea, eta berak antolatzen du ikastaroa. Urtero egiten du kurtsoa eskualde osoko jendearekin, eta Maika Mariezkurrena, Maria Larretxea, Milagros Azkarraga, Rosa Agirre, Maria Dolores Arraztoa, Maite Mendibil eta Beatriz Razkin aritu dira proiektuan lanean.



Doneztebeko Jostun Eskolako kideak, Leire Amoros eta Idoia Rekarte. UTZITAKOAK

**Ingurumena zaintzea da zuen helburuetako bat. Nola ikusten duzue egoera Donezteben?**

Plastikozko poltsen erabilera aunitz murriztu da, eta kobratzen direnez, jendea gehiagotan oroitzen da etxetik eramatera, batez ere erosketak egitea planeatuta dutelarik. Aunitz landu dugu gaia, baita Mankouminateak ere, poltsa pila banatu ditugu eta aurrerapen haundia egin dugu. Okerrena hornitzaileetatik datorren zaborra da; gu murrizten saiatzen gara baina ekoizterakoan plastiko pila bat sortzen da.

**Ingurumenari buruzko kontzientziazioaz gain, bertan kontsumitzeko ohitura ere sustatu nahi duzue, ezta?**

Noski. Kanpaina honekin erakutsi nahi duguna da gauzak bertan egin daitezkeela. Guk ere egindako poltsak erosi ahal genituen, kostu murritzagoarekin eta kopuru haundiagoan, baina bertako jendeak egindako produktu baten aldeko apustua egin dugu.

**Zenbat poltsa egin dituzue?**

220 telazko poltsa egin ditugu, Artlepok egin duen serigrafia lanarekin eta gure logoekin. Dena bertakoa.

**Nola banatuko dituzue?**

Poltsak gure bezero guztiei ematea gustatuko litzaiguke, baina ezinezkoa da. Horregatik, ekainaren 12tik 24ra Doneztebeko moda komertzioetan kontsumitzen dutenak zozketan sartuko dira, eta hilaren 26an jakinaraziko ditugu irabazleak. Eta noski, poltsa horiek gero berrerabiltzea eta karriketan ikustea espero dugu.

**Ekimen hauekin jendea bertan erostera animatzen da?**

Bai, jendea hemen erostera animatzen saiatzen gara. Kanpaina eta opari hauekin hemen gaudela erakutsi nahi dugu, komertzio ttikiak ahalegintzen ari garela, eta beharrezkoak garela herriak bizirik mantentzeko.

Herrietako besta zoriontsuak
opa dizkiegu gure bezero guztiei!
Doneztebeko Jostun Eskola
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Aizkora apustua izanen da aurten ere. ARTXIBOKOAK



Gazteen arteko herri kirol desafioa, duela zenbait urteko bestetan.

# San Juan festak ospatuko dituzte ekainaren 23tik 25era

Ostiraleko suziri eta suekin hasi eta igandeko tortilla txapelketa eta su artifizialak arte, ekitaldi ugari izanen dituzte

**TTIPI-TTAPA** SALDIAS

Aurten ere San Juan festak ospatzeko gogotsu daude Saldiasen. Asteburuko hiru egunetara mugatu dituzte ospakizunak, ohi bezala, suziriarekin, zopekin eta San Juan suekin hasiko dituztenak. Larunbatean aizkolariak eta herri bazkaria bertsolariekin izanen dituzte eta igande goizean mus txapelketa eta arratsaldean, haurrendako jokoak, mariatxiak eta tortilla txapelketa. Festak, hasi bezala akituko dira, suarekin. Su artifizialak izanen baitituzte igande arratsean.

**Ekainak 23, ostirala**
**BEZPERA**

20:30ean festei hasiera emateko suziria botako dute. Ohiturazko zopak banatuko dituzte. Musika eta dantzaldia izanen da Modestorekin plazan eta San Juan suak piztuko dituzte.

**Ekainak 24, Larunbata**
**SAN JUAN EGUNA**

11:30ean Meza santua txistulariekin. Ondotik, hamaiketakoa. 12:30ean aizkolarien erakustaldia Joxean Etxeberria eta Suharri Rodriguezen eskutik. 14:00etan herri bazkaria bertsolariekin. Arratsaldez eta gauez, GABENARA taldearekin dantzaldia.

**Ekainak 25, Igandea**

11:00etan Mus txapelketa. 16:30ean Haurren jokoak eta puzgarriak plazan. 19:00etan Tajudos del norte mariatxien musika. 21:00etan tortilla txapelketa. 23:00etan festei amaiera emateko su artifizialak



Lagun arteko giroak ez du hutsik eginen aurten ere.

## ETXEBERRIA ETA SUHARRI ARIKO DIRA AIZKORAN LARUNBATEAN

## TAJUDOS DEL NORTE TALDEAK JOKO DU IGANDEAN






# ARIZKUNGO BESTAK 2023

## Egitaraua



**Ekainak 21, asteazkena**
**17:30ean** txupinazoa, diana eta ezkila-jotzea. **18:00etan** bandera dantza eta txopo goratzea, **ondotik** mutil dantzak. **19:00etan** herri kirol desafioa. **21:30ean** baztan zopak, **ondotik** besta.

**Ekainak 22, ortzeguna**
**10:00etan** argi soinuak herriko txistulariekin. **10:30ean** Enrique's party egun guzirako. **13:30ean** haurren bazkaria. **14:00etan** gazte bazkaria. **16:30ean** bertso poteoa Maddi Ane eta Alaznerekin. **18:30ean** txokolatada. **19:00etan** dantzaldia Hauspolariekin. **21:00etan** mutil dantzak, **ondotik** gaita dantza. **23:00etan** dantzaldia Hauspolariekin. **02:00etan** alkoholinpiadak.

**Ekainak 23, ortziralea**
**10:00etan** argi soinuak herriko txistulariekin. **12:00etan** haurren frontenis finala. **12:30ean** sari banaketa, **ondotik** luntxa. **19:00etan** Arizkun Rock: Andoni Ollokiegi. **19:45ean** ezpata dantza herriko dantzariekin. **Ilunabarrean** San Juan suak, ezkila jotzea, antzerkia, mamurru erretzea eta dantzak. **23:00etan** Arizkun Rock: Ibil bedi, Olaia Inziarte eta Bines katiko.

**Ekainak 24, larunbata**
**Argitzean** udako solstizioko argi soinuak herriko gaitari eta soinulariekin. **10:00etan** argi-soinuak herriko txistulariekin. **11:00etan** meza nagusia. **11:30ean** mus iñeztura. **12:00etan** mutil dantzak, haur dantzariak eta gaita dantza. **14:30ean** zikiroa, **ondotik** 3indarrok elektrotxaranga. **21:00etan** mutil dantzak eta gaita dantza. **00:00etan** dantzaldia Trikidantzekin. **04:00etan** DJ Ventura.

**Ekainak 25, igandea**
**10:00etan** argi soinuak herriko txistulariekin eta Txaruta pilota elkarteko partidak. **16:00etan** katiuska jaurtiketa frontoian. **18:00etan** Los Cazahuetes mariatxiak. **20:00etan** patata tortilla lehiaketa, **ondotik** merienda afaria. **21:00etan** mutil dantzak eta gaita dantza. **00:00etan** txopo botatzea, **ondotik** Gaixoa ni.












BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Tel. 948 453310 • baztandarrascoop@gmail.com
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

BERRO BIDE
FENDT
NEKAZARITZA ETA INDUSTRIA TRESNEN KONPONKETA, ALOKAIRU ETA SALMENTA
Ordoki industrial gunea - 31713 ARIZKUN
Tel. 948 45 33 43 - administracion@berrobide.com

WEB DISEINUA
Enpresa, elkarte eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.
Landetxeak - Komertzioak - Gremioak
Ordenagailu, tablet eta mobiletara egokitua
Testu eta argazki galeriak
Kontaktu formularioa
Lokalizazio-mapa
Hizkuntzak aukeran
ESKATU AURRE KONTUA
KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea
Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

# «Antolakuntza lan karga haundia da eta gure barneek zikloa hesteko beharra sentitzen zuten»

**ALBARO SOULE eta EIDER BIDEGAIN**
**Arizkun Rockeko antolatzaileak**

Arizkun Rock musika jaialdiko antolatzaileak dira Albaro Soule eta Eider Bidegain arizkundarrak. Aurten, festibalaren bederatzigarren edizioa antolatu dute; azkena.



### «Ikasketa prozesu bat»

2015ean egin zuten lehenbiziko edizioa; «oroitzapen arras polita dugu, iaia inongo esperientziarik ez genuen arren. Bizipen ederra» Bi lagunek osatzen zuten hasiera hartan antolakuntza taldea, eta bi bertzerik ez dira gaur egun ere.

Geroztik, «ikasketa prozesu bat izan da guretako. Urtetik urtera gauzak hobetzen saiatu gara, eta horrekin batera emaitzak ere hobetu direla ikusi dugu». Izan ere, «Arizkun Rock izena hedatu eta ezaguna bihurtu dela ohartu gara».

Jaialdi berezia da Arizkun Rock: «alde batetik, doakoa delako, horrela ulertzen baitugu musika eta kultura; doakoa, zabala eta denondako irekia. Bertze aldetik, ahalik eta hoberena eskaintzen saiatzen gara beti Arizkunera hurbiltzen direnei; publikoari, musikariei, langileei… haien lekuan jartzen gara eta guri hartzea gustatuko litzaigukeen tratua ematen saiatzen gara, pertsonak zaintzen.

### Antolakuntzan buru-belarri

Ekainaren 23an izanen da aurtengo edizioa, «eta egia erran arras gogotsu gaude». Antolakuntzak lan haundia du gibeletik, «baina gustura egiten dugu».

Hala ere, «lan talde ttikia garenez, lan karga haunditzen da. Gauzak egiteko mila modu daude, eta guk aukeratu dugun moduan lana haunditzen da. Detaile guztiak zaintzea gustatzen zaigu, adibidez, egunean bertan besta egin beharrean, gonbidatuekin egoten gara edozertan laguntzeko prest». Gainera, «herrian beti badugu jendea laguntzeko prest».

Raietxea
Bar
Restaurante
Panaderia
Arizkun
948 45 34 03
uxoa
EKAINAREN 21ean BAZTAN ZOPAK
aurretik erreserbatu





Finantzazioa lortzeko kamisetak eta *merchandisinga* saltzen dituzte; «azoka aunitzetan egon gara eta normalean ateratako gehiena saltzen dugu. Internet bidez saltzeak ere harrera ona izan du azken urteotan». Baina sarrera debalde duen festibal baterako dirua lortzea ez da erraza; «herriko eta inguruko enpresen laguntzarekin ateratzen dugu aitzinerat. Eskerrak eman nahi dizkiegu laguntzaile guztiei».

Musika taldeak herrira ekartzeak ere bere prozesua dauka: «inguruko pertsonen proposamenak aditzea gustuko dugu, batez ere egun horretan herriko plazan egonen direnek taldeak gustuko izatea. Gure gustu pertsonalak alde batera uzten saiatzen gara, ikuspegi objektiboagoa izateko». Honekin, taldeen eskema osatzen dute, «eta harremanetan jartzen gara haiekin, ea zeinek posible duen eta gurera etorri nahi duen ikusteko».

**«Horrela ulertzen dugu musika eta kultura: doakoa, zabala eta denondako irekia»**

Aurten Andoni Ollokiegi, Ibil bedi, Olaia Inziarte eta Bines katiko artistek joko dute jaialdian. Emaitzarekin gustura gelditu da bikotea; «kartel polita dela uste dugu, bereziki azken edizio baterako».

Bederatzigarrena eta azkena

«Lan karga haundia» da antolakuntza bi lagunendako, «urte aunitz dira eta neke puntu hori hor egon da aspalditik, gero eta nabarmenago. Aspaldixko hasi ginen honen inguruan eztabaidatzen, eta azkenean uztea erabaki dugu. Gure barneek zikloa hesteko beharra sentitzen zuten».

Azaldu dutenez, «norbait prest egonez gero, festibalak segida izanen luke. Baina ez da hori gertatu. Bilera bat egin genuen herrian urte hasmentan hau guztia azaltzeko, eta ez zen inor atera. Egia erran, ez genuen espero segidarik izatea, horregatik naturala izan da bukaera hau».

Etorkizunera begira, «gustura deskantsatzea» da bikotearen asmoa. Hala ere, badute bertze proiektu bat esku artean; «lanean ari gara Arizkun Rockeko dokumental bat egiten, 2024an estreinatuko dena. Aitzinerago emanen ditugu xehetasun gehiago».

Azkenik, «ekainaren 23an Arizkungo plazara etortzera animatzen zaituztegu, azken Arizkun Rockeko edizio honetaz gozatzera!».







INDAUTO TAILERRAK ELITE

Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa

ongi pasa feriak

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es




MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com

**SANTXOTENA**
Eraikuntzak
Ongi pasa bestak!
Erratzu | 608 979 809 | santxotenasl@gmail.com

# ERRATZUKO BESTAK 2023

## Egitaraua

### Ekainak 28, asteazkena

**11:00etatik 14:00etara** puzgarriak. **12:00etan** txupinazoa. **14:00etan** haurren bazkari autogestionatua. **15:30etik 17:30era** puzgarriak. **17:00etan** Izpegiko XIV. igoera, **ondotik** txokolatada. **21:00etan** LGTBIQ+ ikusgarritasunaren aldeko elkarretaratzea plazan. **21:30ean** zopak plazan, **ondotik** dantzaldia Beñatekin.

### Ekainak 29, ortzeguna

**10:00etan** argi soinuak. **12:00etan** herriko dantzari ttipiak plazan, **ondotik** mutil dantzak eta luntxa. **16:00etan** kalejira herriko txistulariekin. **16:30ean** mus txapelketa karpan eta mojitada. **19:30ean** Los Cazahuetes mariatxiak. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan** pintxaldi irekia.



### Ekainak 30, ortziralea

**10:00etan** argi soinuak. **10:30ean** haurrendako jokoen gunea. **12:00etan** poteoa Elektrotxorongorekin. **14:30ean** herri bazkaria Karpinean. **16:30ean** Erratzuko pilotari gaztetxoen partidak. **17:00etan** kalejira Elektrotxorongorekin frontoira. **19:00etan** pilota partidak: emakumezkoetan San Fermin txapelketako final erdia, gizonezkoetan Artola-Eskiroz vs. Larrazabal-Imaz. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **23:00etan** dantzaldia Iparlan Frantxixkorekin. **23:30ean** kontzertuak: Ithaka, Mice eta Ahozakil konekxion.



### Uztailak 1, larunbata

**10:00etan** argi soinuak. **11:00etan** herriko trikitilari, panderojole eta buruhaundiak. **11:30ean** pilota partidak Gorostapolon. **13:00etan** oliba hezur jaurtiketa txapelketa Gorostin. **14:30ean** zikiro jatea Hauspolariek alaiturik. **19:00etan** Balerdi balerdiren kontzertua Zubi Puntan. **21:00etan** mutil dantzak, gaita eta larrain dantza. **22:30ean** dantzaldia Bizphiru pelau taldearekin. **02:00etan** Kalima limon ft. Elmo.

ZUBI PUNTA
ERRATZU

ALTXUKO DENDA
JANARI-DENDA
658 81 73 14 | 948 45 34 71 ERRATZU

ALBANTZENEA
OSTATUA-DENDA
Ongi pasa herriko bestak!
Albantzenea etxea, ERRATZU · Tel: 948 453 112

SERRERIA ALEMAN S.L
Teilaturako estrukturak
Tarimak · KVH
Laminatuak · Egur trinkoa
Tratamenduak
Frantziako errep. 2-A ERRATZU
T. 948 453 173 | serreriaaleman@gmail.com

KASTONEA
LANDETXEA
OSTATU-JATETXEA
Ongi pasa bestak!
31714 ERRATZU
948.453.065 - 656.933.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

BAZTANGOIZA TAILERRA
ongi pasa feriak!!
Auto, furgoneta, 4x4 eta kamioien konponketa, mantentze-lanak, mekanika, elektrizitate eta pneumatikoen salmenta.
2. eskuko kotxeen salmenta.
Ordoki Ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoiza@yahoo.es
www.baztangoizatailerrak.com

Kafetegia GOROSTI Okindegia
T. 948 453 491
Ongi Pasa bestak!
Bestetan egunero irekia 06:00etatik 00:00etara
Bazkariak eta afariak

erran.eus

# DONEZTEBEKO BESTAK 2023

## Egitaraua



### Ekainak 28, asteazkena

**18:30ean** Bezperak elizan Mendi Abesbatzarekin. **20:00etan** txupinazoa, **ondotik** kalejira Doneztebeko txistulariekin eta Elutxa txarangarekin. Herriko elkarte eta ostatuetan zopak. **00:30ean** Bizphiru Pelau taldea Santa Luzia plazan.

### Ekainak 29, ortzeguna

**09:00etan** diana gaiteroekin eta txarangarekin. **11:00etan** meza nagusia, 'Agur Doneztebe, Trapatan eta bandera dantza. Txistulariak, erraldoi eta buruhaundiak eta luntxa udaletxe azpian. **17:00etan** haurrentzako tailerrak Santa Luzia plazan Dindaiaren eskutik. **18:30ean** aizkora apustua Bear Zanan: Iker Vicente, Larrañaga, Txikia eta Mugertza. **20:00etan** Doneztebe kantuz eta dantza Santa Luzia plazan. **22:00etan** Erreka Dantza Taldearen ikuskizuna Bear Zanan. **00:30ean** DJ J&J Santa Luzia plazan.

### Ekainak 30, ortziralea

**09:00etan** diana gaiteroekin eta aurorak. **11:00etan** udal ttikiari ongi etorria eta txupinazoa. **11:30ean** kalejira erraldoiekin eta dantzari ttikien ikuskizuna Bear Zanan, **ondotik** luntxa dantzarientzat. **14:00etan** udal ttiki aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria eta Gazte Burrunbaren bazkaria mozorrotuak (gaia: *far west*). **Ondotik** gazte jokoak. **16:00etatik 19:30era** puzgarriak Bear Zanan, udal ttikiak emanen dio hasiera. **Ondotik** udal ttikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **17:30ean** aurorak eta kuadrillak kalejira eginen dute herrian barna Elutxa txarangarekin. **20:00etan** Kantukolore Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30ean** Alaiki Santa Luzia plazan.






TALLERES ELIZGOYEN
Autoen eta lur orotako ibilgailuen konponketak
Mekanika azkarra
Multimarka diagnosia
Injekzioa
Gasolioa
Direkzioa
Balaztak eta ABS
Elektronika
Aire girotua
IAT aurreko azterketa
Esekidura
Txapa eta pintura
ONGI PASA BESTAK!
MULTIMARKA TAILERRA
Leitzako bidea, 78 – Doneztebe | 948450158
elizgoyen@telefonica.net

SUPERMERCADOS LINK suma
ONGI PASA DONEZTEBEKO BESTETAN!

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
ongi pasa bestak!
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com






HERRITAR ETA BISITARI GUZTIOI, ERRESPETUZ BESTA EGIN!
DONEZTEBEKO UDALA
ERASO SEXISTARIK EZ!






**Uztailak 1, larunbata**

**09:00etan** diana txarangarekin. **11:00etan** Doneztebeko erraldoien konpartsa eta buruhaundiak, Elizondoko erraldoien parte hartzearekin. **12:30ean** bertso saioa Santa Luzia plazan: Miren Amuriza, Eneko Lazkoz eta Uxue Alberdi. **16:00etan** mus txapelketa Santa Luzia plazan Gazte Burrunbaren eskutik. **18:00etan** Hodei magoa eskolako aterpean. **20:00etan** Chuchin Ibañez Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30ean** Fan&Go Santa Luzia plazan.

**Uztailak 2, igandea**

**09:00etan** diana gaiteroekin eta gosaria Intzakardin. **11:00etan** Doneztebeko erraldoien konpartsa. **Goizean** lagunartean bazkaria prestatu musikaz alaiturik (ardoa, sagardoa, ura, ogia eta kafea udalaren kontu). Argitsu elkartearen artisau feria herrian. **14:00etan** herri bazkaria Intzakardin eta kaldereteak. **Ondotik** erreka igoera. **19:00etan** Muxiko Erromeria Santa Luzia plazan, Jeiki Hadi taldearen eskutik. **Ondotik** The Malcolm Young Band (AC/DCren tributu taldea) Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan. **Ondotik** azken kalejira txarangarekin eta Gaixoa Ni.
























Gure dendan aurkitu ditzakezu...

Burdindegia
Esku-erreminta
Erreminta Elektrikoak
Lanerako jantziak
Margoak eta bernizak
Silikonak
Hidrogarbigailuak
Konpresoreak
Lorezaintza
Abeltzaintza
Baratzea

...eta askoz gehiago!




Apezteguia Berria
ferreteria - burdindegia

Leitzako Errepidea - Doneztebe www.apezteguiaberria.com T: 948 450 994 - Fax: 948 450 882

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

AE
ARKITEKTOAK



Bizitza berriak
Zaharberritzeak
Lokalen berrikuntzak
Ostalaritzarako proiektuak
Teilatu berritzeak

Efizientzia Energetikoa
Isolamendurako aholkularitza
Obra ttikien kudeaketa

T. 626 26 19 90
www.apezteguiaelizalde.com

# asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

**www.zergalan.es** | *zergalan@asegi.es*
**www.asegi.com**

Baztanberri plaza, 6 · 31700 **ELIZONDO** · T. 948 581 300 - F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 · 31780 **BERA** · T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22 · 31740 **DONEZTEBE** · T. 948 450 395 - F. 948 451 304
Eltzeta, 20 · 31770 **LESAKA** · T. 948 638 077



ONGI PASA BESTAK



talleres **EDERKI** tailerra

CITROËN

Leitza errepidea 57
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 798 Fax 948 451 623
tallleresederki@soc.redcitroen.com

Latigillo hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK



ONGI PASA BESTAK!

# Clinica Dental
## IRURITA RUBIO
**ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA**

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

**DONEZTEBE**
Rosa Seminario, 19
**948 450 267**

**LEITZA**
Manuel Lasarte, 7
**948 610 713**





Ongi pasa bestak!

- Emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak -

maite.moda · Maite Moda · 948 450 727

Ameztia zeharkarrika, 5 DONEZTEBE



# Miguelena

S U K A L D E A K
K O M U N A K

Etxetresnak | Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak

T. 948 450 925 | M. 677 525 324
Ameztia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE





ONGI PASA BESTAK!





# «Prest gaude bide berri hau hasteko eta gure konpromisoak betetzeko»

## ARANTXA ARREGI ALBERRO
### Doneztebeko alkate berria

«Bi seme alaba eta Elgorriagako senarra duen Oteiza auzoko doneztebarra» da Arantxa Arregi. 23 urtez Malerrekan Bortzirietan eta Bertizaranan garapen agentea izan da, eta Lursarean lurralde garapen iraunkorreko atalaren arduraduna da orain. «Saltsa aunitzetako perrexila» da, «herriarentzat lan egiteko eta jendea aditzeko prest dagoena», eta Doneztebeko alkatea izanen da hurrengo lau urteetan.



Aitortu duenez, «lehenbiziko bileretan alkatetzarako hautagai aurkezteari ezetz erran nion, baina denbora gutti gelditzen zela, Juan Telletxeak, zerrendan bigarrenak, bera nerekin animatuko zela erran zidan. Deiak eta deiak egin ondotik, zortzi lagun elkartu ginen eta aitzinera. Attak beti erraten zuen herritar guztiok udaletxetik pasa beharko genukeela, hor barnean zer lana dagoen jakiteko».

Emaitza onak lortu dituzte hauteskundeetan, zortzi zinegotzi lortuz; «herritar askok, helduak gehienbat, eskerrak eman zizkiguten pausoa emateagatik. Azken momentura arte ezin duzu jakin zer pasatuko den, baina emaitzak ikusita hagitz kontent gaude. Eskerrik asko Doneztebe, gugan konfiantza izateagatik. Prest gaude bide berri hau hasteko eta gure konpromisoak betetzeko».

**Lan haundia egiteko**

Azken agintaldian «lan aunitz eta hagitz ongi» egin dutela dio Arregik, «eta lehen egun hauetan, talde berriari aunitz laguntzen ari dira. Guztion partez eskerrak eman nahi dizkiet».

Hala ere, etorkizunera begiratzeko ordua du; «lan ederra dugu egiteko, eta herri bat izateko hiru arlo landu behar ditugu: etxebizitza, enplegua eta zerbitzuak. Alde zaharra triste xamar dago, etxebizitzak hutsak eta moldatu gabekoak, merkataritza geroz eta guttiago… hortan sakondu behar dugu benetako herri bat izateko, ez lo egiteko herri bat».

Horrez gain, «klima aldaketa hemen dugu eta bizimodua moldatu behar dugu. Horretarako elkarlana beharrezkoa da; geroz eta baliabide guttiago ditugu eta nora goazen eta nolako bideak utzi nahi ditugun pentsatu behar dugu. Emaitzak segidan nahi ditugu eta ezin da. Prozesuan herritarren parte hartzea interesgarria da, elkarrekin eztabaidak sortuz eta etorkizunera begira gauzak adostuz».

Bertzeak bertze, «hor dugu zaharren egoitzako eraikuntza, geldirik, eta irtenbidea eman beharko diogu. Malerrekako udalekin eta Bortziriak, Baztan, Bertizarana eta Xaretakoekin dinamika berriak sortu nahi ditugu. Nafarroako Gobernura joatea ere tokatuko zaigu, ahalik eta laguntza gehien eskatzeko».


CTV
ALBAITARITZA ZENTRO TEKNIKOA
ONGI PASA BESTAK!
Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591 • M. 659 884 374
www.veterinariaostiz.com
ctveterinario@telefonica.net

ELIZAGA MUGIKA SL
conselmu CONSTRUCCIONES


T. 636 815 926 | conselmu@hotmail.com
www.construccioneselizagamugika.es


LOREA
NUTRIZIO ETA DIETETIKA
www.loreanutrizioa.com
@loreanutrizioa
15 URTE ELKARREKIN
Zure ongizatearekin konprometituta
Ongi pasa bestak!
KIMETZ Belardenda
www.kimetzbelardenda.com
@kimetzbelardenda
Leitzako errepidea, 7
31740 Doneztebe
948 451 473
650 779 128

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

EROSKI city
ENKARGUAK HARTZEN DIRA
Ongi pasa bestak!!
T. 948 456 152
Zazpigurutze, 8 - DONEZTEBE

JANARI-DENDA | HARATEGIA | FRUTAK

Hau guztia egiteko, «lehenbizi elkar ongi ezagutu behar dugu taldean; ilusioa bada, eta konpromisoa da gure lehenbiziko hitza. Bigarren, herrikoen beharrak eta nahiak aditu behar ditugu; adineko jendearengana eta gazteengana joan, soluzioak bilatu, enpresekin egon, elkarteak ezagutu… eta pausoz pauso lanean hasi».

### Bestetarako gogotsu

«Gogotsu» bizitzen ditu Arregik Doneztebeko bestak: «egun hagitz politak dira; herriko jendea elkartzea, dantzak, korala, musika, herri bazkaria, Aurorak… giroa, alaitasuna eta hurbiltasuna».

Gaztetatik da bestazalea; «gaupasa aunitz egiten genituen, lagunekin disfrutatu, etxean amak bazkaria prestatzen zigun eta kristoren giroa bageneukan. Bazkaldu ondotik kantatzen hasten ginen, bazkalondoak luzatuz. Dirua ateratzeko ostatu bat jartzen genuen. Eta besten ondotik Larhungo kaxkora joaten nintzen lanera».

Gaur egun, berriz, «San Pedro eguna eta Aurorak ateratzen garen eguna» dira gehien gustatzen zaizkionak. «Goizean kantatu, gosaldu, jokoak egin, bazkaldu eta gero txaranga eta gazteekin elkartu, dantzatu, abestu eta herritik barna buelta ederra eman. Egun zoragarria da, gutti hasi ginen baina gaur egun 30 pertsona baino gehiago elkartzen gara. Kilis San Miguel gure akordeoilariari eskerrak eman nahi dizkiot, bera gabe zaila izanen litzateke ateratzea».

Doneztebeko bestak bereziak direla dio: «Malerreka mailan lehenbiziko bestak dira, eta elkartzeko eta besta egiteko gogo haundia izaten dugu».

ONGI PASA BESTETAN!
Angie
ENGLISH ACADEMY
Cambridge English Exam Preparation Centre
Cambridge English Teacher

8 urtetik aurrera. HAUR - GAZTE - HELDUAK
Hasiera mailatik: A1 - A2 - B1 - B2 - C1 - C2
1991z geroztik Cambridgereko azterketa ofizialak prestatzen ditugu eta hagitz emaitza onekin.
Itzulpenak ere egiten ditugu.
T. 626 908 076 · angiacademy@gmail.com
Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE

sare akademia
DBH ETA BATXILERGOA
- MATEMATIKA
(DBH-n fisika eta kimika aukerarekin)
LEHEN HEZKUNTZA
- ERREFORTZU KLASEAK MATEMATIKETAN
Talde txikitan eta jarraipen pertsonalizatuarekin.
2023-2024ko ikasturterako apuntatzeko epea zabalik.
INFORMAZIO GEHIAGO:
T. 615561458 (Nerea)

MAITE MANGADO
ARKITEKTURA & DISEINUA
Ongi pasa herriko bestak!
T +34 653 035 091
www.maitemangado.com
Doneztebe (Na)

TELLETXEA
MUEBLES | ALTZARIAK

Rosa Seminario, 12
31740 Doneztebe (Nafarroa)
Altzari rustikoak
•
Altzari modernoak
•
Gazteentzako altzariak
•
Koltxoiak
•
Sukaldeak


GASOLIOA ETXERA
eramaten dugu
BIDASOA
GURPILAK - GASOLINDEGIAK
1999. URTETIK
PARTIKULAR ETA GARRAIOLARIENTZAT
ZERBITZU ANITZAK
Ibilgailu guztietarako gurpil eskaintza bereziak
24h-ko asistentziak errepideetan
IAT aurreko zerbitzua dohainik
Gasolindegiak 24h irekita
609 446 693 - 679 204 872
nbidasoa@gmail.com
Eska ezazu BIDASOA txartela erregaian deskontuak izateko
Alkaiaga Industrialdea
Ziobi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
948 625 663 - 636 293 125
Noain-Eskiroz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
948 312 239 - 679 204 872
Ongi pasa bestak!


ZERAMIKA
KOMUNAK
BigMat
Menditxuri
Zure denda!
ETA...
PINTURA
BURDINDEGIA
MAKINAK
ERREMINTAK
ITURGINTZA
ELEKTRIZITATEA
LOREZAINTZA
ISOLAMENDUAK
eta TEILATUAK
TXIMINIAK
eta PELLET
ZERBITZUAK
Leitzako Bidea, 39 · 31740 DONEZTEBE Nafarroa · T. 948 45 03 05 · menditxuri@bigmat.es · www.menditxuri.com

CASA ETXEA OSTIZ
ongi pasa bestak!
ZAPATA-DENDA
ILEGINDEGIA
PAPERTEGIA
Parrokia, 17 Doneztebe • 948450289
www.casaostiz.es

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA
ONGI PASA BESTAK!
24 ORDUKO ZERBITZUA
BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN
BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN
TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN
PRODUKTUEN DENDA SUPERMERKATUKO PREZIOEKIN


Ctra. N-121-A - Km 48,8 • DONEZTEBE
T. 948 450 272 · 948 450 787

# «Ttikitatik ikusi dut bandera dantza eta modu berezian bizi izan dugu beti etxean»

**EDUARDO ALMANDOZ MUTUBERRIA**

**Doneztebeko dantzaria**




Donezteben jaio, bizi eta ohitura zaharrak mantentzea gustuko duen doneztebarra da Eduardo Almandoz. Kirola du zaletasun, «batez ere eskubaloia, pilota, mendi ibilaldiak eta herri kirolak». Lagunekin eta familiarekin planak egitea ere gustuko du, eta noski, herriko bestak.

## 20 urte bandera dantzatzen

San Pedro bestetan parte hartze berezia izaten du Almandozek, izan ere, bandera dantza egiten aritu da azken 20 urteetan. «19 urterekin dantzatu nuen lehen aldiz bandera dantza», eta geroztik, urtero aritu da. Hala ere, aitortu du «bandera dantzaz aparte, ez naiz sekula talde batekin plaza batean dantzetan aritu».

Ttikitatik ikusi izan duen ekitaldia da, «eta etxean modu berezian bizi izan dugu beti, batez ere aitak, bera ere doneztebarra baita jaiotzez. Dantza egiteko aukera sortu zitzaidenean, duda gutti izan nituen baiezkoa emateko, niretzat berezia zelako eta banekielako etxekoei ilusio haundia eginen ziela.

Hala ere, dantzatu aitzinetik entseatu behar da; «dantzatzeko egun berezi horiek hurbildu bezala, urtero elkartzen gara musikariak, Trapatan dantzariak eta ni, eta beti egiten dugu entseguren bat».

Bi hamarkadatan dantzatzen aritzea ez da lan makala, eta honi aitortza



Mendaur Motor
Leitza errepidea, 47 - Tel.: 948 45 03 33

egiteko, omenaldia egin zion joan den urtean Doneztebeko Udalak. «Sorpresa haundia izan zen, arrunt polita eta eskertzekoa. Tarte hau baliatu nahiko nuke udalari eskerrak emateko eta nola ez, Juan nire lagun minari, momentu hura hain berezia egiteagatik!».

Aurten 21. aldiz dantzatuko du bandera, baina etorkizunera begira, «gazteren batek probatzeko gogoa duela eta dantzatzeak ilusioa eginen liokeela erratea gustatuko litzaidake. Ez ni aspertu naizelako, bandera herritar guztiena delako baizik. Aste hauetan entseatuko dugu eta probatu nahi duenak, badaki».

> **«Doneztebeko bestek beti biltzen dute jendea eta giro arrunt polita izaten da»**



**Besta egiteko garaia**

Dantzatzeaz gain, disfrutatzeko egunak direla argi du Almandozek; «arrunt bestazalea naiz gaztetatik eta aurten ere aurkituko dugu horretarako tarteren bat. Bakoitzarentzat bere herriko bestak dira berezienak, eta Doneztebek beti biltzen du jendea. Giro arrunt polita izaten da».

Ttikitatik ditu gustuko herriko bestak; «txupinazoa eta ondotik txaranga eta txistulariekin egindako herri bueltako saltsa» ditu gogoan bereziki. Gaur egun, berriz, «San Pedro egunean meza ondotik izaten den eliz atariko giroa» da gehien gustatzen zaiona, «arrunt polita eta berezia izaten da».

Azkenik, «ongi pasa bestak doneztebar guztiei eta herrira hurbiltzen direnei! Gora San Pedro!».


CS SALDIAS
HARATEGIA
Deitu edo bidali whatsappa eskaerak egiteko eta bildu erosketak atean bertan, aparkatu beharrik gabe.
948 450 191
Karrika Nagusia, 19 • DONEZTEBE



ETORRI ZURE DENDA ESPEZIALISTARA
BANATZAILEA
José Luis San Miguel
DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711
www.joseluisanmiguel.com

zrb.net informatika
ONGI PASA BESTAK!
Merkatarien kalea, 29
31740 DONEZTEBE
T. 948 451 752
M. 609 418 097
info@zarbo.net
www.zarbo.net

MIKEL MUTUBERRIA zurgindegia
Zurgin lanak orokorrean
Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es
ongi pasa bestak!

elli
Language school
Ongi pasa bestak!
Leitzako bidea, 90 Eguzki Eder - T. 615 70 68 02
eliarrietaeskola@gmail.com

Arozena
ostatu · jatetxea
Gosariak
bazkariak
eta afariak
ongi pasa bestak!
T. 948 450 443 - Leitzako errep., 84 - DONEZTEBE

Ongi pasa bestak!
MARTA
ILEAPAINDEGIA
Marta eta Maria
Merkatarien karrika N°24
Doneztebe
T: 948450751
620300141

13
PARROQUIA 13
JAMARI-DENDA BEREZIA
KAUTATEZKO ELIKADURAN ESPEZIALIZATUTAKO DENDA
OBJEKTU BITXIAK
@parroquia13 | @beltzaexperience
685 622 802

Doneztebe autoeskola
BESTA ONAK PASA!
Leitzako errepidea 2 behea DONEZTEBE
doneztebeautoeskola@gmail.com




# Inoiz baino gehiago **bertako aukerak** eta **zerbitzuak, 0 KM-koak**



**JOANES GARCIA BASURKO**
SARAN ASTIA - SARA

## «Herriko historia eta ondarea ezagutzeko parada ematen du Saran astia jokoak»

«Sarako historia eta ondarea ezagutzeko parada ematen duen jokoa» da Saran astia. Olhain ikastolako gurasoek abiatu zuten ekimena duela hilabete pasa, eta «Sara manera ludikoan ezagutzeko aukera aski polita da». Bi ordu eta erdiko ibilaldia da eta euskaraz egin dituzte jokoak, baina gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera ere itzuli dituzte; «gure asmoa bertako jendearentzako izatea zen, baina turistek herria ezagutzeko modua ere bada». Familian zein lagunartean parte hartzen ahal da. Jokoa salgai dago Herriko Etxean 10eurotan«eta bukatzen dutenentzako opari ttiki bat badago». Iparraldean «zaila da euskarazko jokoak atzematea, eta euskarari bere lekua eman nahi diogu».





**XABI TORRES LETONA**
BAZTANGO UDALA

## «Turismoak ondorio onak ditu, baina baita zuzendu beharrekoak ere»

Interesgune turistiko haundia da Baztan, «eta horrek eragina du bailaran. Turisten bisitak leku zehatzetan kontzentratzen dira, ibilgailuen pilaketekin, eta bizikidetza arazoak sortzen dira. Horretarako, gure herrien fisionomia egokitu behar dugu, aparkalekuak eginez, adibidez. Turismoak ondorio onak ditu, baina baita zuzendu beharreko batzuk ere». Horrez gain, «ostatu forma berriak ikusten ditugu geroz eta gehiago, apartamentu turistikoak adibidez, lehian sartzen direnak bizitzeko diren etxeekin». Baztanek 45.000-60.000 bisitari inguru izaten ditu urtero; «interes turistikoa ez da egun batetik bertzera galduko, ederra baita gure ingurua. Turismoak joera ona du eta alde horretatik ez dugu arazorik izanen».





**ESTHER BURLADA AROTZENA**
BURLADA JATETXEA - ARANTZA

## «Pandemiaz geroztik jendeak kanpoan egon nahi izaten duenez terraza berritu dugu»

Familia jatetxea da Burlada, «1966an ireki zuen aitak, eta amak ere hemen lan egin izan du. Ni duela 40 bat urte hasi nintzen eta orain semearekin eta alabarekin eramaten dut». Bokatak, plater konbinatuak, pizzak, menuak, karta, mendizaleendako menuak, eramateko janaria… eskaintza zabala dute. «Ahate entsalada, bildotsa eta azpizuna foierekin dira etxeko espezialitatea». Otorduak ez ezik, bestak ere egiten dituzte jatetxean; «ekainaren 17an kubata besta antolatuko dugu eta adituak ekarriko ditugu edariak egiteko». Azken berrikuntza terraza berritzea izan da, maiatzean irekia: «pandemiaz geroztik jendeak kanpoan egon nahi izaten du egon, zakurrarekin egoteko, erretzeko…».





**GOIO HUALDE ARRIADA**
IKABURU KOBAZULOA - URDAZUBI

## «Bisitak egiteko inportantea da aitzinetik erreserba egitea»

Goio Hualdek azaldu duenez, «ohiturak aldatu dira, eta gaur egun leku aunitz fite ikusi nahi ditugu, ailegatu eta sartu, zain egon gabe. Horregatik da hain inportantea lezeetara etorri aitzinetik erreserba egitea, bisitak nahi diren orduan eta hizkuntzan egiteko. Interneten *cuevasurdax.com* atarian hartzen ahal dira sarrerak». Bisitari aunitz izaten dituzte garai honetan, «ekainean bertako jendea etortzen da gehienbat; eskolak, jubilatuak… eta uztailean kanpotar gehiago etortzen dira». Bisitez gain, denda ere badute, «oroigarriak, liburuak eta bertako produktuak saltzen ditugu: Urdazubiko gasna, Baztango marmelada, eztia, ardo xuria eta pomadak… hemen egindako produktuak».



# Festak denen artean antolatzeko deia egin du udalak

Lanak banatzeko bilerak egiten hasiak dira eta datozen asteetan gehiago antolatzeko asmoa dute

**ENERITZ IRAOLA**

Egungo udal taldeak beste urte erdi batez segi beharko du jardunean eta hori dela eta, abuztuan izango diren herriko festei begira herritarrei elkarlana eta laguntza eskatu diete: «egun horietan lan dezente egitea tokatzen da eta denok dugu festa gustuko. Horregatik, lanak denon artean banatu eta denok jai giroan egoteko aukera izan dezagun nahi dugu».

Lan horiek banatzen hasteko maiatzaren 31n egin zuten aurreneko deialdia festa batzordeko bilera baliatuz. Datozen asteetan bilera gehiago antolatzeko asmoa dutela jakinarazi dute eta parte hartzeko eskatu dute.



Iazko txupinazoa. ENERITZ IRAOLA



Pasa den urtean haurrak surako materiala biltzen. JAIONE OLAZABAL

## San Juan bezperan jolasak, merienda eta herri afaria

**E. IRAOLA**

Urteko gaurik berezienean suaren bueltan bilduko dira aurten ere herritarrak. Arratsaldean hasiko dituzte ospakizunak, haurrentzako jolasak eta merienda antolatu baititu guraso elkarteak. Ondoren, herri afaria izango da; jatekoa norberak eraman beharko du eta udalak mahaiak eta edaria jarriko ditu. Afalondoan suak piztuko dituzte. Pasa den urtean bezalaxe, sua osatzeko material bilketa etxez etxe egiteko asmoa du guraso elkarteak. Horretarako hitzordua egingo dute datorren astean eta herritarrei kartoiak, egurrezko kaxak, zakuak… gordetzeko eskatu nahi izan diete.

### Lapurreta izan da herrian eta erne ibiltzeko abisua

Hilabete hasieran lapurreta izan da herriko etxebizitza batean. Eguerdian gertatu zen eta herritarrei erne ibiltzeko eskatu diete. Aldi berean, kotxe edo jokaera susmagarriren bat duen inor ikusiz gero, abisua emateko eskatu dute.

### Irristaketa ikastaroan izena emateko azken aukera

Iragarri bezala, ekainaren 20an, asteartea, 17:00etatik 18:00etara izango da Kirol Mankomunitateak antolatutako irristaketa ikastaroa. Parte hartu nahi dutenek aurretik apuntatu beharko dute; ekainaren 13an bukatuko da izena emateko epea.

### Sanpedroak antolatzen hasiak dira Lagunartekoak

Lagunartekoek jakinarazi dute ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean ospatuko dituztela aurten Sanpedroak. Larunbatean afaria izango da Pake Toki elkartean eta txartelak datozen egunetan jarriko dituzte salgai. Egitarauaren berri datorren aldizkarian izango duzue.

### Hirigintza planari lotutako parte hartze prozesua

Hirigintza plana dela eta parte hartze prozesua izango da aste honetan (hau idazterakoan data zehaztu gabe dago). Garrantzitsua izango da herritarrak bertan izatea erabakitzen diren gauzak eragin zuzena izan dezaketelako herritar askoren interesetan.






Iaz 140 ume bildu ziren ingurutxoa dantzatzeko eta 600-700 bat lagun afarian.

# San Juan bezpera ohi bezala pesta giroan

Arratsaldean umeen ingurutxoa izanen da, gauean herri afaria, eta gauerdian suak piztuko dituzte

**TTIPI-TTAPA**
Egun berezia izaten da San Juan bezpera, umeak, gazteak eta helduak biltzen dituen hitzordua. Eta aurten ere pesta giroan ospatzeko egitaraua prestatu dute Aurrera elkarteak eta udalak elkarlanean.

Arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. Hasteko, 18:30ean, umeek ingurutxoa dantzatuko dute plazan, eta ondoren, txistor opilak eta freskagarriak banatuko dituzte.

21:30ean mahaiaren bueltan bilduko dira eta herri afaria eginen dute plazan. Eguna borobiltzeko, gauerdian suak piztuko dituzte, horiek ere plazan.

## Areto futboleko Alebin B taldearen aldeko zozketa

**TTIPI-TTAPA**
Aurrera Kirol Elkarteko Areto Futboleko Alebin B taldeak Valladolideko Pedrajas de San Esteban herrian jokatuko den torneoan parte hartu nahi du eta gastuei aurre egiteko zozketa antolatu du. Txartelak euro batean Maimurren salgai jarri dituzte eta ekainaren 26an erabakiko da zein den saritua: ONCEko eguneroko kupoiaren zozketako azken hiru zenbakiekin bat egiten duen txartela izanen da sariduna. Irabazleak kirol dendan gastatzeko 100 euroko erosketa txartela eta urdaiazpikoa jasoko ditu.



AITZIBER ALDUNTZIN

## Dantzari gaztetxoen saioa

Ikasturte osoan eskolatik kanpo dantzak ikasten ibili diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako dantzariek emanaldi ederra egin zuten ekainaren 2an herriko plazan. Txukun asko erakutsi zuten azken hilabeteotan egindako lana jendaurrean.

## Larunbat honetan hasiko da igerilekuko denboraldia

**TTIPI-TTAPA**
Larunbat honetan, ekainaren 17an, zabalduko dituzte igerilekuko ateak eta irailaren 10era arte udako giroaz uretan gozatzeko aukera izanen da. Tarte horretan, 11:00etatik 20:00etara irekiko dute; San Tiburtzio Egunean, ordea, abuztuaren 11n, 11:00etatik 18:00etara izanen da irekia.

Ohi bezala, haurrentzako, gaztetxoentzako eta helduentzako igeriketa ikastaroak prestatu dituzte eta izena emateko epea ekainaren 24an bukatuko da. Igerilekuko abonuak, berriz, kiroldegian edo *www.leitza.reservas24h.es* atarian eska daitezke.

Gainerakoan, kiroldegian eta frontoian ere udako ordutegiarekin hasiko dira laster: uztailean eta abuztuan, lanegunetan eta larunbatetan 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara zabalduko dute eta igandetan eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara. Abuztuaren 10etik 27ra itxita izanen dira.

Bestalde, kiroldegiko berriak Whatsappez jaso nahi dituenak 623 26 65 82ra mezua bidal dezake *Alta* idatziz.



JON ABRIL

## Institutukoak Elhuyar Zientzia Azokan

Ekainaren 2tik 4ra Elhuyar Zientzia Azoka egin zuten Bilbon eta aurreneko egunean hantxe izan ziren Amazabal institutuko ikasleak. Euskal Herriko 60 ikastetxetako beste 700 gazterekin batera, Amazabalgo bost taldek parte hartu dute zientzia azokan.

# Atekabeltzeko film labur txapelketa martxan da

Aurtengoa hamaikagarren edizioa izanen da eta lanak uztailaren 26ra bitarte bilduko dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Urteak joan eta urteak etorri bere ibilbidea egiten ari da Atekabeltz Gazte Asanbladak antolatutako film labur txapelketa. Aurten hamaikagarren edizioa beteko du eta lanak aurkezteko epea jakinarazi dute antolatzaileek: uztailaren 26a baino lehen aurkeztuko beharko dira.

### Pestak

Aurtengo film laburren gaia *pestak* izanen direla adierazi dute gaztetxekoek. Gainerakoan, gehienez hamar minutuko lanak onartuko dituzte eta uztailaren 26rako *atekabeltz@gmail.com* helbidera bidali beharko dira. Bi egun beranduago, uztailaren 28an, 22:30ean, jendaurrean pantailaratuko dituzte.

### Orain arteko lanak sarean

Hasiera-hasieratik txapelketara aurkeztu diren lan guztiak ez daude sarean eskuragarri, bai, ordea, azken edizioetako film laburrak. Youtubeko bere kanalean zintzilikatuak dituzte Atekabeltz gaztetxeko kideek nahi duenak ikusteko moduan.

## Eki Mateorena eskolartekoan txapeldunorde

Nafarroako Eskolartekoan txapeldunorde gelditutа, Euskal Herriko Eskolartekora sailkatu zen Eki Mateorena Zozaia herriko bertsolari gaztea. Eta han ere bikain moldatu zen. Ekainaren 3an jokatu zuten finala Iurretan (Bizkaia) eta txapeldunorde gelditu zen. Zorionak!



Mateorena eskolartekoan. XDZ

## Larunbat eguerdian udalbatza osatzeko hitzordua

Agintaldia bukatzear dute azken lau urteotan udal ordezkari izan direnek. Izan ere, larunbat honetan, ekainaren 17an, osatuko dute udalbatza berria. 12:00etan egina dute hitzordua. Dabid Anaut Peñak orduan hartuko du azken zortzi urteotan Mikel Zabaleta Aramendiaren eskuetan egon den alkatearen aginte makila. Anautekin batera EH Bilduko Maider Amantegi Urdalleta, Xabier Gartzia Azpirotz, Itxaro Zabaleta Telleria, Bittorio Lizarraga Lazkano, Aintzane Arraiza Begiristain, Iñaki Zabalo Betelu, Xabat Illarregi Marzol eta Mikel Zabaleta Aramendiak eta UPNko Silvestre Zubitur Goñik eta Fermin Azpirotz Martinikorenak hartuko dituzte datozen lau urteetarako zinegotzi karguak. Mikel Zabaleta Nafarroako parlamentaria ere izanen da da legealdi honetan.



Ekainaren 1ean intsektuen hotelak egiten ikasteko aukera izan zuten. ELENA ARTETA

## Tailerrak eta solasaldiak liburutegian udako ordutegiarekin hasi aurretik

**TTIPI-TTAPA**

Idazleen bisitak, tailerrak... Bateko eta besteko hitzorduak antolatuz, aspertzeko astirik gabe dabiltza liburutegiko erabiltzaileak.

Maiatzaren 30ean, esaterako, Bi ahotsetara literatur topaketaren barrenean, Ventura Ruiz eta Aitor Iragi idazleekin solasaldia egin zuten. Ekainaren 1ean, berriz, intsektuei buruzko hainbat jakingarri ikasteko aukera izan zuten liburutegira hurbildu zirenek. Ez hori bakarrik, intsektuentzako hotelak osatzen ere aritu ziren.

Ekainaren 7an, berriz, Euskara Zerbitzuaren bitartez, Amaia Apalauza idazlearekin solasaldi irekia egitekoa zuten; Olga Tokarczuken *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* liburuaren itzultzailearekin, hain zuzen.

### Udako ordutegia

Uda ate joka den honetan, aste honetan udako ordutegiarekin hasiko dira liburutegian. Elena Arteta liburuzainak TTIPI-TTAPAri kontatu dionez, ekainaren 15etik irailaren 14ra goizez irekiko dute: 08:30etik 14:30era.

## Sendabelarrei eta horien zikloei buruzko tailerra ostegunean

**TTIPI-TTAPA**

*Sendabelarrak eta zikloak: menarkiatik menopausiara.* Horixe da Garbiñe Larrea Iturraldek ostegun honetan, ekainaren 15ean, emanen duen tailerraren izenburua. Berdintasun Zerbitzuak gonbidatuta, Atekabeltz Herrigunera hurbilduko da *Sendabelarrek dakitena* liburuaren egilea. 17:00etatik 19:00etara atal teorikoa eta ukendua egiteko atal praktikoa gidatuko ditu.

Parte hartzeko aurretik izena eman behar zen eta horretarako epea ekainaren 9an bukatu zen.



# Joseba Sarrionandia ostiral honetan bisitan

Kultur Taldeak gonbidatuta, Joseba Sarrionandia idazleak hitzaldia emanen du

**TTIPI-TTAPA**
Ez dira egunero izaten halako gonbidatuak, baina ostiral honetan bai. Kultur Taldearen ekimenez, izen haundiko idazlea etorriko da Goizuetara bisitan: Joseba Sarrionandia Uribelarrea idazle iurretarra, hainbat narrazio eta olerki liburuen egilea. 1985ean Martuteneko espetxetik ihes egin eta 41 urtez erbestean egon zen Sarrionandia. Duela urte pare bat Euskal Herrira itzuli zen eta geroztik hainbat hitzaldi eman ditu. Ostiralean, udaletxeko ganbaran, *Egoerak eta liburuak* hitzaldia emanen du, 18:30ean.



Txondorgileen Taldean izan duten giro ona nabarmendu du Goiak. FELIX LOIARTE

## Txondorra piztuta, hura zaintzeko egunak izan dira

**TTIPI-TTAPA**
«Zerbait berezia eta polita egin nahi genuen, eta dena arrunt ongi atera zen. Herritarrak oso gustura gelditu ziren, eta gu pozik». Hitz horiexek erabili zituen Txondorgileen Taldeko Fernando Goiak ekainaren 3ko I. Txondor Egunaz galdetuta.

Ekitaldi berezia egin zuten, irritzi eta txalaparta doinuekin hasita, agerian utzi zuten Goizuetak txondorrarekin izan duen lotura. Azalpenak antzerkiarekin uztartuz eman zituzten, 20-25 laguneko taldea trontzan, aizkoran, egurra pilatzen edota txondorra muntatzen ari zela.

Goiak kontatu duenez, «2011n beste txondor bat egin genuen, eta orduan ibili ginenok hitz eman genuen hurrengoa Iñigo Elizegi –orduan preso zegoen– herrira etortzean piztuko zela». Eta hala izan zen, Elizegi izan zen txondorra piztu zuena. Ane Taberna garai bateko ikazkinen bizimoduaz eta Zahagi Dantzaren jatorriaz ere aritu zen haurrekin, eta Zahagi Dantzarekin borobildu zuten.

Geroztik, zaintzen aritu dira, txandaka. Eta etorkizunera begira, Goiak zera argitu du: «Noiz ez dakigu, baina berriz txondorra eginen dugu; hori seguru».

## Larunbat goizean osatuko dute udalbatza berria

Larunbat honetan osatuko dituzte udalak. Goizuetako kasuan, 10:30ean egin dute hitzordua udaletxean. Orduan berrartuko du alkate kargua Unai Mirandak, eta Maialen Uitzi, Uxuri Perurena, Igor Elizegi, Mertxe Uitzi, Eider Zugarramurdi eta Olatz Zubirik zinegotzi kargua.

## Kalean da 'Xapo' aldizkariaren 22. zenbakia

Herriko hitanoari buruzko elkarrizketa, eskolakoen erreportajeak, herritarren hitz kuttunak, 2011ko txondorra... Horiek eta beste hainbat kontu bildu dituzte Xapo aldizkariaren 22. zenbakian. Paperean etxez etxe banatzeaz gain, *iparmank.eus* atarian online irakur daiteke.



FELIX LOIARTE

## Azoka ibiltaria eta gehiago

Eguraldia lagun, egun ederra atera zen ekainaren 3an. Mendialdeko Azoka Ibiltarian 25 bat postu paratu zituzten plaza inguruan; eskulanetan ibiltzen direnek labaderoan jarri zituzten ikasturtean egindako lanak ikusgai eta aurten aurrenekoz egin den Txondor Eguna ere bikain atera zen.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ESTEBAN AROTZENA

## Kinto Egunak giro ederrean

Urtero bezala, aurtengo maiatzeko larunbatetan Kinto Egunek festa giroz blaitu dute herria. 19an jo zuen gailurra, parranda izugarriarekin. Ondorengo larunbateko hitzordua lasaiagoa izan zen, kintokideak adinez aurreratuxeagoak zirelako, beharbada. 1956an jaiotakoek txondorra ere bisitatu zuten.

# «Ahoz aho transmititu diguten istorioari ipuin forma eman diot»

**ANE TABERNA ETXEBERRIA** 'NI EZ NAIZ ZOMORROA' IPUINAREN EGILEA

Garai bateko ikazkinen bizimodua eta Zahagi Dantzaren jatorria hizpide hartuta liburua argitaratu du Tabernak. Hasiera-hasieratik arrakasta haundia izan du, ale guztiak saldu baititu



Ane Taberna Etxeberria bere ipuina eskuetan duela. MAIALEN APEZETXEA

**G. PIKABEA**

«Aspalditxotik buruan nuen ideiari» forma eman berri dio Ane Taberna herritarrak, eta *Ni ez naiz zomorroa* album ilustratua argitaratu du. Garai bateko ikazkinen bizimodua eta Goizuetako Zahagi Dantzaren jatorria bildu ditu bere lehenbiziko lanean, eta gustura gelditu da «herriari ekarpentxoa eginda».

**Nolatan sortu zitzaizun ideia?**

Aspalditik nuen buruan bueltaka, beti sumatu izan baitut herriko inauteriei buruzko materiala falta zela. Horrez gain, Haur Hezkuntzako irakaslea naiz, eta Euskal Herriko inauteriak lantzen ditugunean, askotan galdetzen dugu pertsonaiak nondik sortuak diren. Hala sortu zitzaidan ideia.

**Zer kontatuko zeniguke mamiaz?**

Alde batetik, garai bateko ikazkinaren bizimodua ageri da, eta bestetik, Goizuetako Zahagi Dantzaren istorioa. Amona batek Goizuetako haur batzuei kontatzen dien istorioa da eta ikazkinaren bizimoduaren barrenean, ikatza lortzeko prozesua azaltzen da, txondorra nola egiten den eta ikatza nola lortzen den. Eta ondotik, zahagi dantza nola sortu zen bildu dut.

**Beraz, errealitatea eta fikzioa...**

Bai, hori da. Azken batean, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den istorioa da. Horri ipuinaren forma eman diot.

**Zenbateko garrantzia dute ahoz aho transmititu diren istorio horiek?**

Niretzat izugarria. Kultur ondare garrantzitsuak dira, altxor haundia, nondik heldu garen azaltzen eta nortasuna ematen digutenak. Askotan, ahoz aho transmititzen denak bidean galtzeko arriskua du.

**Goizuetan ere arriskuan zegoen?**

Ez. Herrian inauteriak oso maitatuak dira, eta istorio hau ere ahoz aho ondorengoei zabalduz segitzen dugu. Orain, ipuinarekin, esku artean edukitzeko euskarri bat ere izanen dugu.

**Txondor Egunaren bueltan argitaratu izana kasualitatea izan da?**

Berez, inauterien aurretik argitaratu nahi nuen, ez banion zentzurik ikusten beste data batean ateratzeari. Baina prozesua luzatu zen eta ezin izan nuen. Aurten, Txondor Eguna antolatu zutela jakin nuenean, data egokia ikusi nuen.

**Zenbateko prozesua izan da?**

Lehenbizi idazten hasi nintzen eta idatzitakoari buelta asko eman dizkiot. Idatzitakoak nolabaiteko forma hartu zuenean, ilustratzaile bila hasi nintzen, eta gustukoa harrapatu nuenean nola argitaratu begira. Nahiz eta autoedizioa izan den, 1545 argitaletxekoen laguntza haundia jaso dut, beraiek bideratu didate. Gauza bat eta beste, urte bat eta erdi pasatu izanen dut.

**Zer moduzko harrera izaten ari da?**

Bikaina. Oso pozik eta eskertua nago. 200 ale baino gehiago atera eta denak saldu ditut. Beste tirada bat aterako dugu.

**Haurrei zuzendutakoa da?**

Berez, bai, album ilustratu bat da, marrazki asko eta testu gutxirekin. Eta nahiz eta Goizuetan kokatua den, Euskal Herriko edozein herritan kontatzeko modukoa da. Herriko kasuan bertako istorio bati buruzkoa izanda, goizuetar guztientzat aproposa izan daiteke.

**Ipuinetan motz idazten jakin behar da. Erraza izan da?**

Hasieran testu oso luzea idatzi nuen, ilustratzaileari orrialde bakoitzean zer adierazi nahi nuen transmititu nahi bainion. Ilustrazioen eskema egindakoan, testuak eta irudiak mezu bera eman ez zezaten, testua egokituz eta murriztuz joan nintzen.

**Egunerokoan idazten duzu?**

Idatzi bereziki ez, irakurri asko, helduen eta haurren literatura. Lanean egunerokoan ipuinak asko erabiltzen ditut eta niretzat erosi ere egiten ditut.

**Irakaslea izanda, nolako ekarpena egiten diete ipuinek haurrei?**

Gaiak lantzeko, hizkuntza lantzeko, mezua eta kultur ondarea transmititzeko... Baliabide onak dira. Modu dibertigarrian gauza asko transmititzen dituzte eta asko gustatzen zaizkit.

**Nola ikusten duzu haurren euskarazko literatura?**

Ipuin ederrak eta askotarikoak argitaratzen dira, bai beste hizkuntzatatik itzulitakoak, baita bertan sortutakoak ere. Dena den, kontsumitzaileok bertan sortutakoei bultzada eman beharko genieke, idazleek gehiago sortzeko aukera izan dezaten.

**Emaitzarekin gustura gelditu zara?**

Bai, arrunt pozik. Eskuetan lehenbiziko aldiz ipuina hartu nuenean poza eta emozioa sentitu nituen, egindako lanak fruitua eman duela ikusita.

**Ipuin gehiago etorriko dira?**

Auskalo! Zerbait akaso bai, badut zerbait buruan, baina ez dakit oraindik forma hartuko duen edo ideia hutsean gelditukoden. Burua beti martxan dut.

**Zerbait gaineratuko zenuke?**

Eskerrak emateko aprobetxatu nahi nuke; batetik, 1545 argitaletxeari eta Goizuetako Udalari, udalaren dirulaguntza ere jaso nuelako proiektua aurrera eramateko. Eta bestetik, ipuina argitaratu aurretik irakurri duten lagunei ere eskerrik asko.




Gaur egun 7 eta 16 urte bitarteko 45 haur eta gaztek eta 12 monitorek osatzen dute taldea. FOTO MENA

# Baztandarra Txirrindularitza Taldea 40 urte pedalei eragiten

**MIKEL SOBRINO URRUTIA** BAZTANDARRA TXIRRINDULARITZA TALDEA

Duela lau hamarkada sortu zuten Baztandarra taldea, eta ibilbide gorabeheratsua izan badu ere, elkarteak aitzinera egin du. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte aurten

**R. OSKARIZ** BAZTAN

1983an ziklismoa zaletasun zuten hainbat baztandar elkartu ziren behar bati erantzuteko; bailaran txirrindularitza talde bat sortzea. Izan ere, Baztango haur eta gazteek ez zuten txirrindularitzan lehiatzeko inongo aukerarik. Baztandarra Txirrindularitza Taldea sortu zuten orduan. 20 bat mutiko kozkorrek eman zuten izena, tartean Mikel Sobrino elizondoarrak. Gaur egun elkartean segitzen du Sobrinok, «guri eman ziguten aukera oraingo haur eta gazteei eman ahal izateko». Gorabeherak gorabehera, inoiz baino sasoitsuago dago elkartea.

**Nola aldatu da taldea 40 urte hauetan?**

Hasmentako urteak arras onak izan ziren, dena ongi joan zen, eta dirurik ez bagenuen ere, lan haundia egin zuten antolatzaileek. 10. urterako taldea nekatzen hasi zen, eta ezbehar latz bat izan genuen: etorkizun gehien zuen txirrindularia istripu batean hil zen. Orduan elkartea kili-kolo gelditu zen, gurasoen artean kezka sortu zen eta taldeko ilusioa galdu zen. 40 gazte inguru izatera ailegatuak ginen, eta urte hartatik aitzinera ia desegin zen. 1998an haur eskola galdu zen, eta kadete, jubenil eta masterrekin segitu zuen taldeak, baina arras bakan. Txuma Eugi izan zen sortzailea, eta berak mantendu zuen birizik taldea, bederen paperean ez desagertzeko. Duela bortz urte, lehen ibilitako haurrak elkartu ginen eta martxan paratu genuen dena berriz, guri emandako aukera hori oraingo haur eta gazteei eskaintzeko.

**Gaur egun zenbat lagunek osatzen duzue taldea?**

Gaur-gaurkoz, 45 haur eta gazte eta 12 monitore gara, eta ia 200 kide ditu elkarteak. 7 eta 16 urte bitarteko txirrindulariak aritzen dira taldearen izenean lehiatzen.

**«TXUMA EUGIK SORTU ETA BIZIRIK MANTENDU ZUEN TALDEA»**

**Haurrendako eskolez gain, bertzelako ekimenak ere antolatzen dituzue, ezta?**

Bai, betitik saiatu gara klaseak emateaz aparte, eskualdean txirrindularitza zabaltzen. Hainbat lasterketa antolatu izan ditugu, bai haurrendako eta baita kadete eta jubenil eta zaleendako, ahal den neurrian. 80ko hamarkadan Nafarroako Itzulia Elizondora ekartzea izan zen taldearen lorpen haundienetako bat, eta Bagordiko helmugak arrakasta haundia izan zuen. Arrakasta hori ikusita eta aurten 40 urte betetzen ditugunez, Bidasoko Itzulia Baztanera ekartzea erabaki genuen maiatzean.

**Bidasoko Itzulia ekartzeaz gain, bertzelako ekimenik pentsatu duzue urteurrena ospatzeko?**

Urte akabaila aldera zerbait gehiago eginen dugu, eta aldizkari bat argitaratu nahi dugu 40 urte hauetako informazioarekin. Gainera, ekainaren 10ean BTT proba egin genuen Arizkunen eta abuztuaren 6an errepideko lasterketa antolatuko dugu Elizondon.

**Txirrindularitzako zaletasun haundia ikusten duzu inguruan?**

Bai, beti berdintsua izan da. Batzuetan haur gehiagok eman dute izena eskolan eta bertzeetan guttiagok, baina zaletasuna bada. Duela bortz urte hasi ginenean, pandemia ondoko garaian, ia 100 haur hasi ziren. Gehiegizko afera zen, baina berriz ere jautsi da, eta momentuan arras ongi gaude.

**Beraz, taldeari etorkizun ona ikusten diozu?**

Haurren aldetik bai, baina entrenatzaileen aldetik ez da erraza. Ez badugu jende berria sartzen asmatzen, orain daudenak erre eginen dira. Baina nahiago dut positiboa izan eta etorkizun ona izanen duela pentsatu, aukera badagoela. Momentuz, ongi doa afera.

# Desgaituendako eguneko egoitzaren idazketa onartua

30.350 euroko moldaketa onartu du udalak, Oronoz-Mugairin eginen duten eguneko egoitzaren idazketarako

**TTIPI-TTAPA**

Legealdiko azken osoko bilkuran, Baztango udalbatzak 30.350 euroko moldaketa onartu zuen aho batez, adimen desgaitasuna duten herritarrendako eguneko egoitzaren proiektua idazteko. Moldaketarekin, proiektuaren idazketaz gain zuzendaritza ere finantzatuko da. Horretarako, dagokion lizitazio publikoa abiatu du udalak.

Zentroa egiteko, eskualdeko gainerako udalekin hitzarmena egitea onartu zuten. Izan ere, hilabeteak dira eskualdeko udalak elkarlanean ari direla eta Oronozko Zunda etxean egitea erabaki dute. Hitzarmenean udal bakoitzaren ekarpen eta ardurak zehaztu dituzte. Egoitza Baztanen eginen denez, Baztango Udalak eskatuko du dirulaguntza eta idatzi, zuzendu eta gauzatuko du proiektua. Horretarako, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialen departamentuak abiatutako dirulaguntza deialdira aurkeztu da udala.

Eguneko egoitzaren memoria teknikoa 3.630 eurotan egina dago, eta memoriaren arabera proiektu osoa 400.000 euro ingurukoa izanen da, kontuan hartuz memoria bera, proiektuaren idazketa eta zuzendaritza eta lanak. Nafarroako Gobernuak BEZa ez den gainerako guztia diruz lagunduko du. BEZaren zatia udalek bere gain hartuko dute.

Honez gain, 2023ko aitzinkontuan 30.000 euroko kontu saila du Baztango Udalak, Zunda etxea desjabetu ahal izateko, gaur egun Nafarroako Gobernuarena baita.



BAZTANGO MUGIMENDU FEMINISTA

## Erailketa matxisten kontra Elizondon

Baztango Mugimendu Feministak elkarretaratzea deialdia egin zuen ekainaren 1ean Elizondoko plazan, maiatzean Gasteizen eta Orion izandako bi hilketa matxistak salatzeko. Gizarteak «aldaketa sakonak» behar dituela aldarrikatu zuten, «hil ala biziko kontua delako».

## Euskal dantzen ikastaroaren lehenbiziko ikasturtea akitu dute Zigan

**ARANTXA GAMIO**

Pasa den urritik maiatzera, asteartero bi taldetan antolatuz, 25 lagunetik goiti euskal dantzak ikasten ibili dira Zigako eskolako sabaian; deialdia Basaburura zabaldu zen eta bertako herritarrak gustura ibili dira Euskal Herriko dantzak ezagutzen. Azken saioa maiatzaren 30ean egin zuten, ekaitzen barealdia aprobetxatuz, Zigako plazan. Ondotik meriendatxoarekin hurrengo urrira arte agurtu ziren, udan plazetan dantzak praktikatzen segitzeko itxaropenarekin!
















# Herriguneak berritzeko plana onartu du udalak

Baztango herri eta auzoetako etxe haundi eta zaharrak berritzea eta hutsik dauden herri zatiak betetzea du helburu

**TTIPI-TTAPA**
Baztango Udalak bailarako herriguneak berritzeko planari hasierako onespena eman zion maiatzaren 25ean, legealdiko azken plenoan. Egitasmoak EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko 10 boto eta Navarra Sumaren 3 abstentzio izan zituen eta orain jendearen aitzinean paratuko dute plana. Hiru hilabeteko epea izanen da alegazioak aurkezteko.

Planaren helburua «herri eta auzoetako etxe haundi eta zaharrak berritzeko baldintza administratibo, juridiko eta tekniko egokiak eskaintzea» da, betiere udalaren eskumenekoak diren gaietan.

Planak etxe horietan bizitegi berri gehiago egiten ahalko diren edo ez finkatuko du formula baten bidez, eta herriguneetan hutsik diren zatiak betetzeko aprobetxamenduak berrikusiko ditu.

Honez gain, katastroan ez dauden eraikin eta eratxikiak ordenatzeko balioko du planak. Honek udalaren kudeaketa administratiboa lagunduko duena, eta eremu publikoak hobetuko ditu, interes publikoko esku hartzeak finkatuko baititu.

Plana behin betiko onartzean, bailarako herriguneak Lehentasun Berroneratzea Area kalifikatzeko prozedurarekin segituko du udalak. Planaren idazketa Paisaje Transversalek hartu du bere gain eta udaleko hirigintza aholkularitzaren laguntza izan du.



BEÑAT JOURDAIN

## Baztango Mindeitzek Erratzu girotu du

Thierry Biscaryren kantu ikastaroko ikasleek emanaldi ibiltaria egin zuten ekainaren 2an Erratzun. Herriko hainbat lekutan ibili ziren partaideak taldean, bakarka eta binaka kantan, eta Erratzuko damek eta sagar dantzariek ere parte hartu zuten. Jendetza bildu zen eta giro ederra sortu zuten.

## Hiru jaunartze izan dituzte Arraiozen ekainean

Gainerako herrietan bezala, ekainean sartuta Arraiozen ere jaunartzeak izan dituzte. Hilaren 4an herriko hiru neska-mutikok egin zuten beren lehen jaunartzea; Aisha Zubieta, Gexan Lazkano eta Aimar Fagoaga izan ziren eguneko protagonistak. Zorionak!



NEREA MORTALENA

## Baztango Udalak 187.806 eurotan eman ditu udako mendiko lanak

**TTIPI-TTAPA**
Urtero bezala, udalak mendiko lanak eginen ditu udan, eta Aginagalde enpresari eman dizkio. Hurrengo lanak eginen dituzte:
- Orabideko Zaldizuriko alderdian 4,4 hektareako landaketa, Douglas izeiarekin eta gaztainondoekin.
- Ermitegi, Aranea, Azkar eta Zaldizuriko landaketetan mantentze lanak, 47,5 hektarea iratze, sasi… garbituz.
- Gorramorro, Irrio eta Bizubieta alderdietan 6,2 km iskindegi zahar bildu eta menditik lekutu, eta Belate, Erdiz eta Lizartzuko hetsiak ere errepasatu.
- Erdiz eta Belaten bazkalekuak hobetzeko 15 hektarea sasi moztu. Erdizagan, Kontserbazio Bereziko Eremuaren barnean 30 pago ondo ihartu edo eraztundu.
- Zokoa alderdian oihana berreskuratzeko iskindegiak errepasatu, 1,3 km denera.
- Egurtegi, Urkilepo eta Negusaroiko xaraketan haritz eta bago bakanketak, 45 hektarea.
- Eneko eta Labattoa inguruan 6,5 km bide hobetu.

# Urko Gartzia Nafarroako Bertsolari Txapelketara

Urriaren 7an abiatuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartuko du lekaroztarrak



Gartzia bertsotan. BERTSOZALE ELKARTEA

**TTIPI-TTAPA**
Maiatzeko azken asteburuan jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen aurrekanporaketa Larraunen, eta Urko Gartzia Aleman lekaroztarra izan zen garaile, beraz, zuzenean sailkatu da urrian abiatuko den txapelketara.

Sei bertsolari izan ziren kantari maiatzaren 26an eta Urko Gartziak bildu zuen puntu gehien (246). Haren gibeletik sailkatu ziren Beñat Astiz (244,5), Fernando Ziganda (235), Mintxo Astiz (195,5), Peio Ardaiz (185) eta Etxahun Azkarraga (175,5). Alaitz Rekondok aurkeztu zuen, eta Aimar Sagastibeltza, Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria eta Joseba Beltza aritu ziren epaile.


Zortzi herritarrek osatzen dute antzerki taldea. HARREMANA ELKARTEA

## Iruritako Antzerki Tailerrak lehen emanaldia aurkeztu du Elizondon

**TTIPI-TTAPA**
Adinekoak entretenitzea helburu duen Harremana elkarteak antzerki tailerra abiatu zuen Iruritan iaz, Amaia Iriondok antolatua eta Josema Langarak zuzendua. Orain taldeak lehen antzezlana aurkeztu du Elizondoko zahar etxean: *La musa de Baztan.*

Bi emanaldi gehiago antolatu dituzte aste honetan; ekainaren 16an Urdazubin eta 18an Iruritan. 19:00etan izanen dira bi hitzorduak.

Hurrengo urtera begira, urrian berriz ere antzerki tailerrean izena emateko deialdia zabalduko du elkarteak.

## Pilota partida bereziak Erratzun frontoiaren 100. urteurrenean

**TTIPI-TTAPA**
Erratzuko Etxelebert pilotalekuak 100 urte bete ditu aurten, eta mendeurrena ospatzeko, esku pilota partida bereziak antolatu dituzte herriko bestetan. Ekainaren 30ean, ortziralea, bi partida izanen dira frontoian 19:00etatik aitzinera: nesketan, San Fermin txapelketako final erdiak jokatuko dituzte, mutiletan, berriz, Baiko enpresako pilotariak izanen dira; Artola eta Eskiroz, Larrazabal eta Imazen kontra. Sarrerak salgai daude 20 eurotan ohiko tokietan. Bestetako egitarau osoa 34. orrian.


Erratzuko Etxelebert pilotalekuak 100 urte bete ditu. ARTXIBOTIK




# Nafarroako XV. mendea Esarteren liburu berrian

Nafarroako Artxibo Orokorrean egindako ikerketen emaitza, monarkiaren historia gezurtatzen du liburuan

**TTIPI-TTAPA**

Pedro Mari Esarte elizondoarrak *Historia de Navarra en el siglo XV y el posible asesinato de la reina Blanca de Evreux* liburua argitaratu berri du. 1978 eta 2001 urteen bitartean Nafarroako Artxibo Orokorrean egindako ikerketen emaitza da liburua, eta urteetan Nafarroako monarkiari buruz kontatutako historia begirada kritikoz gezurtatzen du, zehazki Evreux-Trastamara dinastiaren inguruan.

Baztango historiari, politikari eta kulturari arras lotua dagoen pertsona da Pedro Mari Esarte Muniain (Elizondo, 1936) eta Nafarroako eta Baztango historiaren aztertzaile nagusietakoa da gaur egun.



Pedro Esarte elizondoarra. ARTXIBOTIK



Eskolak urteetan eskatutako psikomotrizitate gela eginen dute. ARTXIBOTIK

## Arraiozko eskola haunditzeko hitzarmena onartu du udalak

**TTIPI-TTAPA**

Arraiozko eskola haunditzeko Nafarroako Gobernuarekin egin beharreko hitzarmena onartu zuen maiatzean Baztango udalbatzak aho batez.

Izan ere, urteak dira eskolak psikomotrizitate gela eskatzen duela, Haur eta Lehen Hezkuntzan ematen duen zerbitzua osatu ahal izateko, baina gibeleratu den gaia izan da, norat handitu eta proiektuaren ezaugarriak erabaki bitarte. Orain dena argitu dela, udalak handitu ahal izateko lurzoru urbanizagarria utziko du eta Nafarroako Gobernuak proiektua idatzi, zuzendu eta gauzatuko du.

## Erregiñek eta saratsak atera dira maiatzeko azken igandean

**NEREA MORTALENA**

Maiatzeko azken igandean, ohitura den bezala, Erregiñek eta Saratsak ospatu zen Arraiozen. Aurtengoan hamahiru neskek hartu zuten parte, bi erregin, Aiora Arraztoa eta Alaitz Urrutia; eta gainontzekoak saratsak: Nahia Lazkano, Olatz Bergara, Aisha Zubieta, Ainara Zubigarai, Irati Gamio, Lide Laurnagarai, Elaia Zubigarai, Intza eta Aiuri Garmendia, Aroa Navarro eta Aitana Iraola.

Arratsaldean eskean ibili ziren, etxeetako ateetan pausatuz eta koplak kantatuz. Lortutako diruarekin merienda egin zuten.



Hamahiru neskek parte hartu zuten ekitaldian. NEREA MORTALENA







# Berroeta besta giroan murgildurik eguraldi ederrarekin

Maiatzaren 26tik 29ra Mendekoste bestak ospatu zituzten Berroetan eta giro ederra izan zuten

**MAIALEN IANTZI**

Eguraldi zoragarria lagun, ezin hobe atera dira herriko bestak.

Ortziralean magoaren ikuskizunaren ondotik, herriko trikitilariek herriari itzulia egin zioten. Gero, txopoa goratu, mutil dantzak dantzatu eta baztan zopak izan ziren afaltzeko; 140 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan. Gauez ere, jenderik ez zen falta izan, gau osoan plaza betea egon zen!

Larunbata ere mugitua izan zen: puzgarriak, bazkaria, txarangarekin herri itzulia, paella eta postre lehiaketa... Eta akitzeko, afaria eta dantzaldia.

Igandea gaitaren doinuekin eta erraldoien dantzekin hasi zen. Ondotik, meza, luntxa eta pilota partidak izan ziren. Arratsaldean, aldiz, *Komediaren berpizkundea* monologo saioa izan zen eta akitzeko xingar jatea.

Besten azken egunean, ohitura mantenduz, bizikleta itzulia izan zen lehen hitzordua. Anizera joan etorria egin eta gero, mus eta partxis lehiaketak jokatu ziren. Gero, zikiro jatea eta dantzaldia izan ziren. Akitzeko, kantu zaharrek alaiturik xingarra afaldu eta oraindik indarrak zituztenek, herriari itzulia eman zioten.

Besta zoragarriak izan dira, bere osotasunean auzolanean sortu eta aitzinerat ateratakoak. Herri ttikien indarra eta elkartasuna agerian gelditu da berriz ere. Herritarren borondatea da bestek uzten diguten iruditu indartsuena; denen artean egindakoa, elkarrekin gozatu dugu! Aupa Berroeta eta berroetarrak!



Egitarau oparoa izan zuten berroetarrek bestetan. MAIALEN IANTZI




# Mendiko suteak prebenitzeko plana aurkeztu du udalak

Arriskuen azterketak, jarduketa prozedurak, prebentzio neurriak eta herritarrak informatzeko ekintzak zehaztuko dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Azkeneko osoko bilkuran 8.400 euroko kontu saila onartu zuen Baztango Udalak, mendiko suteen arriskuei erantzuteko plana egiteko. Udalerriaren barnean gertatzen diren larrialdi egoerei aurre egiteko baliagarria izanen da plana.

2022ko azaroan Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko Mendiko Suteetako Babes Zibileko Larrialdi Plan Berezia onartu zuen. Honekin, herrialdeko arrisku handiko eremuak zehaztu zituen, tartean Baztan. Ondorioz, udalerri horiek legez behartuta daude horrelako planak egitera.

Jarduketa plan honekin, Baztango Udalak lurraldearen azterketa eginen du, mendiko sute arriskuen azterketa eta baliabideen katalogazioa. Gainera, zehaztu eta finkatuko ditu tokiko antolaketa jarduketa prozedurak, prebentzioko neurriak eta herritarrak informatu eta komunikatzeko ekintzak.

Plan hauek egiteko Nafarroako Gobernuak antolatutako dirulaguntza deialdirat aurkeztu da Baztango Udala eta 3.000 euroko laguntza hartzea espero du.



Sutea Baztanen. ARTXIBOTIK

### Liburutegi publikoaren eraginkortasun termikoa hobetzea

Bertzalde, bilkura berean, liburutegi publikoaren eraginkortasun termikoa hobetzeko memoria teknikoa egin ahal izateko 10.000 euroko bertze kontu saila onartu zuten.

Memoria honek, bertzeren artean, planoak eginen ditu, eraikuntzaren xehetasunekin, eta baliagarria izanen da egin beharreko hobekuntzak zehaztu eta faseka antolatzeko, eta dirulaguntza deialdietarat aurkezteko.

## Udalak 49.100 euro banatu ditu aurten elkarteak laguntzeko

**TTIPI-TTAPA**

«Giza garapeneko indizerik ttikiena duten herrialdeekiko elkartasun eraginkorra sustatzea helburu», Gizarte Zerbitzuek 49.100 euro banatu dituzte guztira aurten:

**Euskal Fondoa**ri bi donazio: lehenbizikoa 27.100 eurokoa, Nikaraguako La Culebra eta La Argentina komunitateetan edateko uraren saneamendua hobetzeko. Bigarrena, 10.000 eurokoa, El Salvadorren tokiko gobernagarritasuna genero ikuspegiarekin indartzeko.

**Garabide**k 3.000 euro hartu ditu, hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen laguntzeko euskararen esperientziatik abiatuta.

**Munduko begiak** taldeari 3.000 euro eman dizkio, baliabide ekonomikorik ez duten herrialdeetan ikusmen-urritasunak dituzten pertsonei kalitatezko arreta oftalmologikoa emateko.

**Saharaztan**ek ere 3.000 euro hartu ditu, 'Oporrak bakean' proiektuaren bitartez saharar errefuxiatu kanpamentuetan diren pertsonak eta batez ere haurrak laguntzeko.

**Irungo Harrera Sarea**ri ere 3.000, Irunera ailegatzen diren pertsona migratzaileei Bidasoa zeharkatzen laguntzeko.

## Errugbi gaupasaren zozketako irabazleak iragarri ditu BRTk

**TTIPI-TTAPA**

Duela aste batzuk BRT Menditarrak taldeak gaupasa besta antolatu zuen Larraintzarren. Gainera, lehen aldiz Ultzama 7s errugbi txapelketa egin zuten: BRT Menditarrak, Irun RT eta Iruñea RC taldeek parte hartu zuten eta Iruñea RC izan zen txapeldun. Giro ederra izan zuten txapelketan eta gaupasan.

BRTk eskerrak eman die parte hartu zuten guztiei, errugbia bultzatzeagatik, eta zozketako irabazleak zoriondu ditu. Lehenbiziko saria Marta Irigoienek eskuratu zuen (5974) eta bigarrena Aritz Gironesek (3879), Maria Luisa Cordobak (7060) eta Oier Arozenak (1395). Zorionak!

## Baztan Kantuz Anizen izanen da igandean

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako Baztan Kantuz ekimenak herriz herriko itzuliarekin segitu du ekainean, eta Anizen izanen da hilaren 18an. Musika eta kantua maite dutenek herriko pilotalekuan 12:00etan dute hitzordua.



IDEA

# Fco. Joakin Iriarte
## Zahar etxea (Elizondo)

**Fco. Joakin Iriarte zahar etxea** 65 urtetik goitiko pertsonendako egoitza da.

**IDEA**n pertsonarengan oinarritutako arreta eredu propioa garatu dugu, 'Egoitza Zentzuduna' deitu duguna, eta hortan, pertsona bakoitzari bere proiektu pertsonala garatzen laguntzen diogu: bizitzaren zentzua orain eta etorkizunean, kalitatezko bizitzarako baloreak, jarduera garrantzitsuak eta lotura afektiboa.

**Gure zerbitzua:**

Zahar etxean bizitzeko zerbitzua.
·
Egun-pasako egonaldi zerbitzua.
·
Aldi baterako egonaldi zerbitzua.

Gainera, estimulazio kognitiboaren aro berrian sartu gara "OROI" proiektuaren bidez. Errealitate birtualeko edukien plataforma bat da, adineko pertsonentzat pentsatua.



*Aprobetxatu uda eta etorri gurera oporretan!*





Egoitzan bizitzeko **150 plaza ditugu**, horietatik 100 itunduak, eta eguneko zentroan 15 plaza, horiek ere itunduak.





*Gure zerbitzu profesional guztiez baliatzeko aukera izanen duzue, bai pertsona autonomoendako, bai mendekotasun-egoeran daudenendako.*

**Hauxe da gure laguntza profesionala:**

· Medikuaren arreta (O.Z.)
· Erizaintzako arreta propioa.
· Estimulazio kognitiboa eta terapia okupazionala.
· Fisioterapia eta errehabilitazioa.
· Dinamizazio soziokulturala.
· Gizarte-lana.
· Erlijio-arreta.
· Etxeko sukalde tradizionala.

*Ez buelta gehiagorik eman. Zuek hartzeko besoak zabalik gaude!*



Santiago 2, Elizondo

948 580 730 · 643 626 744

# Lehen webgune turistiko inklusiboa estreinatu dute

Edozein gaitasun, ezagutza, adin edo gailu duen pertsonak erabil dezake turismozugarramurdi.com webgunea

**MARIFA ETA KORO**

Irisgarritasunari buruzko arautegiarekin konprometitutako ahalegin baten emaitza da *turismozugarramurdi.com* webgunea, eta, horri esker, edozein pertsonak erabil dezake, edozein gaitasun, ezagutza, adin edo gailu duela ere. Nafarroako toki entitate batek bultzatutako lehen turismo webgune inklusikoa da.

Gaur egun turismoa gero eta gehiago emozioa, entretenimendua eta hezkuntza da, eta, beraz, Zugarramurdiren eskaintzarekin bat egiten duten ekimenak bizipenen ikuspegitik planteatzen dira. Behar bada horregatik finkatu da Zugarramurdi azken urteotan Nafarroako erreferente turistiko gisa; izan ere, 2022an Nafarroan gehien bisitatu den bigarren baliabide turistikoa izan da lezea, eta gauza bera gertatzen zaio Sorginen Museoari, urte horretan berean sarrera gehien erregistratu zituen bigarren ekipamendu museografikoari.

Baina bizipen horiek pertsona guztien eskura egon behar dute, eta, horren ondorioz, leizea eta museoa kudeatzen dituen Zugarramurdiko Garapena enpresa kudeatzaileak irizpide inklusiboekin egindako webgune turistiko berri bat bultzatu du. Izan ere, Zugarramurdiko Garapenaren jarduera nagusia herriaren natura- eta kultura-ondarearen kudeaketa jasangarrian oinarritzen da, batez ere bisitak diseinatuz eta eginez; baina, ikuspegi integratzaile batetik, bisitarientzat zein herritarrentzat interesgarriak diren esperientziak dakartzaten jarduerak sustatzen ditu, denentzat eskuragarri izan daitezen lan eginez.

Ainhoa Agirre kudeatzailearen arabera, «irisgarritasuna ez da legezko betebeharra soilik; pertsona ezgaituek eta adinekoek dituzten irisgarritasun-beharrekin enpatizatzen dugu, eta, horregatik, zailtasun funtzionalak dituztenen esperientziaz gozatzeko urratsak ematen ari gara. Web orri hau irisgarritasunari buruzko egungo araudiarekin konprometitutako ahaleginaren emaitza da».



MARIFA ETA KORO

## 'Sanoki' ostatu berria zabalik

Maiatzaren 27az geroztik ostatu berri bat daukagu herrian: *Sanoki*. Modu politean eman zioten hasiera, Niko Etxarten kontzertu batekin, eta nagusien intentzioa udan kontzertu gehiago eskaintzea da. Asteazkena kenduz, gainetako egunetan edekita egonen da ostatua eta jatetxea.



MARIFA ETA KORO

## Oieriko astoak bi astakume

Oieriko Jaxinta astoak balentria polita egin du, bi astakume izan baititu umaldi bakarrean. Diotenez, astoek bi kume batera erditzea ez da usaiakoa, beraz, Jaxintari zorionak emanen dizkiogu, eta ongi etorria Ilargi eta Ekain bere kumeei. Aski politak ageri dira hiruak argazkian.





Giro ederra izan zen Mendekoste egunean. ARANTXA ETA IRAIA

# Mendekoste eguna ederki ospatu dute Dantxarinean

Maiatzaren 29ko ospakizunen artean, 1.500 euroko txekea Senpereko Veronique Zamorari egokitu zitzaion

**ARANTXA ETA IRAIA**

Mendekoste egunaren hamargarren edizioa ospatu zuten maiatzaren 29an, astelehenean, Dantxarineko Axular merkataritza guneko aparkalekuan, Dantxarineko Merkatarien Elkarteak antolatuta. Egitarauaren barrenean, Dantxarinean erabiltzeko 1.500 euroko txekea zozketatu zen eta Senpereko Veronique Zamorari egokitu zitzaion, hiru hilabetez erabili beharreko saria. Txomin Iribarren, Dantxarineko Merkatarien Elkarteko presidentearen eskutik hartu zuen txekea.

Zozketaz gain, puzgarriak eta musika, euskal dantzak, sagardoa eta txorizo pintxoak eta herri kirol erakustaldia ere izan zituzten. Larretxea anaien eskutik, aizkolariak, harri altxatzaileak eta txinga eramaileak aritu ziren.

### Historia

Mendekoste eguna 1940. hamarkadakoa da, Bigarren Mundu Gerra pasatu ondotik, mugak zenbait urtez itxita gelditu zirenean. Muga soilik Mendekoste astelehenean irekitzen zen eta egun horretan Dantxarinean, mugako bi aldeetako familiak biltzeko aukera zuten.

Besta egun handia zen, salmenta tokiak haien produktuak karrikara ateratzen zituzten eta musika, dantzak eta pilota partidak izaten ziren. Mugako bi aldeetatik jendez betetako autobusak etortzen ziren, egun batez haien familiekin eta lagunekin elkartzeko asmoz. Urteen poderioz, eta mugak irekiak zeudela, besta hau ospatzeari utzi zioten duela 40 bat urte.

Orain, Dantxarineko merkatarien elkarteak besta hau berreskuratu du eta dagoeneko hamargarren edizioa ospatuko du aurten.




1.500 euroko txekea ematen.

## Landa haurtzaindegiaren udalekua eta Mugarkiren multijarduera campusa

Landa haurtzaindegiak 3-7 urte arteko haurrentzat udalekua antolatu du. Bi txanda izanen dira, lehena uztailaren 10etik 21era eta bigarrena uztailaren 24tik abuztuaren 4ra. Goizez izanen dira eta kultur etxean elkartuko dira haurrak. Udalekuetan izena emateko epea ekainaren 19an bukatuko da. Mugarkik ere Urdazubiko multijarduera campusa antolatu du 8-11 eta 12-16 urte arteko haur eta gazteentzat. Uztailaren 17tik 21era eta 24tik 28ra izanen dira, goizez. Internet bidez eman daiteke izena.



ARGAZKIJABEAXXX

## Lehen jaunartzea Zugarramurdin

Urtero Urdazubi eta Zugarramurdi herriek txandaka ospatzen dituzte jaunartzeak eta aurten Zugarramurdin egitea egokitu zen. Aitor Bengotxea, Mattin Juanena eta Mattin Otxoteko izan dira ekainaren 4an lehen jaunartzea egin dutenak. Egun bikaina izan zen hiruentzat!





Haira Aizpurua Ibargarai agurra kantatzen. XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

# Haira Aizpurua da eskolarteko txapelduna

Bigarrenez irabazi du Haira Aizpurua Ibargarai herritarrak eskolarteko bertsolari txapelketa

**TTIPI-TTAPA**

Udaberri oparoa izan du Haira Aizpurua Ibargai herriko bertsolariak. Maitzaren 28an Lapurdiko, Baxenabarreko eta Zuberoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi zuen Itsasun eta ondotik, ekainaren 3an Euskal Herrikoa Iurretan.

Itsasuko Sanoki aretoan laugarrenez irabazi zuen Aizpuruak Iparraldeko eskolartekoa. Saio berean, Unax Aizpurua Ibargarai herritarrak ere hirugarren postua lortu zuen.

Iparraldeko eskolartekoa irabazita, Iurretako Euskal Herriko finalerako txartela lortu zuen Aizpuruak. Bertan, bertze bederatzi bertsolarirekin osatu zuen saioa: Gipuzkoatik June Aiestaran eta Danel Etxeberria; Nafarroatik Kattin Madariaga eta Eki Mateorena; Arabatik Maddi Agirre eta Sabin Abarrategi; Bizkaitik Haizea Telleria eta Ixone Asategi; eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako ordezkaria Aizpurua berarekin batera Ibai Lekuona izan zen. Ipar Euskal Herriko finalera lapurtarrak bakarrik sailkatu zirenez, ez zen Baxenabarreko eta Zuberoako bertsolaririk izan finalean.



Bigarrenez irabazi du txapela.

Hasierako agurren ondotik, lehen atalean zortziko handian eta zortziko txikian aritu ziren bertsolari guztiak, binaka. Horietatik, sei sailkatu ziren bigarren zatira: Etxeberria, Mateorena, Aizpurua, Aiestaran, Madariaga, Agirre eta Aizpurua bera. Puntu bati erantzun eta bakarka gaiari bertso bat kantatu behar izan zioten sei horiek.

Azkenean, Haira Aizpuruak lortu zuen 2023ko Euskal Herriko Eskolarteko txapela, bigarrenez, 2021ean ere jantzi baitzuen. Udalekuetako eta bertsotako lagunei, anaiari eta bereziki amatxiri eta amonari eskaini zien txapela.

## Ereiaroaren 3an ireki dute Larhungo trena 9 hilabeteko lanen ondotik

**GANEX**

Bederatzi hilabetez trenbidea berritzen aritu ondotik, ekainaren 3an, larunbatean ireki zuten berriz ere Larhungo trena. Lehen irteera larunbatean 09:30ean egin zuten eta azaroaren 5era bitarte, egunero-egunero hamabortz joan-etorri eginen ditu.

2023ko prezioei dagokienez, helduek 22 euro ordaindu beharko dute eta lau eta hamabi urte bitarteko haurrek 15 euro.

1924ko ekainaren 30ean egin zuen Larhungo trenak bere lehen igoera,eta gaur egun urtean 350.000 pertsona inguru ibiltzen dira. Hurrengo urtean ekitaldi bereziak eginen dituzte 100. urteurrena kari.



9 hilabetez egin dituzte lanak.



TTIPI-TTAPA

## Olhain ikastolaren besta ederra

Maiatzaren 28an egin zuen bere besta eguna Olhain ikastolak. Jendea bazen, 220 bat heldu eta 80 bat haur eta bazkari ederra izan zuten. Basapiztiak taldeak dena ongi airostu zuen euskal kanta ederrekin eta 18:00etan kontzertu bat eman zuen. Finitzeko DJ Bullek eman zuen animazioa.

## Ereiaroaren 17an eginen du Beti Gazte elkarteak urteko bigarren bilkura

**GANEX**

Ereiaroaren 17an, larunbatez, Beti Gaztek aurtengo bigarren elkarretaratzea antolatu du San Inazioko Les Trois Fontaine jatetxean. Bazkariaren menua: Kir koktela, eltzekaria, legatza onddo saltsarekin, haragia barazkiekin, ardi gasna erreximentarekin eta marrubiak kremarekin. Edarietan arno beltza eta gorria eta kafea sartuko dira. Prezioa 38 eurokoa da, eta bazkideentzat 33koa. Ereiaroaren 13a baino lehen eman behar da izena eta denak gomitatu dituzte elkarrekin egun goxo bat pasatzera.



Aurreskua Iñaki Iriarte saratarrak egindako marmolezko eskulturan. ANAIARTEA

# Euskal populuaren historiaren oroilekua aurkeztu dute

22 gertakizunen bitartez Euskal Herriaren historia kontatzea du helburu; natura, eskultura eta bideoak uztartuz

**JL BESSONART**

Horra zer altxor polita utzi duen Anai-Artea elkarteak, mende erdi bat lan eginik isiltasunean Espaniako errepresioari ihes egiten zuteneri laguntza emanez. Elkartearen bururatzean, nahi izan dute lekukotasun bat utzi, Euskal Herriko historiaren kondatzeko tresna bat gauzatuz memorial horretan, QR kodearen bitartez baita interneten, *anaiartea-oroitlekua.eus* erabiliz. Ekitaldi jendetsua, eguzkipean iragan da giro gozo batean. Hitzaldietan aritu dira Bernard Elhorga auzapeza, Mixel Mendiburu lehendakaria Andoni Iturrioz eta Bixente Garzia arduradunak, hauei lotuz Erramun Martikorena kantaria, txalapartari, bertsolari eta dantzariak. Presuna aunitz omenduak izan dira, Jean Fagoaga lehenbiziko buruzagia, ahantzi gabe joanak diren Telesforo Monzon, Piarres Larzabal, Mixel Idiart, Didier Rouget eta Frantxoa Garat, lur emailea, Udalbiltza… Ekitaldiaren bukaeran deskubritu dute Inaki Iriarte saratar artistaren marmolezko eskultura, bihotza eta izpiritua gogoratzen dituena.



JL BESSONART

## SPUC kirolak elkartearen bazkaria

Mendekoste igandea baliatuz, 250 kide bildu dira Inharria baserrian, urtero errepikatzen den ekitaldi gozora. Bazkaria giro eder batez bete da, kantu, dantza, animazioa musikala eta umore ona nagusi. Nola biharamuna, besta eguna zen, partehartzaile aunitzek berantarekin bukatu dute gaua.



JL BESSONART

## Kanita Urrats Salbatore egunean

Salbatore egunarekin pilota plazan jende andana bildu zen, ganibet-egile, artisau eta ekoizle andana baten deskubritzeko. Interes handiko azoka eta, urtero bezala, arotzaren lanak ikusmina sortu du, nola erabili burdinola, ingudea eta mailua, burdinezko piezak sortuz.

## Espekulazioaren aurkako mobilizazioekin segitzen dute herrian

Ahetze juntako etxalde baten salmentaren salatzeko mobilizatu dira kolektiboak. 1,3 milioi euro galdegin dute. Lurzaindiak galdeturik, bere prezioa 400.000 euro luke (hiru aldiz gutiago). Lur horiek prezio horretan saltzeak eragina ukanen du bertze lur guzien prezioan. Ekainaren 2an bilkura egin zen Herriko-etxean, dosier honi dagozkion protagonistekin. Kolektiboak galde egin die interesdunei erne egon daitezen, afera hurbildik segituz. Harremanetan sartzeko, *senpertarrenkolektiboa@gmail.com* bidez.




Espekulazioaren aurka segitzen dute hainbat kolektibok. JL BESSONART




Ander Iñarra, Iñaki Olano eta Aritza Craamer leitzarra, helmugan. EHME



Azkorbebeitia, Peña eta Irigoienek osatu zuten emakumeen podiuma. EHME

# Azkorbebeitia eta Iñarra nagusi EH mendi erronkan

Bakarka 281 lagunek eta erreleboka 47 bikotek egin zuten 67 kilometro luze eta 7.200 metroko desnibela duen proba

**TTIPI-TTAPA** LEITZA
Euskal Herria Mendi Erronkaren bederatzigarren edizioa jokatu zuten ekainaren 3an Leitzan eta inguruetan.

Sei ordu, 34 minutu eta 37 segundo behar izan zituen Lezoko Ander Iñarra Olaziregik Leitzako plazatik abiatu eta lasterketako 67 kilometroak osatzeko. Orain arteko marka hobetu zuen, gainera. Bigarren postua Altzoko Iñaki Olano Orbegozok lortu zuen (06.38.37) eta Aritza Craamer Lizarraga leitzarrak hirugarren egin zuen (06.59.14).

Emakumezkoetan, berriz, Abadiñoko Oihana Azkorbebeitia Urizar izan zen bizkorrena (07.54.59). Sara Peña Lizarralde oriotarra bigarren geldítu zen (08.28.24) eta Uxoa Irigoien Odriozola getariarrak osatu zuen podiuma (09.20.47).

**Erreleboka**
47 bikotek osatu zuten erreleboka lasterketa, aurreneko lasterkariak Leitzatik Putzuzarreraino egínda (32,4 km eta 4.700 metroko desnibela) eta bigarrenak Putzuzarretik Leitzarainoko zatia (34,2 km eta 2.194 metroko malda). Laiane Arrospide eta Iñigo Larrate izan ziren denborarik onena egin zutenak (07.39.29. Eskualdeko bikote irabazlea Garbiñe Hernandorena Erbiti eta Gorka Bermejo Hualdek osatutakoa izan zen (09.03.18).

## EH MENDI ERRONKA

**ESKUALDEKOAK**

3.Aritza Craamer-Leitza 6.59.14
30.Mikel Altadill-Leitza 8.18.14
44.Xuban Eugi-Elizondo 8.35.11
46.Endika Eugi-Elizondo 8.39.51
58.Beñat Saralegi-Leitza 8.59.32
103.Omar Ugartemendia-Lei 9.45.47
105.Aitor Mitxelena-Les. 9.47.07
109.Iñigo Goñi-Donam. 9.51.56
190.Imanol Arretxea-Eliz. 10.55.45
193.Imanol Goñi-Elizondo 10.58.49
212.Aimar Leatxe-Donam.11.09.15
229.Mikel Almandoz-Lek.11.24.52
233.Rafa Alzate-Erratzu 11.28.44
242.Mikel Irigoien-Les. 11.41.43
266.Markel Barriola-Lei. 12.15.38
277.Ander Alduntzin-Lei. 12.42.02



UTZITAKOA

## Uxuri Portu Nafarroako txapeldun

Berriki Espainiako trial kopa irabazi ondotik, maiatzaren 27an Lizarran jokatutako Nafarroako trial txapelketa ere irabazi du Uxuri Portu lesakarrak. Hain zuzen, hasiberri misto kategorian lortu zuen garaipena Lesakako txirrindulariak eta Nafarroako txapeldun suertatu zen.



UTZITAKOA

## Iñaki Gonzalez garaile Lekunberrin

Desafio Aralar Erronka txapelketa jokatu zen ekaineko lehen asteburuan Lekunberrin, Espainiako III. Disc Golf Koparako baliagarria den torneoa. Baxi Basajauna taldeko Iñaki Gonzalez Olaizola nagusiru zen master 50 kategorian eta Mikel Ibarrola Manterola doneztebarra hirugarren izan zen.



Kukuprakak txapeldun eta Bitxiloreak txapeldunorde, Beasainen. ADOS

# Kukuprakak loratu dira Udaberri Torneoko finalean

Bitxiloreak taldeari irabazi zioten ekainaren 2ko Beasaingo finalean, tantoen aldeari esker, partida bana irabazi baitzuten

**TTIPI-TTAPA**
Udaberri torneoko finala jokatu zuten ekainaren 2an Beasainen. Hilabete iraun duen Ados elkartearen txapelketa berritzaile eta ederrean Kukuprakak taldeak (Naroa Agirre, Iera Agirre Iturriaga eta Orbegozo, Aitor Sarriegi bertsolariarekin) lortu zuen garaipena, Bitxiloreak taldeari (Ruiz de Infante, Irantzu Etxebeste Iantzi beratarra eta Naroa Elizalde Etxekolonea zubietarra) tantoen aldearengatik irabazita.

Zubietan bezalaxe Ruiz de Infantek partida ederra jokatuta Bitxiloreentzat lehen puntua poltsikoratu zuen (18-10), lau eta erdikoan. Binakako partidan, baina, Kukuprakek (Iturriaga eta Orbegozo) hiru tantotan utzi zituzten Bitxiloreak (Etxebeste eta Etxekolonea).

**Orain San Fermin torneoa**
12 pilotarik hartuko dute parte hiruna bikoteko bi taldetan banatuta. A taldean, Aldaregia-Ruiz de Larramendi, Ruiz Infante-Mendiburu eta Arrieta-Mujika ariko dira. B taldean, berriz, Etxekolonea zubietarra eta Agirre, Barrokal-Orbegozo eta Iturriaga leitzarra eta Etxebeste beratarra ariko dira.

Ekainaren 10ean hasi da txapelketa, Etxekoloneak eta Agirrek, Barrokal eta Orbegozoren kontra jokatu behar zuten partidarekin. Tiebas, Ubide, Erratzu, Arroniz eta Eulate bisitatuko ditu ondotik. Nola ez final handia Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatuko dute uztailaren 5ean, talde bakoitzeko lehenbizikoek.

Ekainaren 18an Tiebasen, Iturriaga eta Etxebeste, Etxekolonea eta Agirreren kontra ariko dira. Ekainaren 30ean Erratzun jokatuko den partidan, berriz, Ruiz Infante eta Mendiburu, Arrieta eta Mujikaren kontra ariko dira.

## Doneztebeko 43. Herri Krosa ekainaren 25erako prest du Errekak

**TTIPI-TTAPA** DONEZTEBE
Doneztebeko Herri Krosaren 43. edizioa antolatu du Errekak, udalaren laguntzaz, ekainaren 25ean, igandearekin. Helduendako bi lasterketa izanen dira, motza (3.650 m) eta luzea (7.300 m). Azken honetan, hiru lehenbiziko gizon eta emakumeentzat 150, 90 eta 60na euroko sariak izanen dira. Herriko onenek urdaiazpikoa izanen dute saritzat.

11:30ean hasiko den lasterketa nagusirako (kadete, jubenil, senior eta beteranoak) izen ematea *www.erreka.org* web gunearen bidez egin daiteke edo egunean bertan irteera puntuan. Halere, Internet bidez egitea gomendatu dute, kontua arinago joateko. Edozein kasutan ere ordainketa (8 euro) irteera puntuan egin beharko da. Gazteenendako izen ematea debalde izanen da kadeteak arte. Aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etik aitzinera aterako dira.



UTZITAKOA

## Gure Txokoako jubenilak txapeldun

Lehen aldiz Ohorezko mailara igotzeaz gain, Gipuzkoako Gorengoen mailako txapeldun suertatu dira Gure Txokoako jubenilak. Maiatzaren 27an Donostian jokatutako finalean 2-1 irabazi zioten Zumarragako Urola taldeari. Infantilak ere kopako finalera ailegatu ziren, baina galdu egin zuten.



EGURSPORT

## Etxegarai-Fagoaga laugarren arpanan

Euskal Herriko arpana txapelketa mistoa jokatu zen maiatzaren 27an Agurainen. Berako Ainhoa Etxegaraik eta Arantzako Alberto Fagoagak lan ona egin zuten eta laugarren izan ziren, podiumetik hiru segundo eskasera. Josetxo Barberena eta Ainhoa Iraizoz dira Euskal Herriko txapeldun.

# AGENDA

# EKAINAK 15 - 29

**INFORMAZIOA BIDALTZEKO:** Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus




**ANIZ Baztan Kantuz**

Herriari itzulia kantu zaharrekin. Euskal musika eta kantatzea gustuko dutenendako hitzordua.
*Pilotalekuan, ekainaren 18an, 12:00etan.*

## BESTAK

**BERA**
**Altzateko bestak**
*Ekainaren 16tik 18ra.*

**ARIZKUN**
**San Juan bestak**
*Ekainaren 21etik 25era.*

**SALDIAS**
**San Juan bestak**
*Ekainaren 23tik 25era.*

**ERRATZU**
**San Pedro bestak**
*Ekainaren 28tik uztailaren 1era.*

**DONEZTEBE**
**San Pedro bestak**
*Ekainaren 28tik uztailaren 2ra.*

## JARDUNALDIAK

**DONEZTEBE**
**Doneztebe Futbol Taldearen eguna**
*Ekainaren 16an eta 17an.*

**ETXALAR**
**Haurraren eguna**
*Ekainaren 16tik 18ra.*

**San Juan suak**
*Ekainaren 23an, 20:00etatik aitzinera.*

**ARESO**
**San Juan bezpera**
*Ekainaren 23an, arratsaldetik.*

**ARANTZA**
**San Juan suak**
*Parkean, ekainaren 23an, ilunabarrean.*

**LEITZA**
**San Juan bezpera**
*Plazan, ekainaren 23an, arratsaldetik aurrera.*

**LESAKA**
**Udako solstizioko besta**
*Ekainaren 23an, 19:00etatik aitzinera.*

**IGANTZI**
**San Juan eguna**
Baratzondoko elkarteak antolatua.
*Ekainaren 24an.*

## HITZALDIAK

**LEITZA**
**'Sendabelarrak eta zikloak: menarkiatik menopausiara' tailerra**
Garbiñe Larrearekin.
*Atekabeltz Herrigunean, ekainaren 15ean, 17:00etatik 19:00etara.*

**ZUBIETA**
**Txalaparta tailerra**
*Herriko ostatuan, ekainaren 16an. 18:00etan 6-14 urte bitartekoentzako eta 19:30ean 15 urtetik goitikoentzako.*

**GOIZUETA**
**'Egoerak eta liburuak' Joseba Sarrionandiaren hitzaldia**
Kultur Taldeak antolatua.
*Udaletxeko ganbaran, ekainaren 16an, 18:30ean.*

**ARESO**
**Irrisketa ikastaroa**
*Ekainaren 20an 17:00etatik 18:00etara.*

## AZOKAK

**ELIZONDO**
**Baztango Artisauak eta Zaporeak**
*Plazan, ekainaren 17an eta 24an, goizez.*

**LESAKA**
**Merkatu ttikia**
*Plaza Zaharrean, ekainaren 24an, 10:00etatik 14:30era.*

## PROIEKZIOAK

**ARANTZA**
**'10 Watt bakarrik'**
Oier Fuentesen film laburra.
*Baskulan, ekainaren 16an, 19:00etan.*

**BERA**
**Zinegoak film laburren emanaldia**
Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak antolatua.
*Beralandetan, ekainaren 30ean, 20:00etan.*

## IKUSKIZUNAK

**SENPERE**
**Kixka antzerki festibala**
*Larrekon, ekainaren 17an, 15:00etan eta 20:00etan. Urririk.*

**'Munduak' dantza ikuskizuna**
Corps Dansés taldea.
*Larrekon, ekainaren 18an, 19:00etan.*

**'Pasa gaitezen ekitaldietara'**
Scaramuccia antzerki taldea.
*Larrekon, ekainaren 28an, 20:30ean. Urririk.*

**LESAKA**
**Rebeca Danza akademiaren ikasturte bukaerako jaialdia**
*Harriondoan, ekainaren 18an, 12:00etan.*

## MUSIKA

**SENPERE**
**Goxoan taldea**
Europako ekialdeko musika.
*Larrekon, ekainaren 16an, 20:00etan.*

**ANIZ**
**Baztan Kantuz**
*Pilotalekuan, ekainaren 18an, 12:00etan.*

**ARIZKUN**
**Arizkun Rock jaialdia**
*Plazan, ekainaren 23an. 19:00etan Andoni Ollokiegi eta 23:00etatik aitzinera Ibil Bedi, Olaia Inziarte eta Bines Katiko.*

**LESAKA**
**'Hamar urte, hamaika dinamika' akordeoi jaialdia**
*Harriondoan, ekainaren 25ean, 12:30ean. Sarrerak 6 eurotan lesaka.eus-en.*

**Lesakako Musika Bandaren kontzertua**
*Plaza Zaharrean, ekainaren 30ean, 12:30ean.*

## KIROLAK

**LESAKA**
**Arkupe pilota elkartearen erakustaldia**
*Udal pilotalekuan, uztailaren 1ean, 16:00etan.*

NIRE AUKERA



PIERRE EZKURRA

# «Kasik egunero joaten naiz mendira korrika egitera edo entrenatzera»

**PATXI ETXEBERRIGARAI** SARAKO LASTERKARIA

30 urteko gazte saratarra da Patxi Etxeberrigarai. Denbora mendian pasatzea eta kirola du gustuko, eta «pixka bat guziak segitzen ditut: futbola, errugbia, txirrindularitza, pilota…».

**Errugbitik atletismora**

«Betitik» egin izan ditu kirolak Etxeberrigaraik, hala nola, pilota, saskibaloia, atletismoa eta errugbia. «Atletismoan ari nintzenean lagunek eraman ninduten errugbira. Hor talde giroa atzeman nuen azkar, eta plazer haundia izan zen aritzea».

Hala ere, duela hiru urte, ia 15 urtez aritu ondotik, uztea erabaki zuen, «denbora gehiago ukaiteko haurrekin». Orduan, «indarrak erabiltzen ahalko nituen kirol bat atzemateko beharra nuen, beraz, bizikletan eta pixka bat mendian korrika hasi nintzen».

Baina ez zuen aski; lehia falta zuen, «eta lehia hori desafioetan ukan dut. Nire lehen desafiorako, pentsatu nuen: *ea kapable naizen Senpereko 80 kilometroak egiteko*. Lagun bateri galdetu nion zer egin behar nuen ongi prestatzeko eta lortu nuen!. Hortik Iban Hirriart Urrutirekin hasi nintzen lanean, bera entrenamenduak lantzen eta ni desafioak hautatzen».

**Mendiz mendi**

Gaur egun, «kasik egunero joaten naiz mendira korrika egitera edo entrenatzera, familiarekin ibiltzera, bizikletan ibiltzera…Pirinioetan ibiltzea aunitz maite dut; hemengo mendiekin konparatuta haundiagoak dira eta laku zoragarriak dituzte bertan».

Baigorriko Ultra Trail mendi lasterketan parte hartu zuen maiatzean, 130 kilometroko ibilbidea, eta baita emaitza ona lortu ere, seigarren postuan ailegatu baitzen. «Zinez egun goxoa pasatu nuen. Helburu bezala 18 ordutik beheitiko denboran egitea nuen, eta 17 ordu eta 53 minututan egitea lortu nuen. Zer plazerra!». Azaldu duenez, «nire helburuak beti denbora markak izaten dira».

**«LASTERKETETAN NIRE HELBURUAK BETI DENBORA MARKAK DIRA»**

Helburuak ez ezik, ametsak ere baditu lasterketen munduan; «Diagonale des Fous lasterketan parte hartzea da nire ametsa, eta berantago Tor kurtsak Italian». Honez gain, agorrilean L'echappée Belle lasterketan parte hartuko du Alpeetan. 149 kilometro eta 11.300 metroko desnibela ditu lasterketak, «eta gogo haundia daukat».

**Etorkizunera begira**

Gustura aritzen da lasterka Etxeberrigarai, «eta errugbian bezalako taldea sortzea lortu dut: Ibanek laguntzen dit entrenatzen, David Iratzokirekin burua lantzen dut, emazteak indarra ematen dit eta familiak kurtsetan eta egunero bizitzan laguntzen dit. Beraz, ez nago bakarrik, talde bat gara!».

Etorkizunera begira, asmoak argi ditu: «nire haurrez baliatzen segitzea, gure momentuak ukaitea eta mendietan plazerra hartzen segitzea».

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN HARTZEKO

**BERTIZARANA-DONEZTEBE-BAZTAN**en etxebizitza errentan hartu nahi du bikote gazte batek, lan kontuengatik denbora luzerako. Zerbait moldatu behar bada, moldatzeko prest. ☎633 49 19 96 (Sara) / 646 69 04 73 (Andres).

**BAZTAN, BORTZIRIAK EDO MALERREKAN** Madrilgo 50 urteko pertsona batek etxebizitza errentan hartu nahi du. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎626 63 53 11.

**ELIZONDO**n neska batek etxebizitza errentan hartu nahi du. Pertsona arduratsua eta garbia. ☎613 32 98 36.

Emakume bat errentan hartzeko etxe bila, irekia erosteko aukerarekin. Txakur baten jabea, Elizondon lan egiten duena. Baztanen, Malerrekan eta Bortzirietan behar luke. Nahiago herritik pixka bat aparte edo mendian dagoen etxea. ☎664 15 54 80.

#### SALGAI

**ELIZONDO**. Giltxaurdi karrikan pisua salgai: 3 logela, egongela, balkoia, hall, bainugela (berritua), eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

**BERA**. Kanttonberri karrikan 81m2ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa 144.000 euro. ☎619 63 98 78.

#### EROSI

**SUNBILLA, MALERREKA EDO BERTIZARANA INGURUAN** baserria erosi nahi dute. ☎628 03 25 58.

### LANAK

#### ESKAINTZAK

**BERA**. Edari biltegian lagun bat behar dute lanaldi osoan aritzeko, biltegian bertan eta banaketan aritzeko. ☎676 05 16 60.

**ZUGARRAMURDI**. Ansalas ostatuan eta dendan aritzeko langilea behar dute. Euskaraz eta frantsesez jakitea kontuan hartuko dute. ☎948 59 90 82 / 622 95 05 76.

**ULTZAMA**. Behitegian lagun bat behar dute lanaldi osoan aritzeko, makinariarekin ibili eta bertze lanetarako. Lanaldia astero txandaka. ☎690 64 35 14.

**LESAKA**. Andra Mari Zahar Etxean erizain, sukaldari eta laguntzaile lanetan aritzeko langileak behar dituzte. Bidali curriculuma *andramari@lesaka.eus* edo *tsocial@lesaka.eus* helbidera.


## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 www.erran.eus

744 48 43 61 info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da
**ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
**Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik


Teleoperadore-laguntzailea behar dute, 30 urtetik goitikoa. ☎695 85 87 29.

**ELIZONDO**. Janari-denda eta bisita gida turistikoen negozioa eskualdatzeko. 50.000 euro negoziagarri. ☎628 01 98 93.

**ELIZONDO**. Udan janari denda eta bisita gidatuen enpresan aritzeko langilea behar dute. ☎628 01 98 93.

Larhungo Maritxen bentan langilea behar dute uztailean eta abuztuan lan egiteko. ☎674 79 58 63.

**LESAKA**. Lidera hortz klinikan laguntzaile bila ari dira. Bidali curriculuma: *infolidera@hortzklinika.es*.

#### ESKARIAK

Adinekoak zaintzen esperientzia duen emakumea zaintza lanetan ariko litzateke uztailetik aitzinera. ☎666 19 96 14.

Ekain osoan eta uztailean eta abuztuan arratsaldez haurrak zaintzeko lan bila ari den neska. Irakasle ikasketak eginak. Orduen eta egunen inguruan solastatzeko prest. ☎722 25 10 83.

**ELIZONDO**ko 18 urteko mutikoa udan haurrak zaintzen ariko litzateke. Bi urtez Dindaia fundazioak antolatutako udalekuetan, Elizondon, begirale aritutakoa. ☎629 46 66 62 (Iñaki).

**SARA ETA INGURUAN** (Ezpeleta eta Kanbora arte) emakume bat garbiketan edo adinekoak zaintzen ariko litzateke. Jarri harremanetan Whatsapp bidez. ☎0034 643 51 37 80.

Erizaintza ikasketak egiten ari den 20 urteko neska beratarra, uztailean eta abuztuan, astegunez, lan egiteko prest. ☎603 65 54 76.

## BASERRIA

**BEHI-AZIENDAK**

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg kanal**

| | |
|---|---|
| • Extra | 5,34 € |
| • 1.koa | 5,22 € |
| • 2.koa | 5,10 € |

**Urruxak: €/kg kanal**

| | |
|---|---|
| • Extra | 5,45 € |
| • 1.koa | 5,31 € |
| • 2.koa | 5,20 € |

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

**Aretze ttikiak**
• (15 egun ingurukoak).

**Aretze mestizoak**

| | |
|---|---|
| • Urruxak | 125,00 € |
| • Idixkoak | 150,00 € |

**Aretze nabarrak**

| | |
|---|---|
| • Urruxak: | 120,00 € |
| • Idixkoak | 140,00 € |

**ZALDI-AZIENDAK**

**Zaldikoak: €/kg**
• Sortu berriak:5,40/5,50 €
• Zaldi-behorrak 2,52/2,69 €

**ARDI-AZIENDAK**

**Bildotsak**
• 6-8 kilokoak: 8,80/8,90 €
• 8-10 kilokoak:6,90/7,60 €

**ZERRI-AZIENDAK**

**Zerrikumea** (19 kilo): 90 €
**Zerri gizena** 2,025 €
**Zerramak** 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 26tik ekainaren 2ra bitarteko prezioak)

### ZERBITZUAK

#### DENETARIK

**BORTZIRIAK**. Desbrozadorarekin garbiketa lanak eginen lituzke. ☎661 43 24 27.

#### ZURGIN LANAK




### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO



Katakumeak oparitzeko. ☎626 33 53 98.

Zakur arra opari. Ama artzain zakurra eta aita collie arrazakoa. ☎674 43 29 43.



Katakume jostari eta harrapakariak opari. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.

### DENETARIK

#### SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

'Emakumeen/nesken' bizikleta salgai. Ia batere ibili gabea, 25 km bakarrik. Berria bezala dago. Prezioa 98 euro negoziagarriak. ☎678 30 32 59 / 948 63 06 08.



Pigini markako super king doble casotto akordeoi kromatikoa salgai. 4 ahots eskuinean eta 5 ezkerrean. ☎722 81 97 66.



Tximeneta salgai, Lacunza markakoa. Gillotina erako atea. ☎687 95 03 48.




## MOTORRAK

TAILERRAK







## URTEBETETZEAK



**Beñat Goñi Errandonea**k 10 urte bete ditu ekainaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Sunbillako **Haize Baleztena Agirre**k urte bat beteko du uztailaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik. Maite zaitugu!!



Arantzako **Xuban Ordoki Hualde**k 3 urte beteko ditu ekainaren 21ean. Zorionak familia guziaren partetik eta prestatu berendu eder bat.



Itsasu-Urdazubiko **Oihan Etchart Ibarr**ek 6 urte bete ditu ekainaren 13an. Zorionak familiaren eta bereziki arreba Joneren partetik. Sei urte, sei muxu.



Irungo **Aiur Otxoteko**k eta Lesakako **Jon Otxoteko**k 3 eta 35 urte beteko dituzte ekainaren 24an. Zorionak bioi Irungo eta Lesakako familien partez! *Pa* haundi bana!

## SORTZEAK

- **Teo Etxegoien**, Sarakoa, maiatzaren 17an.

## EZKONTZAK

- **Pierre Roquebert** eta **Justine Chambon** maiatzaren 6an Saran.



URTEURRENA



**Vicente**
**ALMANDOZ LARRAIN**

Irunen, 2021eko ekainaren 9an

**II. URTEURRENA**

*Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Hita SAGASETA INDA**

*Zenbat momentu Saharaztanen*
*Hita denok elkarrekin*
*haur sahararrak hainbat urtetan*
*goxatu zenituen fin*
*basamortutik Erratzuraino*
*zutaz solastearekin*
*zenbat lekutan oroituko den*
*jendea irri batekin.*

***BESARKADA BAT.***



## HILBERRIAK

- **Felisa Irigoien Igoa**, Lesakakoa, maiatzaren 25ean, 97 urte zituela.
- **Javier Sanzberro Iturria**, Etxalarkoa, maiatzaren 25ean, 63 urte zituela.
- **Rosarito Etxegoien Olabe**, Elizondokoa, maiatzaren 26an, 82 urte zituela.
- **Jose Larregi Sarratea**, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 26an, 78 urte zituela.
- **Mª Elena del Moral Ariztegi**, Elizondokoa, maiatzaren 27an, 53 urte zituela.
- **Jose Goienetxe Etxebere**, Arizkungoa, maiatzaren 27an, 68 urte zituela.
- **Juan Miguel Ibarra Lizardi**, Urdazubikoa, maiatzaren 28an, 80 urte zituela.
- **Epifania Juanikotena Aleman**, Zigakoa, maiatzaren 28an, 91 urte zituela.
- **Estefania Izagirre Irigoien**, Berakoa, maiatzaren 30ean, 93 urte zituela.
- **Joxe Garralda Telletxea**, Iturengoa, maiatzaren 31n, 83 urte zituela.
- **Elena Zozaia Irigoien**, Lesakakoa, maiatzaren 31n, 91 urte zituela.
- **Tomas Mutuberria Jorajuria**, Sunbillakoa, ekainaren 1ean, 95 urte zituela.
- **Antonio Prados Jodar**, Elizondokoa, ekainaren 3an, 91 urte zituela.
- **Maritxu Juanena Telletxea**, Donamariakoa, ekainaren 5ean.

IRACHE
tanatorioak
Nafarroako familien zerbitzura 1976tik
BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA
ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara
948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

BAZTAN BIDASOA
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU
365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIAK

KULTURKARI
Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com
· Pertsonalizatuak
· Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
· Hainbat neurri eta kopuru
· Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
· Ereduak aukeran
· Gutun-azalekin entregatzen dira

IZARRA
Gure herria, gure jendea, gure sustraiak

TANATORIOAK
ELIZONDO · BERA · DONEZTEBE · ARANTZA · IGANTZI
24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

# KONTATU KONTUAK



BERAKO LAGUN HANDIAK

**Berako Lagun Handiak elkarteko bazkideak Aiegin**. Berako Lagun Haundiak elkarteko kideak Aiegin izan ziren egun pasa ekainaren 1ean. Arroizko bodega bat ikusi zuten goizean, Iratxe jatetxean bazkaldu eta arratsaldean Arellanoko erromatar hiria ikustera joan ziren.



ANA INDABURU

**Neli Iantziren hitzaldiak Etxalarren**. Emozioek gugan nola eragiten duten, nola zaindu geure burua eta gure bizitzako asmoa jorratu dituzte hiru larunbatez Neli Iantzirekin Etxalarren. 40 lagun pasa elkartu dira saio bakoitzean; adin guztietakoak, herritarrak eta kanpokoak, eta denak gustura atera dira saioetatik.



ARANTZA AGIRRE

**Tom McGrath iheslari irlandarra oroitu dute Beran**. Euskal Pirinioak Askatasun Bideak elkarteak antolatuta, 1942an Poloniako nazien kontzentrazio eremu batetik ihes egin zuen Tom McGrath iheslaria omendu zuten ekaineko lehenbiziko asteburuan Beran. Martxako kideak Urruñatik oinez ailegatu ziren Ibardingo lepora eta han egin zieten lehenbiziko harrera Berako Udaleko ordezkariek eta hainbat herritarrek. Ondotik, plazan egin zuten ekitaldia. Tom McGrath zenaren semea den eta izen bera duen Thom McGrath eta Erik McGrath biloba bertan izan ziren.



UTZITAKOA

**Ibardingo igoera Beran**. Ibardingo igoeraren VII. edizioa egin zuten Beran ekainaren 3an. 70 auto gidarik eman zuten izena eta azkenean 56k lortu zuten ibilbidea osatzea. Andoni Blasek irabazi zuen, bigarren lekuan Arnau Dardans gelditu zen eta hirugarrenean Iker Palacios. Ondotik bestak segida izan zuen, parte hartzaileen eta zaleen afaria egin baitzuten Zalain ostatuan.



BIDAL ETXARTE

**Beti Gazte Astea Lesakan.** Tailerrak, ginkanak, futbol partidak, mendi irteera, margo eta argazki lehiaketak... Ekitaldiz betea izan da Lesakako Beti Gazte ekarteak antolatu duen Beti Gazte Astea. Eta horren bueltan, ekainaren 3ko bazkari herrikoiaren ondotik, denboraldi honetako jokalari eta tiralari erregularrenak saritu zituzten. Futbolean, Emakumeen Ohorezko Erregional mailan erregularrenaren saria Paula Artiedari eman diote; gizonezkoen Ohorezko Erregional mailako erregularrenaren saria Iñigo Zuzaiari eta jubenilen Euskal Ligakoa Iosu Zubietari. Sokatiran, emakume tiralari erregularrenaren saria Ane Gurrutxagarentzat izan da eta gizonezkoetan Unai Gurrutxagarentzat.

# PLAZAN BAZAN

**ZORIONAK!**
**KILLARI REYES PEÑA**
831. aleko irabazlea zara!




## IZARRAK

Zenbat punta ditu izar ugarienak? Ugarienak diren horiek elkarri lotu eta irudi polit bat aterako zaizu



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)




Laguntzailea:
ibaizabal

**Plazan bazan** egiteak **BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin maiatzaren 16a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera: **(0034) 774 48 43 61** zure izen abizenak jarrita. Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!



**INTERNETEN ERE BAI !**

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

## ASKARIA



Hona hemen Pelloziriren bokatarik gustukoena: tomatea, txanpinoia, arrautza, urdaiazpikoa, gaineko ogi zatia eta azpiko ogi zatia. Lagunei ere eskaini nahiko lieke, baina zenbat ogitarteko osa ditzake?



## ITZALA

Zein da Pelloziriren itzal zuzena?




## ERABAKI ETA MARGOTU

Zer da hau, pizza ala tarta zati bat?
Pizza baldin bada, marraztu iezazkiozu zure gogoko osagaiak.
Tarta zati bat baldin bada, paindu munduko gustagarriena izan dadin.



## **Ttipi Txartela**rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:
**TTIPI-TTAPA**
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
**info@ttipi.eus** | **erran.eus**
**www.ttipi.eus/ttipi-txartela**

# 831 zenbakiko irabazleak >




# ZOZKETAK

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**
Mª Teresa Ibarra Cia | LEITZA
**Buatxabal - Kamiseta bat**
Maite Larregi Etulain | ARIZKUN
**Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat**
Manuel Lóciga Zubieta | IRUÑEA
**Irisarri Land - Sarrera bat**
Mikel Iriarte Pikabea | LESAKA
**WOW Park - Sarrera bat**
Ima Alduntzin Sagastibeltza | BERA
**La Rhune - Sarrera bat**
Justo Arburua Alzuiet | URDAZUBI
**Kukuka - Haurrendako lote bat**
Eva Aldabe Portu | OIEREGI
**Izar Park - Sarrera bat**
Arantxa Gereño | PASAI DONIBANE
**Erein - Hiru liburu**
Maite Oteiza Apezetxea | IRURITA

### DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com




**Bi sarrera**

### ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com




**Kamiseta bat**

### EZKEXA
www.ezkexa.com




**Kamiseta bat**

### BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com




**Sarrera bat**

### WOW PARK
www.wowpark.fr




**Sarrera bat**

### MENDUKILO
www.mendukilo.com




**Bi sarrera**

### MARTIKO
www.martiko.com




**Lote bat**

### ANIKOTE
@AnikoteLeitza




**Sarrera bikoitza igerilekurako**

## Sartu

**ttipi.eus/ttipi-txartela**

**webgunean eta ikusi abantaila guztiak!**

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK



Aprobetxa itzazu **Ttipi Txartelak** eskaintzen dizkizun abantailak, **Ttipi Txartela** onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

# LIBURUAK

**Hiru liburu**




**ikaselkar**
www.ikaselkar.eus

**Deskontuak eta zozketa:** Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!